

RAFA EGIGUREN

Chevrolet tropikala



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2007 Rafa Egiguren

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2007ko iraila

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

IZUA menderatu ezinik zebilelako ireki zuen Migelek liburua, bertzek lo hartzeko edo ez pentsatzeko irekitzen duten bezala. Ez zegoen hegazkinean ibiltzen ohiturik, eta ez zuen bere baitatik jalgi nahi aireratu arte. Ez zekien zer liburu irakurtzen ari zen ere; orrialde zuriaren gaineko letra beltzetan iltzaturik zeuzkan begiak eta ez zuen burua tarte luze batean bedere goratzeko asmorik, baina ehun bat kiloko hitzontzi kankailua egokitu zitzaion ezker aldean, eta solaserako gogoia zekarren agi denez.

- La literatura -erran zion tupustean- es un laberinto.

Automobil txipi bati jarraiki, batere presarik gabe, abiatzeko pistara heldu zen hegazkina eta maniobra baldar batzuk egin zituen gero. Aireratzeko baimenaren zain, goiti egin zuen motorraren presioak eta, baporezko eltzea irudi, dardara batean hasi ziren bazter guziak. Abaila bizia hartu zuen istantean eta, lurra utzi bezain fite, sabelean gorde zituen gurpilak poliki-poliki.

- Los libros -hurbildu zitzaien berriz ere- son de papel... como las casas japonesas.

Objektu papiroflexikoak ziren bere ustez; paketeak egiteko artearen adar bat, azken batean. Origami deitzen omen zioten jolas horri Japonian: aitzurrak eskuratu, borts bat metro koadro paper mahai gainean hedatu eta, ondoren, bionboa balitz bezala, pleguz plegu tolestu; ez zen bertzerik egin behar. Baina, noski, hobe badaezpada idazten poxi bat jakin eta kontatzeko zerbait edukitzea.

Airean zintzilik, Migelek korapiloa eginda zeukan eztarria. Itsas azpian entzuteko asmatu ematen zuen xilofonoa -Milt Jackson, behar bada- nabarmendu zen gero eta ozenago giroan, eta handik tartetxo batera gerrikoa askatzeko baimena eman zioten. Errepideak eta lantegiak atzeman zituen ostarteetan barna ganduturik eta, burua itzuli zuelarik, bertze zerbait erran nahi bide zion bidaideak:

- Estas ciudades ya no caben en los mapas; cada una necesita un atlas por lo menos.

Ez erretzeko agintzen zuen seinale gorria itzali eta, zigarro-paketearen bila ari zela, bi aza-

fata azaldu ziren gortinen artetik. Istripuren bat gertatuko balitz salbamendu-jakak nola jantzi behar zituzten azaldu nahi zieten, eta Zuberoako Pastoralak etorri zitzaion gogora Migeli. Kabina barruan ezkutatu aitzin arratsaldeko prentsa banatu zuten bidaztien artean eta, lenteak sakelako zapi zuriarekin garbitu ondoren, orrien beltzean murgildu zen.

Halako batean, giroan zebilen musikaren bolumena apaldu eta ez tul batzuk sortu ziren bozgorailuetatik:

- Atención señores pasajeros: la noche está estreyada, los astros tiritan asules a lo lehos, y el viento de la noche gira en el sielo y canta. Les habla el capitán Ulises Tamayo. Bienvenidos a bordo.

Aitzinaldeko bidaztiek zurtzuila erakutsi arte-raino atera zuten jarlekuaren bizkarretik goiti burua, eta gibe-lekoak, bekainak kopetatik irtete-ko zorian, ustekabekoa irensten saiatu ziren. Eguraldiaren berri jaso arte iraun zuten adi eta, xilofonoaren tantak ozendu ahala, batzuk jarlekuetan berriro murgildu eta bertzeek elkarri egin

zioten so harriduraz. Bidaidearekin gurutzatu zuen behakoa Migelek.

- Hágame usted el favor, compañera.

Aldamenetik iragan berria zegoen azafata eta, jira egin zuelarik, nork deitzen zion asma-tzen saiatu zen. Eskolan bezala altxatu zuen bi-daztiak hatza, eta Migelek zer behar ote zuen galdetu zion bere buruari: aspirina bat izaten ahal zen, edo baso bat ur, edo afaria noiz ekarri behar zioten bertzenaz; ez zuen asmatu, zeren...

- Acá al fondo, la guagua se menea -erran zion hondamendiaren ertzean balego bezala-. Es presiso que me encuentre ubicación ayá adelan-te.

Azafata gustatuko zitzaion beharbada, edo bazterrak endredatzeko gogoia izanen zuen. Lekuz aldatuko balute ia hobe, haren ordeaz atso berritsuren bat, agure zurrungariren bat edo haur jakintsuren bat ekartzen ez bazioten. Egun-kariaren gibelean ezkutatu zen berriz ere Migel, baina belarri bat utzi zuen hala ere kanpoan.

- Es que lo mismo no hay plasas -ihardetsi zion bere onetik atera gabe, nahiz ernegu poxi batekin, emazteki gazteak.

- Escúcheme -ahalegindu zitzaion amore eman nahi ezik.

- Hase rato lo escuché, compañero -erran zion gogor samar, eta etorritako bidetik egin zuen alde.

- Inaudito -iruditu zitzaion bidaztiari.

Aitzakiaren bat behar zuen albokoarengana hurbiltzeko, eta erantzun gisa erakutsi zion irria probestu zuen bere bizitzaren berri ematen has-teko. Alberto Jose zuen izena, Camaguey hirian jaioa. Hiru hilabete eman berri omen zituen Ma-drilen beka bati esker. Ikasle izateko tenorea joana zeukala iruditu zitzaion Migeli. Ez zuen kontuan hartu zertan egiten zuen lan, baina ter-minologia industrialari buruzko biltzar batetik ze-torren.

- El papel -abiatu zitzaion gupidarik gabe-, por ehemplo, estrasa, hihiénico, Manila, sebo-ya...; de aluminio, de fumar, barba, de plata...; ignífugo, impermeable, aislante, secante... ¿Usted sabe cuántos términos existen para de-signar los papeles?

Asmo onez ari zen, baina buztanetik zintzili-
katu eta Tarzan izanen balitz bezala, zabuka ibili

nahi ote zuen egin zitzaion Migeli; beraz, ez zuen erantzuteko lanik hartu.

- Dosenas de miles -azaldu zion bere jakituriaren tamainarekin harriturik.

Alemaniko industria astunari heldu zion gero. Arras kezkatuak omen zebiltzan hango sindikatuak langileek makinen izenak ezagutzen ez zituztelako. Charly deitzen zioten edozein tramankuluri Ipar Ameriketako yankiek Vietcongeko gudariei bezala eta, anabasa horretan galdurik, izugarri ugaltzen ari ziren istripuak. Siemens enpresak, konparazione, bi terminologo zeuzkan plantillan, eta hainbateko emaitzak erdietsi omen zituzten denbora labur.

- ¿Usted sabe en qué tanto por ciento desendió la siniestralidad de la empresa?

Ezetz ihardetsi zion Migelek. Nora begiratu ez zekiela, lenteak erantzi, zapi zuria sakelatik atera, kristalei hatsa bota eta garbiketa lanetan hartu zuen sosegu.

- Un quinse por ciento. Es tremendamente importante yamar a las cosas por su nombre; y por sierto... ¿cuál es el suyo?

- Miguel.

Izena ez ezik deitura eta Iruñean bizi zela ere eman zizkion jakitera; eta erdaraz Pamplona erraten ziotela ohartu zelarik, ez zuen konprenitzen ahal zertan ari zen Nafarroako semea uztailaren hasmentan sanferminetatik hain urrun.

Estafeta karrikan bizi zen Migel, apartamentu txipi batean. Akuran eskuratzea espero zuenari esker menturatu zen Habanara. Sanferminetako astearen ordainetan eman ziotenarekin aski izan zuen hegazkinaren txartela hartzeko, baina asmo luzeagoak zeuzkan, eta bere lagun baten eskuetan utzi zituen etxeko giltzak.

Astebete lehenago, Taconeran, La Vienesa kafetegian gosaldu zuten. Azken hari-muturrak lotzeko eta agur egiteko asmo hutsarekin elkartu ziren egun hartan, baina kafetegitik irtenda-koan, besotik heldu eta intentzioz betetako behako samurretan desegin zitzaion Ainhoa. Aspal-diko lagunak izaki, ustekabeen harrapatu zuen Migel eta, gainera zetorkion entzierro emozionalaren beldurrez, bi pauso egin zituen gibelera.

Ez zuen hegazkineko solaskidea azalpenekin aspertu nahi izan, baina eskarmentu makur bat irentsi ezinik zebilela erran zion. Ez zuen umore-

rik jendartean murgiltzeko, eta itsasoa tartean paratzea otu zitzaion, azkenaldiko buruhauste batzuk bakardadean hausnartzeko. Erdi broman erdi serio ari zen Migel, eta berehala ezabatu zuen oraino oroimenean zebilkion gomuta.

Alberto Josek bihotzez eskertu zion arrotz baten aitzinean erakutsitako konfiantza eta Migelek, bidaidearen eskuzabaltasuna ikusirik, Turismoko Sailarekin konpondu gabe zeukan kontu baten berri eman zion, sei bat hilabete betetze-ko asmotan baitzeturren Habanara, hilabeterako baimena bertzerik ez zekarrela.

- No es fácil, compañero -erran zion, arazoaren garrantziaz oharturik-, a menos, Miguel, que usted disponga de su permiso con derecho a residencia; pero, aguarde un tanto...

Azafatak afaria banatzen ari ziren, airean geratu zen solasa. Entsalada irri-emangarria, zinger azpiko xerra mehea eta gasna txipi borobil gorri bana paratu zieten mahai tolesgarriaren gainean eta, hegazkinetan pisuak erabateko garrantzia duenez, umeez jolasteko erabiltzen zizuzten plastikozko koilara, sardexka eta labana eman zizkieten paper zurian bildurik. Ardoa ala

garagardoa hautatu behar izan zuten, eta laranja bana ekarri zieten postrerako. Isilik iraun zuten dena akitu arte, eta afalondoko zigarroa erretzen ari zirela, bere eskaria zertan zen jakin nahi izan zuen Alberto Josek lehengo azafata bazetorrela probesturik, zeren...

- Me se pone tremendo dolor de cabeza -gazitatu zion desesperatuki.

Ulises Tamayo kapitaina bera hurbildu zitzaion zer zuen galdezka. Angolako edo Namiabiako frontetik heldu berria zirudien. Tratu ezin hobea eman zion endredamakilari. Egia errateko, kontuan hartzeko moduko *fa sostenuto* baten eraginpean egoten ahal zen, baina biziki egokiak iruditu zitzaizkion aberkidearen arrazoiak, eta lepotik heldurik abiatu ziren elkarrekin gidari-kaiolara bidean. Aitzin aldeko gortinen artean galdu zituen Migelek urrunean, eta handik luzera hasmentako hitz ozena ezagutu zuen bozgorailuetan:

- ¡Aeromosa!, un puchito de café; bien tinto.

Irria heldu zitzaion ezpainetara Migeli eta, bakardadean asperturik, bidaideak jarlekuaren gainean utzitako liburuari erreparatu zion. Ekialde-

ko ipuin bilduma zen; Buda potolo bat ikusi zuen azalean apatx jesarririk, patxadan, zorientasunezko behako inozoaren gibelean soraio. Ipuin bat hautatu eta irakurtzen hasi zen. Ez zitzaion sobera interesatu eta loak hartu zuen bigarren pasarte akitu aitzin. Ordu luzeak eman zituen lo, eta iratzarri zelarik Alberto Jose zeukan aldamenean.

- Es un asunto de cohones -erran zion terminologoak, ametsik egin ez zezan-, pero descuide, si usted quiere, yo me hago cargo de todo.

Erraten ahal zen arazoaz hausnartzen eman zuela gau osoa, baina nafarrak ez zuen haren-gandik miraririk espero. Hala ere, Alberto Josek bere asmoak azaldu zizkion, eta taxu miko bat bazutela onetsi behar izan zion Migelek bere buruari. Horrela, bada, urte erdia Habanan eman nahi bazuen, bertan bizitzeko baimena eskuratu beharra zeukan derrigor; baina lanbideren bat izan ezean alferretan eginen omen zituen ahalegin guziak.

Migelek ez zekien zer deliberatu. *Yo me encargo de todo* erran berri zion; beraz, ez zuen kubarrenaren asmo onaren aitzinean hesirik paratu

nahi izan eta, noizbait, asmo zehatzagoak ere proposatu zizkion gainera; alegia, irakasleren bat ezagutzen zuela unibertsitatean eta bazego-ela muturra sartzeko aukera bat. Aurki teatroari buruzko ikastaro trinko bat antolatu behar zuen hark, eta mesede bat zor zionez, azterketa gaindituz gero, baimena ez ezik Habanan etxebizitza akuran hartzeko eskubidea ere bereganatuko omen zuen.

Eguna argitu ez zuen arren, gosaria eskaintzen ari ziren azafatak. Kafesnea eta opila zeuzkaten mahai gainean zain, eta mutu egin zuten legea. Zigarroa piztu orduko bisita-txartela eskaini zion terminologoak. Izen-abizenak irakurri zituen Migelek, eta azpian: *Licenciado en Lingüística Aplicada por la Universidad de La Habana*. Ordaineko txartelaren zain geratu zitzaion terminologoa, baina bidaideak errelojuari begiratu zion azalpenik eman behar ez izateko. Alberto Joserekin trabatutako azafata inguruan zebilen, eta Migelek Habanara iristeko zenbat denbora falta zuten galdetu zion. Ordu erdi inguru bertzerik ez zuten behar izanen. Abiatzean egin zitzaion korapilo bera sortu zitzaion zilkoan.

Sienfuegostarrak goiti beheiti begiratu zion Ulises Tamayo kapitainaren ordezkariari:

- Disculpe, aeromosa, tengo entendido que la compañía acostumbra obsequiar a los pasajeros diversos artículos publicitarios. No tendrá usted algún bolígrafo, algún ensendedor, en fin... algún souvenir para mi pequeña.

Kalapitak saihestu nahi dituenaren aurpegia erakutsi zion azafatak, baina ez zion ezetzik erran. Aitzineko gortinen gibelean eman zuen denbora pixko bat eta, bueltan, *Caney 8 años* idatzirik zeraman arkatza sartu zion alkandora-ren sakelan. Ez zion eskerrik eman, eta kokotseko bizarrekin jardun zuen jolasean emaztekoa lekutu arte. Luzaro gordetako hasperena bota zuen ondoren, eta arestian emandako txartela bueltatzeko eskatu zion Migeli.

Hotel Sevilla, Calle Trocadero, idatzi zuen txartelean, eta beheitiago: *jueves, 7 de julio, 8 de la tarde*.

Ez erretzeko agintzen zuen seinale gorria piztu zen, eta Alberto Josek hautsontzi txipian itzali zuen zigarroa. Inguruko bidaztiak, urduri, gerrikoak lotzen ari ziren, eta Migelek ere lotu

zuen berea, jausgailuari lokarria paratzen ari baltzaio baino beldur handiagoarekin. Eskailerak jaisten irudi, hegazkinak mailaz maila egin zuen beheiti, eta karamelu bat onetsi behar izan zion Alberto Joseri.

Milt Jacksonen xilofonoa ia isildu arte apaldu eta pilotu nagusiaren hitzak entzun zituzten:

- Atención, señores pasajeros: soy el capitán Ulises Tamayo. Les hablo en nombre de toda la tripulación. Confiamos que el viahe haya sido de su agrado. Un saludo.

Leihatilan barna begira, itsasoaren urdin turkesa eta urak lurraren ertzean utzitako apar zuria ikusten ziren gauaren azpian. Ezkerreko hegala jaitsi eta ukondo zabal bat marrastu zuen hegazkinak. Irrati baten tripa zaharra zirudien zurtasun bat bereizi ahal izan zuen Migelek gero eta nabarmenago itsas bazterrean.

- La Habana -erran zion Alberto Josek harrotasunez.

Ilunpean, airekoa hurbildu eta jaitsi ahala, irrati hiri bihurtu zen eta, udal argiteria ikusi zuelarik, izartegia buruz beheiti zegoela bururatu zitzaion. Azkenean, eskuarekin ukitzeko mo-

duan, kablez jositako karriketara, etxe gaineko terrazetara, zuhaitz eta automobil zaharretara hurbildu zen hegazkina eta, handik harat, aireportuko dorreak harrapatu zuen kontrolpean.

Orduko zabalik zeraman sabela eta, piztiaren bat harrapatzeko bezala, kanpora atera zituen gurpilak. Aire bere lekuan utzi eta lur hartu ondoren, bizpahiru jauzi eman zituen. Esku-zarta jotzeko gogo egin zitzaion bidaztiei. Abaila bizian joan zen puska batean eta, luze gabe, indargabeturik, Jose Martiren erretratuari so geratu zen.

Aireportuko ate nagusitik irten zelarrik, gauaren sukarrak besarkatu zuen tupustean. Asper-tzeraino egon behar izan zuen geltokian autobu-saren zain, debaldetan hala ere. Aldian behin ta-xiren bat zetorrela ikusten zuen, argiak pizturik, kulunka bezala, baina geltokira heldu aitzin be-zeroren bat jaso eta alde egiten zuen, urrunduz. Porlanezko jarraulki batean etzan eta, poltsa bu-rurdi, loak hartu zuen izarrei begira, mahuka hu-tsean.

Auskalo zenbat denbora eman zuen ametse-tan. Lanak eman zizkion non zegoen asmatzeak.

Aldamenean automobil dotore bat ikusi zuen, gurpilen kautxua marra zuriz apain, eta azaleko txapa urdinez eta kanela kolorez margotua. Orienteko Errege Magoek umetan ekarri zioten jostailuzkoa etorri zitzaion gogora. Aspaldiko Chevrolet zahar bat zeukan begien aitzinean.

Atea zabalik, zangoak kanpoan, gizaseme bat atzeman zuen gibelesko jarlekuan etzanik eta, halako batean, automobilaren barnetik zeto-

rren ahotsak, ortotsaren pare, *El sielo cubre, la tierra sostiene* erran zuen izadiaren sorrera konstatzen hasteko gisan. Inguruan ez zebilen inor, eta berarekin ari zela atera zuen Migelek ondorio. Ohantze batean amiltzeko irrikan zegoen eta, aukera huts egin gabe, taxi bat behar zuela adierazi zion.

- Incapturables -gaztigatu zion-, así es como acá los yaman. Pero si usted quiere, yo mismo puedo haserle el servicio.

Automobiletik jaitsi gabe aldatu zen gizasemea aitzineko lekura, eta Migel, bi aldiz pentsatu gabe, trasteak egokitu eta barnean sartu zen berehala. Al Caponeren Chevroleta izaten ahal zen, baina koloretan, eta hala ere lehen ahaleginan arrankatu zion motorrak. Zigarro bat eskaini zion txoferrak eta, diskrezioa gorde edo isiltasuna gainditzeko beharbada, irratia piztu zuen.

- Acá, La Habana -erran zuen gizonezko baten bozak-, las seis y siete minutos en Radio Reloj. Es la hora de levantarse, querido oyente.

Ispiluan hogeita hamarren bat urteko gizasemea agertu zitzaion barrandari. Ile kizkur beltza, bizpahiru eguneko bizarra, gaua hutsean emana

zuela irudi zuen, soinean elastiko zuri garbia zeraman arren. Ezkerreko besoa leihatilaren ertzean, esku bakarra zerabilen gidatzeko eta, noizean behin disimuluz begiratzen baitzion bezeroari, bere berri jakin nahi zuela igarri zion Migelek. Ez zuen muturik luzaro iraun.

- Usted debe ser griego.
- ¿Griego? ¿Qué pues?
- El asiento es inequívoco.

Irribarre inozo baten gibelean ezkutatu zen, eta ez zion desafioari ihardetsi. Ez zuen bere jatorriari buruzko ikastaro trinkorik ematen hasteko gogorik, eta aitzakia bila saiatu zen. Alde batera eta bertzera mugitu zuen burua hartz zuriek egin moduan, baina ez zitzaion fundamentuzko deus ere bururatu. Horrela, bada, isilik geratu bertze erremediorik ez zuen izan. Franko larri hala ere, ispiluari erreparatzen zion bakoitzean txoferraren galderarekin egiten zuen topo.

Ama Birjina beltzarana zeukan aitzineko kristalean itsatsirik, eta egokia izaten ahal zen asmo luzerik gabeko solaserako, edo etengabe biraka zebilen aireztailu txipia aipatzen ahal zion, edo automobilak muturraren gainean zeraman fla-

menko dotorea bertzenaz. Lo zorretan zegoen, eta ez zuen aski indarrik atera; hortaz, nahiz badaezpada belarri bat kanpoan utzi, harreman diplomatikoak eten eta bere baitan bildu zen denbora pixko baterako.

Irratiak jaikitzeke tenorea bazuela oroitarazten zion Habanako biztanleriari bi minuturo gehienez ere eta, tarteetan, Lecuonaren pianoa ezagutu zuen Migelek. Aldirietan barna, ezkereskuin beha, Lenin ikusi zuen eta, luze gabe, film baten iragarkia balitz bezala, Marxen aurpegi zabalagertu zitzaion hormatzar batean. Noizean behin, metroko letratan idatzirik, *Patria o Muerte*, *Venceremos*, *Cien por cien cubanos* edo antzeko leloren bat irakurtzen zuen, eta azkenik Camilo, eta gero Fidel eta, nola ez, Che azaldu zitzaizkion bidera ongi etorria egitera.

- Ernesto -erran zuen txoferrak begirunez.

- ¿Lecuona? -galdetu zuen Migelek.

- Ernesto Che Guevara, compañero, el gran comandante revolucionario.

Eguna ezarian zetorren, nagiak atera ezinik, eta goizak, argitu ahala, leihatilaz kanpoko inguruak ez ezik automobilaren barneko aje txipiak

ere erakutsi zizkion. Alde batetik, zebra-larruzko tapizeria dotore hura ez zitzaion ilunpetan bezain naturala iruditu eta, bertzetik, errepidearen erdiko marra zuri etena ikusten uzten zion zulo beltz bat ere egokitu zitzaion oinetakoaren zola-pean ezkutaturik. Akatsak akats, edozein etorri-berri txunditzeko moduko trastea zen Chevroleta, katxarroa, eta plazer hutsa iruditu zitzaion Antilletako hiriburu nagusian horrela sartzea estreinakoz.

Errebalak utzi eta hiriaren bihotzean sarturik, arreta galdu gabe zihoan bere hotelaren izena noiz ikusiko. Kolonia garaiko plaza bat agertu zitzaien bidean, eta gidariak bere gain hartu nahi izan zituen zizerone lanak. Erdian, palmondo ederren azpiko abaroan, bazegoen tramankulu zaharrez betetako belai bat eta, orain bai, aspal-diko partez, galdera egin behar izan zion Migelek.

- Memorial Granma -argitu zion gidariak izena.

Erreboluzioaren bezperan Batistaren aurka erabilitako parke mobila zela eman zion jakitera. Hainbat ibilgailu harrigarri zeuden ikusgai, hala

nola Camilo Cienfuegos gidatu ohi zuen aire-plano koxkorra, Fidel Castro eta bertze guziak Mexikotik ekarri zituen *Granma* izeneko yate txipia, eta Ernesto Che Guevararen motorra. Ingu-ruan, kalaxnikof bana besoetan arretaz beha, oli-baz jantzitako soldaduek zernahitarako prest irudi zuten eta, itzalezineko su-lama bizi bat atzematen ahal zen zizeka bazterrean.

- Éste es el monumento a los Héroes Eternos de la Patria Nueva.

Irratiaren arabera hamabi minutu falta ziren zazpiak izateko. Migelek errelojura jaitsi zituen une batez begiak. Orratzak oraino egokitu gabe zeuzkan. Hamaika ordu kendu eta ongi atera zitzaizkion kontuak. Aitzinean, zirkulazioari erne, txoferrak bazuen bertze lanik, baina bezeroak eskumuturrean zeraman kronometroaren gutizia egin zitzaion noski, hari erreparatzen baitzion al-dian behin gibelera jiratuz. Ez zuen mila durotik goiti balio. Esfera urdina zeukan, eta urpean eramaten ahal zen; beraz, gidariarenarekin alderatuz gero, garestia ere ematen zuen.

- Eselente modelo -erran zion nahikeria ez-kutatu gabe-. Muy caro, supongo.

- Unos treinta dólares.

- Acá con esa suma usted puede yevarse el campanario de la Catedral de la Virgen de la Caridad del Cobre.

Argia hedatu ahala, edertasunari nekez eusten dion hiriaren nahi eta ezinak ageri ziren gero eta nabarmenago: aldamioei esker ozta-ozta zutik zirauten eraikin dotoreak eta landaretzak irentsitako jauregi txipiak. Zutarri grekoen gainean jasotako etxe zoragarriak ere ikusten ziren tarteka Habanan, maizterrez gainezka, indigoz, okre gorritz, fuksiaz eta bertze hainbat kolorez margotuak.

Beharbada eguzkia nagusitu aitzineko azken minutuak probesteko, aitzakiarik gabeko arropak gainean, karrikan zebiltzan habanarrak. Itsoaren bertze aldean ez bezalako patxada sumatu zuen Migelek giroan. Aurki izanen zen ordubete abiatu zirenetik, eta indar egin beharra zeukan betazalei eusteko. Halako batean, gidariak txartel bat eman zion gibelera begiratu gabe.

- Abel Ruis Oñate, pero acá todo el mundo me yama Newton.

- Salaberria -ihardetsi zion nafarrak-, Miguel Salaberria.

- Eso no suena muy griego.

- No mucho.

- Como que fuera cubano, maestro.

Izen-abizenen azpian *Experto en movimientos sísmicos y otras ondas expansivas* irakurri zuen Migelek eta, egia errateko, zer izaten ahal zen ere ez zuen igartzen. Albaitaria edo ingeniari soila zela erran izan balio, zalantzan paratuko zuen, baina neurritz kanpoko zirtoa iruditu zitzaion; beraz, begiak bildu, harremanak berriz eten eta kuluxka egiteko baimena eman zion bere buruari.

Apenas eman zituen bortz minutu lotan, istripu bat zela medio bat-batean frenatu behar izan zuelako Newtonek. Ilar txiapiaren koloreko Pontiac bat zegoen bide bazterrean azpiak agerian, eta Buick more argi baten muturrak akordeona irudi zuen. Anabasaren erdian, gauzak bere onera ekartzeko ahaleginetan, hiruzpalau polizia zebiltzan erotu beharrez. Gidariak, beldurrak, Migeli begiratzen zion. Turistarik eramateko taxis-

ta izan beharra zeukan eta, izan ezean, sasia bezala endredatzen ahal zitzaion goiz hura.

Aitzineko kristalean zeukan ama birjina aipatzen zuen Newtonek etengabe, eta berrogei egun baraurik emanen zituela ere agindu zion bihotzaren erditik. Eskariak, harritzekoa, eman zuen ziturik. Aitzina jotzeko agindu zieten poliziek, eta gibelean utzi zuten kontrola, gero eta urrunago. Behin eta berriz ispilutik beha, dantzaz egiten zuen iheslariak jarlekuaren gainean eta, sosegatu zelarik, bezeroarekin oroitu zen, zeren...

- Una suerte de pinga, de ésa que te roncan los timbales.

Eztarriko korapiloa laxatzeko bertze *Cazadores* bat eskaini zion gidariak abegiz, eta Migelek txiskeroa eman zion berea piztu zezan. Azken ke-bafada bat bota bezain laster, hotel koxkor bat ikusi zuen bezeroak aldamenean. Automobiletik jaitsi zelarik, ez baitzuen Habanako tarifen berri, zain gelditu zitzaion zer zor zion erran arte. Ez zion fitsik kobratu nahi izan, baina begiak leerratzen zitzaizkion errelojura. *Watch* hark ez zuen, ziur aski, aireportutik hotelerainoko zerbi-

tzuak bezainbertze balio izanen eta, gainera, merezi bezala estimatu nahi zion mesedea egin izana. Opari ematea izaten ahal zen egokiena, baina Migelek ere behar zuen ordua jakiteko zerbait; hortaz, deus gabe ez geratzearren eta gerora faltetsi behar ez izateko, zentzuzko tratua proposatu zion elkarren arteko interesak orekatzeko. Eskumuturreko gutizia eskaini zion txoferrari, haren obserbatorio kosmiko digitalaren orde.

Adiskidetasun luze baten hasmenta aipatu zuen Newtonek, eta eskaintza onetsi ez ezik hurrengo bidaia doan agindu zion, zeren...

Telefonoa txartelean zetorren, eta hoteletik hurbil bizi zen.

Horrela, bada, poltsa ateratzen lagundu eta gero, eskua eman zion aspaldiko lagun bati bezala.

Alberto Joserren zain zegoen espaloiaeren er-
tzeko koskan. Matxinada garaian hanka egin be-
harreko aberatsen baten jauregia zeukan parez
pare. Arrosa kolorez jantzirik, alferrik galtzeko
bidean, igeltseroaren premia nabari zitzaion.
Atalburuaren gainean, neurritz kanpoko zopa-on-
tzia irudi zuen harrizko balkonak eta, bertan, irri
zabaleko emazteki eder bat zebilen imintzioka.
Migelek ez zuen konprenitzen norekin ari zen so-
lasean. Arestian ikusi gabeko telefono beltza
atzeman zuen, katu bat irudi, kalostraren gai-
nean otzan. Orduan jakin zuen ez zela bere bu-
ruarekin mintzo.

Ordu laurden bat ongi pasea zeraman Mige-
lek zain, eta Alberto Jose ez zen ageri. Zigarro
bat piztu eta kearen gibelean ezkutatu zen goiti
begira.

Azal ilun argikoa zen eta tabako gorriaren ko-
loreako ile kizkur motza zeraman. Alkandora gere-
zi batekin apaindurik zegoen eta, eguzkitako len-
teak erantzi zituelarik, almendraren antzeko

begi beltzak erakutsi zizkion. Eskua altxatu eta, keinuka, hurbiltzeko eskatzen ziola iruditu zitzaion. Ez zuen sinetsi nahi berarekin ari zenik. Azkenean hatza luze-luze paratu zion eta, bertze inor ez zegoela konturatu zelarik, tiro bat sentitu zuen bihotzaren erdian, zeren...

- Escuche, compañero.

- ¿Es a mí? -galdetu zuen.

- Asérquese.

- Dígame -atera zitzaion herabe.

- Alguien lo yamó. Suba; la puerta está abierta.

Aldamioz josia zegoen etxea. Txorien kantu eroak entzuten ziren lukanaren azpiko barne itzalean ozar. Eskaileretan beheiti zetorren gizon batek, beltzaren beltzez urdina, oilasko bat zekarren erpeetatik atxikia, eta eskolako uniformearekin jantzirik zegoen neska gaztea zeukan so goiko solairutik. Che, Camilo eta Fidelen irudiak ikusi zituen zarpaildutako horma zaharretan kolorez margoturik, eta *Viva el Comité de Defensa* eta antzeko zenbait erranairu ere irakurri zituen goitiraino heldu baino lehen.

Aspaldi batean, jende aberatsaren bizileku beharbada, ez zuten koloreko neskamerik faltesiko sukaldeetan; arrats hartan, ordea, okupaturik zirudien etxearen usaina aditu zuen Migelek giroan. Eguneroko premiak kario samar ordaindu behar izaten zituen herri xeheak nonahi, eta biztanle arrunt batek -pentsatu zuen- nekez biltzen ahal zuen hainbateko pisu ederra behar bezala zaintzeko adina sos.

Ate bakarra zegoen irekirik eta, arrotz, poliki sartu zen barnean. Aireztailua zebilen bazter batean zarataka. Aitzinera begiratu, pasillo luze baten buruan, alkandora gerezia atzeman zuen balkonaren abaniko zabalean eta, maizterraren aginduetara, harengana heldu zen. Ez zion deus erran, baina, irri bat ezpainetan, telefonoaren belarri beltza eskaini zion. Eskua erretzeko zorian egon bazen ere, gorde egin zituen espan-tuak. Okerren bat izaten ahal zela uste zuen Migelek, baina ez zegoen halakorik, zeren...

- Oye, chico -entzun zuen, elkar ezagutu zuteneko *usted* hura hegazkinean atzendurik-, soy Alberto José.

- Estaba esperando.

- Escucha con atención. Últimamente, tú sabes, el trabajo es mucho y no dispongo de bastante tiempo...

- Entiendo.

- Sin embargo, resíen conversé con mi amigo el profesor. ¡Buenas noticias!

Azterketa abuztuan omen. Ez zegoen egun zehatzik, baina lehen astean segurik. Uztailean eman behar zuen izena eta, horrela, eskaria onetsi arte bedere, bertan egoteko baimena luzatu ahal izanen zuen. Atari-probaren edukiari buruzko kontua airean zegoen oraino, baina bazekien galdera bakarrekoa izanen zela; beraz, lasai egoteko gomendatu zion, laster hasiko baitzen bazterrak endredatzen. Eguna heldu aitzin klase partikular batzuk hartu beharko zituen, baina ez zegoen zertan larritu, zeren...

Ba omen zuen zeinek eman.

Hoteleko telefonoa eskatu zion harremanetan jarraitzeko.

Aurki, egun bat edo biren buruan, Maria Josefa izeneko emazteki baten deia izanen zuen, eta hark azalduko zion jakin beharreko guzia.

- O sea que hoy no nos vemos -erran zion Migelek.

- Imposible.

Agur egiteko denborarik eman gabe galdu zuen deia. Alberto Josek erran ziona hausnartzen eman zuen istant bat eta, bere barnetik jalgi zelarrik, etxeko jabea faltetsi zuen ondoan. Irrati soinua atzematen zen giroan eta, belarriaren aginduari jarraiki, aldameneko gela zabal batean aurkitu zuen, dantzan, bakarrik.

Orkestra bat ari zen, txokolateari bueltaka bezala, mambo lodia nahasten, eta maizterraren gorputz ederrak, *suavesito*, infinituaren zortzi etzanak uzten zituen giroan barreiu. Atetik so, barrandan, Migelek ez zekien zer egin.

- ¿Cómo tú te yamas? -espanturik gabeko irri tentagarria eskaini zion.

- Miguel. ¿Y tú?

- Aleida.

Eskerrak eman nahi zizkion, baina beldur zen dantzara ez ote zuen aterako. Ez zegoen irri-emangarriarena egiteko prest eta, beharrik, ez zion eskatu, zeren...

Txarro bete *juguito de toronha* omen zeukan hozkailuan freskatzen, eta basokada eskaini nahi zion.

Izerdi tanta bat jausi zitzaion Migeli bizkarretik beheiti bigarren aldiz, eta baiezkoa eman behar izan zion.

Ez zegoen eroso. Eskuak gibelean loturik, kaiola barnean dagoen katamotza bezala ibili zen bueltaka. Aski zaila egiten zitzaion deus ez errateko solas egitea, baina hala moldatu behar ko zuen ezezagun batekin. Edaria ekarri bitartean lasai egon bertzerik ez zeukan, hala ere bazterrak endredatzea gustatzen zitzaion eta puru-kaxa bat ikusi zuen Migelek apal gainean. Zedro idorraren usain gozoa zerion, eta ireki egin zuen. Itsas maskorrez beterik zegoen, zein baino zein politago. Babelgo dorre motzak, txanponaren tamainako labirinto espiralak, portzelanazko txarro nanoak, Txinako pagoda koxkorrak, txirikordatutako adarbakar mikoak, hieroglifiko apaindutako oskol txipiak eta bertze aunitz bitxi miretsi zituen banan-banan.

Altxorraren aitzinean sor harrapatu zuen Aleidak eta, laket bazituen, nahi bezainbat denbora

hartzeko eta lasai ikusteko erran zion. Azpil baten gainean bi baso eta txarro bete zuku zekartzan, eta Migelek besaulkian jesarri bertze erremediorik ez zuen izan. Ezaguerak egiteko tenorean sortu ohi den axaleko solas deserosoan saiatu ziren.

Maizterrak konfiantza hartu zuelarik, Migelen lентeez arduratu zen zuzenean, zeren...

- Oye, chico, disculpa, pero esa clase de espehuelos no te favorecen.

Lenteak erantzi zituen eta, zapi zuria sakelatik atera ondoren, arratsalde hartako sapak eragin zion lurruna garbitu zien kristalei begiak lurretik goratu gabe.

- Esos ohos se meresen otra cosa.

Ez zekien non sartu, eta San Fermi bestetan janzten dioten lepokoa baino areago gorritu zitzaizkion musuak. Eguraldiak ez zuen katarrorik harrapatzeko baimenik ematen, baina nabarmen ez geratzeko bizpahiru aldiz egin zuen zintz, bertze aldera beha, esku artean zerabilen zapiaz. Itzuli zelarik, baso bete *toronha* eskaini zion Aleidak berriz ere eta, edan bitartean, kon-

promisorik gabeko proposamena egiten hasi zitzaion poliki, zeren...

Osaba bizi omen zuen Obispo karrikan, Habana Zaharrean, eta hamarren bat urte zeraman erretiraturik.

- Cuatro libras de pan vestidas de hombre.

Itsasertzean, hiritik hurbil, Cojimar izeneko herri txipian txalupa koxkor bat zeukan eta al-dian behin arrainak, otarrainak eta dortokak harapatzera irteten zen. Gobernuak ematen zionarekin eta karrikan saltzen zuen jenero pixko batekin eroso bizitzeko ateratzen zuen. Aski trebea omen zen esku-lanetan; beraz, oskolak berarendako gorderik, eraztunak, lepokoak, belarritakoak eta apaingarriak egiten zituen. Etxean berean zeukan lantegia -lau erreminta; bertzerik ez-baina, enkargurik falta ez zitzaion arren, egunean ez zituen ordu pareta baino gehiago ematen lanean.

Interesante errateko zorian egon zen Migel, baina axolagabekeria gisa ulertzen ahal zuela iruditu zitzaion, eta isilik segitu zuen.

Bitxiak ez ezik era guzietako egiturak ere egi-
ten zituen lenteendako, eta osabaren zerbitzua
gomendatu nahi zion, zeren...

Europar ez ziren hain egokiak eta apainak
erosten ahal, eta merkeagoak aterako zitzaiz-
kion.

Interesik baldin bazuen, berehala idatziko
zion helbidea; osabari ere deituko zion jakinaren
gainean egon zedin.

Aintzat hartzeko modukoa iruditu zitzaion Mi-
geli osabarengana erakusten zuen ardura, baina
bitartekaritzarekin eskupekoren bat jasotzen
ahal zuela egin zitzaion. Ez zeukan deus ere ho-
rren aurka, baina berria egin zitzaion saltzerako-
an erabili zuen trikimailua. Ez zeraman astebete
Habanan eta bat baino gehiago hurbildu zitzaion
rona, puruak edo dolarrak eskaintzera. Aleidare-
na bertze zerbait zen: behakoa edergabetzen
zioten lenteetatik libratu nahi zuen, zeren...

- Ya yo te imahino con el armasón de carey
entrando por esa puerta.

Eskaintza onetsi bertze erremediorik ez zuen
izan. Maizterrak paper-mutur batean *Arsenio
Cárdenas, Calle Obispo s/n, 4º, izquierda, La Ha-*

bana Vieja idatzi zuen astirik galdu gabe. Eguzki-pean desegiteko zorian jarraitzen zuen telefono beltzak kalostraren gainean. Aleidak ez zuen zapi ziztrin bakarra ere behar izan zenbakia markatu eta deia egiteko. Ez zion azalpen handirik eman osabari; fite itzuli zen, zaharraren ongi-ettorria zekarkiola.

Ortziralean -hurrengo egunean ez, bertzean-etxean emanen zuen arratsalde osoa eta, zereginik izan ezean, aÑejo doble bat agindu zion Aleidak osabaren partetik.

Eskerrak eman zizkion Migelek telefonoarengatik, *toronha* zukuarengatik, bere begien aitzakian jasotako loreengatik eta, oro har, berarekin adeitsu portatzeagatik.

- No tengo palabras.

Uste baino egia handiagoa ari zitzaion aitor-tzen, eta maizterrak *Cuba es así* eta plazer handia izan zuela eman zion aditzera.

Arrats apaltzen ari zen orduko, eta bisitariak, errelojuari begira besaulkitik jaikitzen ari zelarik, izerdi-tanta sentitu zuen bizkarretik beheiti. Azken trago bat eskaini zion, baina ez zuen hu-

rrengo autobusa galdu nahi, eta uko egin behar izan zion.

Etxeko atera heldu bitartean, agurtzeko modu egokiren baten bila saiatu zen. Hautatzen hasi eta *Un plaser, hasta pronto, nos vemos* baldarrak iruditzen zitzaizkion, zeren...

Hitz batzuek nahi baino gehiago nabarmentzen zuten eta bertze batzuk, aldiz, ez ziren berak nahi bezain adierazgarriak.

Eskua altxatu eta keinu bat egiten ahal zion, edo muxu bat eman, edo besarkatu, baina neurritz kanpokoak egiten zitzaizkion denak. Eskua eman eta, Habanan laketzen hasteko, *Chao* murriz bat hautatu zuen.

- Ahora ya tú sabes dónde vivo -entzun zuen Migelek behe-solairura heldu aitzin.

Alde egin baino lehen goiti begiratu eta Aleida ikusi zuen lukanaren azpian, aldamioren artean, irri egiten ziola. Ilunpetan ia, harriaren freskura zeukan sotoak gorderik, eta eskailera-zuloan txoriak zebiltzan zalapartan. Karrikara irten orduko etorri zitzaion sargoriaren eraso errukigabea. Espaloiaren bazterretik itzal-zirritu zirtzilena probesten saiatu zen, baina, behar be-

zala giltzatu gabeko iturriaren antzera, tantaka ari zitzaion sudurra geltokira iristerako. Uralita baten azpian babestu eta autobusa heldu zelarik, leihotik Aleidaren balkonera egin zuen so.

Bogada egitea deliberatu zuen hoteletik irten aitzin, metatzen ari baitzitzaion arropa zikina. Maindireak aldatzera etorri zitzaion neskameak azaldu zionez, garbiketa zerbitzua ere eskaintzen zuten hotelean, baina ez zuen ustekabekorik hartu nahi kontua ordaintzeko tenorean; beraz, xaboi-hautsa erosi zuen supermerkatuan eta, bainu-ontzia erdiraino urez bete ondoren, izerdia bertzerik ez zuten puskak utzi zituen beratzen. Eskuak idortzen ari zelarik telefonoaren txirrinak jo zuen eta, bidean presaka, nor izaten ahal zen galdetu zion bere buruari.

- Operadora -erran zion ahots batek-. Preguntaron por usted. Lo volverán a yamar en dies minutos.

Alberto Joserren deia izatea iruditu zitzaion gertagarriena. Pisuaren berri emateko, unibertsi-tateko lagunarekin hitzordua egiteko edo ikastaroari buruzko zerbait kontatzeko egiten ahal zion dei.

Eta bertzenaz, Newton...?

Arropa ikuzi, xukatu eta idortzen uzteko astia ere izan zuen eta, halako batean, telefonoak jo zuen berriz ere. *Operadora* entzun zuen bigarren aldiz. Ahoa zabaltzeko astirik gabe, oihartzun baten zurrumbiloan galdu zuen lotura. Aberiaren baten susmoa egin zitzaion, baina geroago *conferencia internacional* erran zuen bertze mundu batekoa ematen zuen ahotsak.

- Aspaldiko!

Zimiko bat sentitu zuen zilkoaren bertze aldean, zeren...

Ainhoa zen.

Ez zuen haren deirik espero.

Iruñetik lekutu baino lehen La Vienesan egindako gosaria etorri zitzaion gogora. Ez zuen ahantzia goiz hartan kafesnean paratu zion amua, eta deus harrapatu ote zuen jakiteko deitzen zuela ere egin zitzaion. Ez zuen asmatu, fabore bat eskatu nahi baitzion, eta ba omen zekien ez ziola hutsik eginen.

- Aurki beteko dituk hogeita bost urte Ernesto Che Guevara hil zutela Bolivian, eta jardunaldi batzuk antolatzen gabiltzak urtemuga behar bezala oroitzeko.

Instituto Cubano para la Amistad con los Pueblos izeneko erakundearekin zebiltzan harremanetan. Atzerriko arazoak eramateko ordezkari egoki bat behar zuten; Habanan nor ibiliko eta Migel.

- Aparteko ahaleginik eskatzen ez duten husteria batzuk...

Ainhoak ez zion La Vienesako hartan sortutako katramilaz fitsik aipatu. Lepoa jokatzeko ahal zuten plantak egiten ari zela. Ez zion minik eman nahi, baina desioa zapuzteko ez zegoen, Migelen ustez, malenkonia baino erremedio eragingarriagorik. Inoiz irakurritako idazle batek ahuleziaren ardoarekin harrapatutako mozkorra deitzen zion, eta urteak behar omen ziren, batzuetan, biharamunetik ateratzeko; horrela, bada, ez zion esperantza faltsurik sorraraziko eta, errukian jausigabe, Iruñeko ekimena jaso zuen hesi gisa tartean, berant baino lehen.

Ainhoaren erantzuna entzun artean, eliza giroko ahaire ederra entzun zuen telefonoaren bertze aldean, *Ave Maria* hunkigarri bat, aparta, haurrek osatutako koroak kantatua. *The Mission* filmaren banda musikala behar zuen izan, eta

oihanetik erregidorearen gotorrera eramandako ume guaraniak etorri zitzaizkion burura. Ustekabean egiten zion musikak eraso batzuetan, eta bakarlariaren ahotsa -bere jatorri basatia nabari- punturik gorenean hausteko zorian zegoelarik, zirraratu sentitu zuen Migelek.

- Mezatan al hago? -galdetu zion zirika.

- Isil hadi, mesedez -erran zion Ainhoak-, oraingoz nahiago diat telebista.

Isabel Erreginak Indietara igorritako karabelen pasadizo trebeak ari ziren ospatzen. Itsasoan galdurik, jitoan, denbora luzea eman ondoren, marinel batek, masta-burutik so, *itierra!* ikusi omen zuen urrunean, eta eztarria lehertu arte egin zuen deiadar. Infernuaren beldurrez abiatu ziren, baina paradisia zeukaten zain; Bahametan bota zituzten aingurak lehenik eta gaur egun Kuba deitzen zaion leku batean gero. Urrerik topatu ez zutenez, aitzinera egiteko agindua eman omen zuen Colonek, irla gibelean utzirik. Urriari beteko ziren bortzetan ehun urte, eta Espainiak ez zuen gertakariak baliatzeko parada inolaz ere bazter utzi nahi.

- Ez ditek lotsarik -erran zion Ainhoak hase-
rre-. Urrian hogeita bost urte Ernesto Che Gue-
vara hil zutela Yuroko mailoetan, eta mendetan
isuritako odolaz baliatzen ari dituk komandan-
tearen oroitzapena lurperatzeko.

Aspaldi hartan, Maria Galanta eta bertze bi
karabela haiek heldu zirelarik, hiruretan hoge
mila biztanle inguru omen ziren *Antilletako Per-
lan*, baina ondoren gaizkilez betetako itsason-
tziak arribatu ziren bata bertzearen gibeletik eta,
denboraren poderioz, ez zuten indigenetan ale-
rik bizirik utzi.

- *El descubrimiento de América* deitzen zio-
tek oraindik sarraski izugarri horri! Zerbait egin
beharra zagok.

Erakusketa bat eratzekotan zebiltzan. Iraul-
tzaren garaiko argazki-bilduma ederra ez ezik,
urtez urte metatutako zenbait poster ere hitzar-
turik omen zeuzkaten. Baina iruditzen zitzaien,
komandantearen oroigarri pertsonalen bat esku-
ratu ezean eskas samar geldituko zirela, eta ez
zekiten nola konpondu.

Bazuten areto egokia ere, eta hizlari batzuk
prest zeuden. Aspaldi ez bezalako mahai-ingu-

rua osatu nahi zuten eta, jakina, Guevararen adiskide, burkide edo ahaideren batekin ari ziren ametsetan. Ospakizuna errematatzeke, jaialdia antolatzeke asmotan zebiltzan, mojito eta guzi, eta ordura arte kontsultatutako kantari eta talde gehienak baiezkoan zeuden. Baina ikur hilezko horietako bat behar zuten kartela borobiltzeko.

- Carlos Puebla, adibidez.

Instituto Cubano para la Amistad con los Pueblos erakundeko arduradunari igorritako gutunaren hasmenta irakurri zion Ainhoak:

Estimado Virgilio. Solamente unas líneas para explicarte el proyecto en el que nos hemos embarcado, y del cual tendrás seguramente conocimiento por medio de nuestro común amigo Antonio Fontán. La idea nace ante la proximidad del XXV aniversario de la muerte del Che; efeméride que queremos aprovechar para la difusión de la cultura de la solidaridad...

Eskutitz osoa irakurri behar ote zion beldurrez zegoen Migel, baina bertze zerbait erran nahi zion Ainhoak deia eten baino lehen, zeren...

- Ez zakiat ohartu haizen, uztailaren 26a ere gainean zagok.

Egun egokia izanen zen kubatarren beroa lruñean antolatzen ari ziren ekimenaren alde bideratzeko. Egutegian gorritz seinalatutako egun handia zuten. Ehun eta hogeita bi matxinok, bitan hogei urte lehenago, Moncadako kuartela jo zuten erasoan Santiagotik hurbil. Oroitzapen samineko eguna hala ere. Goarnizioko soldaduak gaupasan ibiliko zirelakoan, inauterietako igande bezpera probestu nahi zuten, baina oker atera zitzaizkien kontuak, eta hilik edo gatibu gertatu ziren gehienak.

Inauteriak inauteri eta ospakizunak ospakizun, sanferminak zertan ziren jakin nahi zuen Migelek, eta Ainhoak gehien komeni zitzaion aldetik heldu zion gaiari, zeren...

- Antilletan habilela jakin dutelarik, irri maltzurra erakusten zidatek.

Ez zion ihardetsi. Mutualdi adierazgarri eta nabarmena ari zen elkarren artean hedatzen eta, bihotz-kontuetan ez jaustearren, goiz hartako entzierroa ekarri zuen solasera Migelek.

- Oso nahasia joan duk. Hiru lagun biziki larri. Hortik goiti, Indurain eta bere maillot horia bertzerik ez zen ageri ostatuetako telebistetan.

Karriketan gaztea ausarki ikusten omen zen Che-
ren elastikoa soinean zeramala, eta horrek zer
pentsatua ematen zion Ainhoari. Seinale ona iru-
ditzten zitzaion, baina auskalo; kalterako ere iza-
ten ahal zen, egunotan ez zegoen ia deus kon-
tsumoaren mekanismotik libre eta, azken aldian,
Che Guevararen argazki ospetsuaren aitzakian
sortutako eskola-karpetak, giltzak eramateko uz-
taiak, elastikoak eta era guzietako ikurrak sal-
tzen ziren gero eta gehiago.

- Beldur nauk ez ote diren jatorrizko mezua-
ren estalgarri bihurtu.

Urtemugaren inguruko ekimenak arrisku
horri egin nahi zion aurka eta, ordezkari-lanak
egiteko informazioa behar baita, Virgiliyori igorri-
tako gutunaren bertze pasarte bat irakurri zion:

*El concierto, como podrás observar en el
anexo, está concebido como una actividad inde-
pendiente en el plano económico, de tal modo
que los beneficios que genere serán destinados
íntegramente al envío de material medico-sani-
tario con destino al Hospital Doña Leonora Perez
de Martí en La Habana.*

Azken batean, Che bera ere medikua zen eta, Europako Ekialdearen egoera berria kontuan harturik, lagundu beharra zegoen osasunaren arloan bedere. Laboreak, haragi-latak, gantzez betetako upelak, bakailao-kaxak eta petrolioa beharrezkoak izanagatik, xiringa, benda, eta botikarik gabe ez zegoen zer eginik.

- Erdi-prezioan eskuratuko ditiagu Osasunbidetan sartutako ukondo bati esker.

Hilean behin itsasontzi bat irteten zen Gijondik Habanara. Virgiliok bazuen harremanik joan-etorri horietan ibiltzen ziren marinel kubatarren artean; beraz, koipe pitin bat sartu behar izan zuen gutunean agur egiteko tenorean.

Anteriores colaboraciones tuyas, la relación entrañable que te une a algunos de nosotros y tu sincero compromiso cultural y político, nos han hecho albergar esperanzas e ilusiones para contar con tu ayuda y llevar conjuntamente a buen término este proyecto solidario. Hasta siempre. Un abrazo.

Ainhoa ez zegoen aitzakiarik irensteko prest. Ordezkarri baten zain zeuden Institutuan, eta Migelen laguntzarik gabe ez zuten deus ere behar

bezala kontrolatzeko modurik. Aurki deituko zion Virgiliok, eta izen bat eman beharra zeukan fulamentuzko ekimena zela sinetsiko bazuen.

- Oporretan nagon -gaztigatu zion Migelek arduraren aitzinean abaildurik.

Ahalik lasterren joateko erregutu zion Ainhoak, traba eta ustekabekorik ez zen falta izanen gerora.

- Afaria biontzat Urdax-enean, nire kontu.

Ez zuen erabateko erantzukizunik hartu nahi izan, baina saiatzeko eskatzen zion Ainhoak behin eta berriz. Ihes egiteko gogoia zeukan arren, Migel zorretan-edo sentitzen zen bereganako, eta ez zion uko egiten ahal. Ainhoaren ardurapean zegoen, gainera, Estafetako pisuaren akura, eta sosik ezean, etorritako bidetik alde egin beharko zuen Kubatik nahi baino lehen. Ez zituen bulego-lanak batere maite, eta bazekien aise aldrebestuko zitzaizkiola gauzak.

Salsa dantzatzen erakutsi al zioten, gauez maiz irteten al zen, emaztekiak uste bezain ederrak iruditu al zitzaizkion jakin nahi zuenez Ainhoak, giroa samurtu aitzin, zin egin behar izan zion bere esku zegoen guzia eginen zuela.

Irratiaren uhinetan bila dabilenak eragindako zarataren antzeko zerbait sartu zen, berriz ere, Ainhoaren eta bere artean gero eta ozenago. Ez zen batere harritu, zenbat denbora eman ote zuten solasean? Urtemugaren batzorde antolatzailerak hainbateko sos-meta ordaindu behar izanen zuen telefonoarengatik, baina, tira, bazuten ordezkaria Habanan. Istant bat iraun zuen Migelek harremana berreskuratzen ote zuen, baina alferretan egon zen zain. Amore emateko zorian, hala ere, espero gabeko aitorpen bat salbatu zuen isiltasunaren isurbidean beheiti galtzen ari zen zurrunbilotik.

- Faltesten haut, Migel. Ez dakik zenbat!

Elkarrekin gosaldu zuten egun hartako tirrinte bera egin zitzaion berriz ere, eta eskerrak eman zituen Ozeano Atlantikoa tartean zutelako. Ohi ez bezalako adiskidetasuna zegoen bien artean, eta Migelek ez zuen arriskuan paratu nahi. Aski zen gatz ale bat sua bizitzeko, ez zen maite-minaren lakioaz sobera fio; errukia eta nahigabea eragiten ahal zituen aldi berean eta, aspaldiko konfiantza pitzatzen hasi aitzin, gauzak bere lekuan uzten saiatu zen, zeren...

«Egoera berria dun biondako -erran zion La Vienesan- eta ohitu beharra zaukanagu».

Minimo komun multiploa atzendurik, maximo komun dibisorea gorde behar zutela adierazi nahi zion Migelek, baina Ainhoa ez zegoen horrelakorik konprenitzeko prest. Egoera berriarena aipatu ziolarik, Iruñetik kanpo eman asmo zuen parentesiari buruz ari zela ulertuko zuen, ziur aski, eta Migeli behar bezain garbi azaldu ez izanaren kezka geratu zitzaion. Erru pixko bat aitortu behar izan zion bere buruari, baina debaldetan ziren damuak, eta telefonoak jo baino lehen bogada egiten ari zela oroitu zen.

Eguzkitako lenteak paratu, oinetakoak jantzi eta balkonera jalgi zen ausart. Berehala idortu ziren arropak, eta pilo batean eraman zituen ohantzera. Idor ez ezik zurrun ere bazeuden, tente paratzen ahal ziren solairuaren gainean sanferminetako errege-erregina erraldoien gisa. Armairuan egokitzeko banan-banan azpildu eta, lanak akiturik, zumitzezko besaulkian jesarri zen goizak emandakoa hausnartu eta kontuak ateratzeko.

Ez zuen batere gogorik harreman diplomati-koetan endredatzeko, baina saiatuko zela errantzioez, ardura lepotik kentzea komeni zitzaion, hainbat hobe zenbat eta lasterren. Azken batean, onerako ere gertatzen ahal zen, bere egoera legalaren etorkizun hurbila konpondu gabe zeukan oraino eta ez zen Alberto Joserren azpilanekin osoro fidatzen. Bizpahiru egun hartuko zituen indarrak biltzeko eta, gero, Ainhoak aipatutako institutura hurbilduko zela deliberatu zuen. Ezaguerak egitea komeni zitzaion zer gerta ere, eta aukera ezin aproposagoa zeukan eskumenean. Zorionak eman zizkion bere buruari eta hozkailutik bitter bat atera zuen ustekabea behar bezala ospatzeko.

Aleidak emandako helbidea atera zuen sakelatik Obispo karrikara heldutakoan. Atez ate eta espaloi batetik bertzera ibili ondoren, noizbait, zapata-kaxez betetako kamion baten gibelean agertu zitzaion bila zebilen sotoa. Azken solairuko txirrinaren aldamenean *Arsenio Cárdenas* irakurri zuen inprentako letretan; bi aldiz sakatu zion sobera konfiantzarik gabe. Oihu bat entzun zuen ilunpetan goiti samar eta, burua altxaturik, ile zuriko aitona agurgarriaren aurpegia atzeman zuen karrikara begira. Istant bat behar izan zuen zaharrak ate joka nor zetorkion jakin arte eta, ohartu zelarik, egoteko agindu zion eskuarekin. Portalera jaitsi eta karrikara jalgiko zela uste zuen Migelek, baina lehengo lekuan agertu zitzaion berriz ere. Pospolo-kaxa handi bat bota zion oinetara. Etxeko giltza zegoen barnean. Atea ireki eta jakin-minez sartu zen, urduri.

Argia pizteaz batera ustekabeen harrapatu zuen ikuskizunak: azulejo urrez eta zuriz apaindurik zegoen behe-solairua. Eskaileretan goiti,

burdinazko espiral akiezinaren ganean eskua, mantso-mantso abiatu zen sobera ez izerditzeko. Mailadi pikea igan behar izan zuen, hatsa kexu, eta Aleidaren osabarekin egin zuen topo azkenean. Eskua eman eta sukalderako bidea erakutsi ondoren, aulkia eskaini zion jesar zedin.

- Es un plaser.

- Iguualmente -ihardetsi zion Migelek.

Ilobaren deia bitarteko, bazekien zertara zertoren, baina kortesia zor zaio atzeritarrari Kuban; beraz, presa handirik ez bazuen bedere, lanari ekin baino lehen trago bat proposatu zion Arseniok. Astebete eskatu zion bere zeregina burutzeko. Ez omen zuen zertan kezkarik izan prezioarekin, zeren...

Bi pare ere egiten ahal zizkion, ganean zera-matzanak ordaintzeko behar izan zuen diru kopuru beraren truke.

Izanen zuten lanteei buruz mintzatzeko astirik, eta denbora pitin batean egoteko erran zion, mahai ganean zeuzkan trasteak behar bezala egokitu bitartean.

Armairua irekia zegoen sukaldearen ondoko gela-zokoan, eta nahaspilaturik zeuzkan barneko

guziak. Urtean behin, traste zaharrak atera eta garbitu ondoren, bere lekuan gordetzen zituen gurbilki. Arratsa apaldu arte egon omen zen bere zain, baina dagoeneko espero ez zuenez, bazterrak txukuntzen hasia zen. Bazuen lan hondar bat oraino.

Kafea eskaini zion eta, kanabera zati txipiz egindako gortina ozenazeharkaturik, gisuz zuri-tu berria zegoen terraza koxkorrera irten ziren. Kriseiluaren argitan lastozko bi besaulki zeuden, eta jesartzeko erran zion zaharrak. Izarpean giro, itsas-haize xumeaz dantzari ziren soka luze batean zintzilik arropa batzuk eta Kubako bandera. Oharkabean joan zitzaizkion Migeli begiak, eta Arsenio konturatu egin zen, zeren...

- Demasiado lejos del suelo -erran zion oroimenez- y demasiado cerca de los Estados Unidos.

Oinutsik, galtzak belaunetaraino bildurik, tabakoari kendutako koipearen antzeko izerdia zerrion bizkarretik beheiti eta, argiontzia gibelean, bere itzal handia ikusten zen aldameneko etxeen artean ikaran. Bandera idor zegoela atze-manik, bildu eta sukaldera jo zuen Arseniok.

Egonean, kafea hartzen, zerura behatu zuen Migelek eta, ipurdirik gabeko galdara beltz hartan zilipurdika, irakinean ematen zuten izarrek. Une egokia iruditu zitzaion bertze zigarro bat pizteko, baina ez zuen pizgailurik sakelan, eta Arsenioren bila abiatu zen.

Arestian ikusi gabeko *Luger* automatiko zaharra garbitzen ari zen zatar batekin. Infernuko etsaiak kargatzen zituen, eta inork agindu gabe tiro egiten omen zuten batzuetan. Migelek errezeloz begiratu zion, eta zilkoaren bertze aldean egin zitzaion nahigabea disimulatu zuen nola hala. Urrun samar geratu zen zer gerta ere eta, irria ezpainenetan, lasai egoteko erran zion Arseniok.

- Es una reliquia -saiatu zitzaion azaltzen eta, iskilua muturretik atxiki ondoren, eskura eman zion- requisada por la revolución a la tiranía de Batista; pero descuide, hase ya mucho tiempo que está fuera de uso.

Adituaren plantak egin zituen Migelek. Espero ez zuen pisua sentitzen zuen eskuan. Ez zerman balarik, baina badaezpada ere ez zuen hatza txakurrean sartu. Auskalo zenbat jende

igorri ote zuen bertze mundura burdina puska hark. Ez zion galdetu nahi izan eta, zaharrak bertze alde batera behatu bezain fite, ahalik eta kontu handienarekin, mahai gainean utzi zuen jostailua bakean.

Ezustekoaren eraginpean oraino, zeren bila zebilen atzendurik zeukan Migelek. Hatzen artean zeraman zigarroari erreparatu zion, eta pizgailuarekin oroitu zen. Ingurura beha, pospolokaxa kausitu zuen apal baten gainean, baina portaleko giltza zegoen barnean. Arretaz ari zitzaien etxeko nagusia begira, eta bertze kaxa bat atera zion sukaldeko mahaiaren tiraderatik. Aski izan zuen ahalegin bakarra zigarroa pizteko eta Arseniok, pospoloak bitarteko, Ernesto Che Guevara Industria sailburu zebilen garaiak hartu zituen mintzagai, zeren...

Ez omen zuten behar bezala su hartzen, eta *No hay un solo cubano que no se cague en la madre de la revolución, cada ves que tiene que ensender un sigarro.*

Izarren azpira itzuli zen, eta poliki-poliki erre zuen *Partagas*-a gauari so. Azken bafada bota baino lehen, gortinaren kanabera-zotzen artean

agertu zitzaion Arsenio, eta kaimanaren larruz forratutako maleta txipi bat ireki zion mahai gainean. Iragan mendeko kanposanturen batean osatutako bilduma irudi zuen. Aunitz era eta taimainatako lenteak zeuden, eta ispilu bat ere ekarri zion nolakoak nahi zituen delibera zezan. Nork bere buruarekin konpondu beharreko auzia izaki, bakarrik utzi eta, diskrezioak agintzen duen bezala, lekutu egin zitzaion aldamentetik.

Ez zen oroitzen noiz aldatu zituen azken aldiz, eta betaurreko zaharrekin izan ezik, ez zuen bere burua ezagutzen ahal. Gainera, pare bakoitzak graduazio propioa zeukan; beraz, ez zuen zipitzik ikusten. Edonork gaizki ematen ziotela erran, eta horregatik bakarrik egin behar al zituen berriak? Osabaren aldeko interes komertzialak sumatzen zituen Migelek proposamen hartan, baina Aleidak itxuraldaketaren aitzinean nolako aurpegia paratuko zuen ere jakin nahi zuen eta, azkenik, tarteka kristalaren gainetik behatzen uzten zioten lente zahar batzuk hobetsi zituen.

Ireki gabeko ron botila eta bi edalontzi ekarri zituen etxeko nagusiak sukaldetik bueltan. Iza-

rrik gabeko zero beltz txipia gelditzen zitzaion Migeli katiluan, eta zaharrak kafe gehiago atera zion. Erabakiaren zain zegoen Arsenio, eta male-tatik kanpo utzitako pare bakarra erakutsi zion bezeroak. Egokiagorik ez omen zegoen berarendako, eta hamarren bat aldiz jantzi eta erantzi behar izan zituen artisauak neurria hartu arte, zeren...

- Los espehuelos, Miguel, como los libros -erran zion bere filosofia profesionalaren adierazgarri- hay que elehirlos a consiensa. Se lo dise un lector empedernido.

Ele bakar batek bizitza ulertzeko modua aldatzen ahal zuen bere ustez, eta eleberri bakoitza -ez edozein- estazio espazial baten tamainako hitz konplexu eta oparoekin alderatzen ahal zen: literaturak -jakina denez- eguneroko bizimodu arruntean ez hondoratzeko balio zuen, eta itsas gainean ageri zen edozein lurralderi -Kuba, adibidez- irla deitu behar zitzaion.

Aunitz mende eman omen zituen *Antilletako Perlak* urpean. Baina egun batean, 1956. urtean, lauretan hogeita bi gizonak, hemeretzi metro luze bertzerik ez zuen yate zuri-berde batean,

argiak itzali eta Mexiko utzi zuten. Itsasoko zurrunbiloan zorabiatuak igaro zituzten hainbat egun eta, azkenean, lehorra jo zuten. Gidaria, ordea, lemazain baldarra ez ezik, traidorea ere bazen, eta orduko matxinoak noiz helduko zain zeuden Batistaren gizonak.

- El desembarco de la provincia de Oriente -probestu zuten Migelek bere jakituria erakusteko.

- Un naufragio -erantsi zuten Arseniok-, un verdadero naufragio, compañero.

Ez zekiten non zeuden. Zilkoraino hondoratu-rik ibili ziren lokatzetan. Zomorroz beterik zeuden bazter guziak, eta ziztadaz josi zituzten iritsi bezain fite. Aireplano bat agertu zen handik laster, eta metrailadoreen kalaketari egin behar izan zioten aurka. Inguruetan barreiu, balaren bidean paratu zen Ernesto Guevara; azken hatsa heldua zitzaiola uste baitzuen, zuhaitz baten kontra eratzan omen zen, zeharo etsirik mundu hau uzteko asmotan. Urtebete eskas falta zitzaien bitan hogei urte betetzeko.

Ustekabean harrapatu bide zuten Pentagonoa, eta Batistaren erregimena usteldurik zego-

en gaineratik beheiti. Egunak joan egunak etorri, jendea ausarki bildu zitzairen, eta bi urte eta erdi bertzerik ez zuten behar izan etsaia mendean hartu eta agintari bihurtzeko. Urtarrilaren 2an sartu ziren Habanako hirian; urte bereko azaroran, Kubako Bankuaren lehendakari izendatu zuten argentinarra.

- Es difícil de creer, hermano -erran zion Arseniok kontuak oraino aterako ez balira bezala-. ¡Tremendo milagro!

Escambray izeneko mailoetan goiti ikusi zuen lehen aldiz komandantea, eta Cantinflasen eitea hartu zion. Agintari zegoenean abisurik eman gabe agertzen omen zen edozein lekutan, eta behin baino gehiagotan egin zuen berarekin topo. Bizi izan balitz, Arsenioren urteak izanen zituen, baina *Otras tierras del mundo reclaman el concurso de mis modestos esfuerzos* idatzi zion behin Fideli eta, isilune luze baten ondoren, kondairaren lainopean galdu zen betiko.

Aldaketa aroak zetozen -onerako edo txarre-rako-, *Y hay objetivos, Miguel, que prescribieron sin que fueran alcanzados*; batzuk zakarrontzian zeuden dagoeneko eta bertze batzuk usteltzeko

zoriar. Aspaldiko helburu nagusiek, hala ere, ez omen zuten gaurkotasunik galdu, eta lehenago igarri ere ezin ziren bertze zenbait mahai gainean zeuden zain, zeren...

Iraultzak, azken batean, beti uzten zuen hondarren bat, eta eutsi egin behar zitzaion mehatxuaren aitzinean amore eman gabe.

- Sin embargo -aitortu zion zaharrak- aún no veo aquel hombre nuevo que dihera el Che; y los años van pasando...

Isilik gelditu ziren. Errelojuari erreparatu zion Migelek. Solasean gustura zegoen agi denez zaharra, eta botila eskuratu zuen berriz ere. Erdiraino bete zituen basoak eta aspaldiko lagunak balira bezala egin zuten topa. Urre iluna ematen zuen ronak kriseiluaren argitan, eta edariari so, Arseniori bi hatz falta zitzaizkiola ohartu zen.

- Un machete -argitu zion.

Zafran ari zela, suge gaizto bat kirikolatu zitzaion belaunean. Oin azpian zanpatu eta, ihes egin ez zezan, eskuarekin atxiki zuen lepotik. Aihotza ezkerrean altxatu eta kolpe batez akabatu omen zuen harri baten gainean, baina ez zuen

behar bezala asmatu; piztiak burua galdu zuen, eta berak bi hatz.

- Lástima.

- Nunca se sabe, compañero -ihardetsi zion Arseniok, eta kontakizuna akitu gabe isildu zen.

Alde egiteko seinale gisa hartu zuen Migelek etena, eta orduz kanpo zebilela erran zion etxe-ko nagusiari. Sukaldeko argia kanaberaz egindako gortinaren zirrituetan barna ari zen keinuka eta, zeharkatu ondoren, mila zati egindako xilofonoaren zalaparta utzi zuten bizkarrean. Armairuan sartzeko prest, ziur aski, zapata-kaxa bat ikusi zuen mahaiaren erdian eta bertan, arduraz azpildurik, Kubako bandera. Oihalaren gainean lehengo burdina puska zegoen atsedean hartzen etzanik, baina artean ikusi gabeko bertze zerbaitek jo zion begia, zeren...

- Un día el comandante visitó el ingenio -azaldu zion gertatuari garrantzirik eman gabe- y cuando se fuera la encontré colgada de un perchero.

Txapel beltz bat.

- ¿Che? -galdetu zuen Migelek bere ustea baieztatzeko gogoia batere ezkutatu gabe.

- El ínclito -ihardetsi zion olerkia deklamatzeko erabiltzen ahal zuen tonu larrian.

Iruñeko jardunaldiak etorri zitzaizkion bat-batean gogora, eta barka ezina iritzi zion hainbateko parada huts egiten bazuen.

Argazki, poster eta liburuen artean, zer ego kiago Ernesto Che Guevararen txapela baino? Ezinezkoa iruditu zitzaion hala ere, zeren...

Zer arraiorengatik utzi behar zion Arseniok ozeanoz bertze aldera eramaten? Nola ematen ahal zion halako konfiantza ezagutu berri zuen gazte arrotz eta ezezagun bati?

Ametsa bertzerik ez zen, eta hobe zuen atzendu.

Alferrik ari zen, itzalari putz egitea bezain alferrik, baina ez zuen amore eman nahi, eta irritsez begiratzen zion oroigarriari behin eta berriz. Eskuetan hartu eta bueltaka ibili zuen, buruan janzten menturatu gabe. Ainhoari telefonoz deitzeko irrika egin zitzaion. Bazekien inbidiaren oliotan frijitzen utziko zuela. Azken aldiko historiaren puska bat ari zen eskuko hatz-muturrekin ukitzen!

Agur egin baino lehen zerbait erran nahi zion Arseniok, eta Migeli beldur aztarren bat egin zitzaion bere gogoetaren berri asmatu ote zuen. Ez zegoen halakorik; azkeneko momentuan, beharrik, lenteak etorri zitzaizkion gogora; eredia behar zuen berriak egiteko. Ohartu gabea zegoen, eta Migel ezustean harrapatu zuen eskariak. Egun hartan, dena den, ez zizkion uzten ahal muturra zedro, zeiba edo onburen baten kontra hautsi nahi ez bazuen. Hotelean bazeuzkan ordezko batzuk Iruñeko botika zahar batean erosiak, eta deituko ziola agindu zion bisita bizkor bat egiteko.

Eskaileretan beheiti abiatu aitzin, erdiko zuloari erreparatu zion, eta itsas-karakolaren kiribila iruditu zitzaion. Aldameneko barandari ongi eutsiz, mantso-mantso eta mailaz maila jaitsi zen. Ordu txipiak izanagatik, auzolagunen zalaparta entzun zuen solairuetan, eta habanarrek inoiz lo egiten ote zuten pentsatu zuen. Azulejo zuri eta urre kolorekoak miresten gelditu zen une batez eta, portaleko ateari bulka egin ziolarik, gauaren berotasunean murgildu zen.

Espaloian barna oinez, eskuinera ematen zuen kantoinean galdu baino lehen, goiti begiratu zuen. Izarren azpian, terrazako karel zuriaren gainean besoak, bere baitan bildurik zegoen Arsenio. Eskua altxatu zuen Migelek azken agurra emateko, baina zaharraren ikuspegitik kanpo zegoen orduko, eta ez zuen ihardespenik jaso.

Ingalaterra hotelaren ate nagusian zegoen zain, eta *Maria Josefa baietz* erran zion Migelek bere buruari, baina ziur egon arte itzalpean ezkutatu zen tentuz. Emazteki ederra iruditu zitzaion. Urte batzuk bazeuzkan eta zenbait kilo sobera beharbada. Mahukarik gabeko elastiko fina zeraman, gibelurdinaren kolorekoa, eta praka zurigorri zerrendadunak, bereak baino alabari ebatsitakoak izaten ahal zirenak. Alde batera eta bertzera ari zen zer-suman eta, halako batean, bila zebilenarekin egin zuen topo. Eguzkitako lente beltzak erantzi eta hurbildu egin zitzaion.

- Disculpa, ando buscando un señor de lentes con los ojos pegados a la nariz.

- Ese soy yo. Y usted debe de ser María Josefa.

Ez zela horren zaharra eta, beraz, ez zion errespetuko tratamendua onetsi. Ezaguerak egi-tean Alberto Jose aipatu zuen lehenik eta behin. Elkarrekin etortzeko asmotan ziren, baina saihe-

tsezineko konpromisoa sortu omen zitzaion azken orduan, eta goraintziak eman zizkion haren izenean.

Oharrak jasotzeko koadernoren bat ekarri al zuen galdetu zion ikastaroaren hasmenta gisa. Ezetzaren aitzinean, kopeta zimurtu zion espantuz beterik. Hurrengo egunean kontuan hartzeko aholkatu zion eta, berehala, hotelean sartu ziren legea egitera. Arabiako tankeran apaindutako jantokian hartu zuten leku. Zerbitzaria etorri bitartean, egindakoaren berri eman zion Maria Josefak. Unibertsitatetik zetorren. Aitzineratu egin omen zuten azterketaren data, baina ez zuen zertan larritu, zeren...

Azaldu nahi ez zion tranpi koxkor bati esker bazekien zeri buruzko lana paratu behar zioten. Arrunt erraza, egia errateko, eta ziur zegoen eragozpenik gabe gaindituko zuela.

- «El teatro oriental y su influencia en osidente» -eman zion jakitera, isilpean baina-: porque incluso un puchero tiene dos orehas, chico.

Alberto Josek egindako proposamena neurritz kanpoko ausarkeria iruditzen zitzaion Migeli, eta behar ez zuen lekuan sartzen ari ez ote zen ere

pentsatu zuen. Inoiz ez zen ikasle ona izan, eta ikasitako apurra atzendurik zeukan aspaldi. Atsedean hartzeko eta sosegatzeko erran zion irakasleak, zeren...

Liburutegi Nazionalean egon berria zen, eta dagoeneko ba omen zekien Shakespearek baino gehiago.

Egun zehatzik ez zion eman, baina hilabete inguru geratzen zitzaien. Horrela, bada, matrikula sakelan zeukala hiruzpalau aldiz entzun ondoren, ikastetxearen izena galdetu zion Mari Josefari.

- La Escuela Nacional de Teatro de la América Latina y el Caribe.

Alkandora zuriko zerbitzari zaharra hurbildu zitzaien galdezka; hortaz, ikastaroa pixko batean gibeleraturik, eskainitako menuari erreparatu zioten arretaz. Aukera faltarik ez zegoen, baina irakasleak ez zituen platerak behar bezala bereizten ahal, eta laguntza eskatu behar izan zion irakasleari. Arraina izan, haragia izan, akitu berri zitzaizkion janariak aipatzen zizkieten behin eta berriz morroiari eta, ezinbertzean, bere lagunak

bezala, *Arros blanco desgranadito* eta *Masas de puerco fritas* eskatu zituen.

Oharrak jaso eta zerbitzaria sukalderako bi-dean zihoala, Maria Josefak emandako aholkuaz oroitu zen Migel, eta papera eta lapitza eskatze-ko probestu zuen. Irakasleak ez zuen denborarik galdu nahi, eta ikasleak berehala konprenitu zuen bazkari osoan ez ziola hitzik ateratzen utzi-ko. *Una muela* erran ohi zuen halakoaren aitzin-ean bertako jendeak, eta halaxe gertatu zen gainera.

- Tú debes saber quién fue Aristóteles -erran zion, inportazioko zigarro gorri bat piztu eta ai-rean kez marraztutako eraztunak uzten zituela.

Migelek ez zuen hainbertze irakurri, baina li-buru-denda batean egiten zuen lan, eta ez zi-tzaion irakaslearen galdera piperrik gustatu. Ez-jakinaren plantak egitea deliberatu zuen. Brasil-go jokalariren bat izaten ahal zela adierazteko zorian zegoen, baina sinetsezina iruditu zitzaion, eta bertze zerbait asmatzen saiatu zen. Ahoa za-baldu behar zuelarik aitzineratu zitzaion Maria Josefa:

- iTremendo filósofo! -azaldu zion, haren obra osoa buruz baleki bezala-. Tú debes conocer su *Arte Poética*.

Ez zuen ezagutzen, eta amorrua eman zion. Ez zuen Greziako pentsalari handia olerkari lane-tan ikusten. Ez zen jende adituarekin fidatzen; Maria Josefarekin, ezezaguna izaki, hain gutxi, eta azalpenen bat eskatzeko gogoia egin zitzaion. Bi aldiz pentsatu eta gero, saiakeraren bat izaten ahal zela deliberatu zuen.

Aristotelesen lan horretan omen zegoen gor-derik, *iUna obra paradigmática!*, Europako tea-troaren iturburua, eta lur horren gainean hartzen zuen Mendebaldeko «drama» guziak oinarri. Maria Josefak, hala ere, bazuen kezka bat, zeren...

Bere uste apalean, maisuak ez zuen zertan jakin hainbertze teatro kontuez eta, gainera -buru eman behar baldin bazitzaion inperialismo kulturalari merezi bezala- mundua ez zen inolaz ere Greziaren mugetan akitzen.

- Es probable, Miguel -erran zuen ikaslearen lekuan paratzeko ahaleginean-, que tú te preguntes qué es el Oriente.

Eskua sakelan sartu eta iparrorratza hotelean ahortzi zuela erraten ahal zion aitzakia moduan, baina bazekien bertze alde batetik joko zuela; beraz, isildu eta baietz adierazi zion buruarekin.

- Absolutamente todo lo que no es Osidente.

Hagitz egokia iruditu zitzaion azalpena. Hondarrik gabeko itsasoan bezala, oin hartu ezinik utzi zuen berriz ere, zer erran jakin gabe. Aitzin solas gisa, Indiako Katakalia, Txinako Opera eta Japoniako Nô antzerkia aipatu zituen lehenik eta, segidan, Baliko dantzak, Afrikako errituak, tarahumarak eta bertze hainbat adibide. Antzerkiz beterik egona zen betidanik mundua, baina Europak bere zilkoari begira eman omen zuen historia osoa, eta hogeit hamar mende behar izan zituen mundua biribila izaten ahal zela sumatzen hasteko.

- Acaso, Miguel, ¿tuviste alguna vez la oportunidad -galdetu zion erantzunik jasotzeko esperantzarik gabe- de asistir a un film que yeva por título *El nombre de la rosa*?

Azken aldian ez zen zinemara joaten, eta ezezkoa eman beharra zeukan berriz. Gezurra erratea ere bururatu zitzaion, baina faltsuan ha-

rrapatzen ahal zuen, eta gibeleratu egin zen. Nobela irakurririk ez zuen arren, maiz eskatzen zioten dendan, eta bazuen haren berri. Idazlearen izena etorri zitzaion gogora, eta halakorik ez baitzitzaion aunitzetan gertatuko, bat-batean bota zion:

- Umberto Eco. iTremendo novelista!
- iUn cabayo! -gaineratu zuen irakasleak.

Ez zekien ziur zertara zetorren zaldiarena, baina antza denez *tremendo* baino goitiago zegoen zerbait behar zuen izan. Nolanahi dela, ez zuen konprenitzen zer ikusirik izaten ahal zuen italiarraren lanak Aristotelesen obrarekin; ezta Ekialdeko teatroarekin ere.

Irakasleak ikusi berria omen zeukan filma, eta sipnosi luze samarra entzun behar izan zion hainbat xehetasun barne. Ertaroan girotutako kontakizun poliziakoa zela bazekien, baina, protagonisten izenak ez ezik, ageri ziren fraide guzaienak ere eman zizkion jakitera.

- Eselente broma -erran zion Maria Josefak-; pero escucha, que ya yo te esplico.

Ordu laurden inguru behar izan zuen zerbitzariak itzultzeko. Ez zekarren janaririk oraino.

Edaria paratu zuen mahai gainean eta, Migeli lapitza eta blok txipi bat emanaz, jatekoa istantean zetorrela agindu zien. Eskerrak eman eta gero, oharrak hartzen dituenaren plantak egin zituen ikasleak, nahiz eta idazteko erremintak alde batera utzi eta sardexka eskuratzeko irrikan zegoen. Maria Josefak, aldiz, monje zaharrak hartzen zituen ahotan, agi denez, gosea menderatzeko. Ardo pittin bat edan eta filmari lotu zitzaion berriz ere.

Abadia baten giroan gertatzen dira pasadizokak eta, noski, hiltzaile misteriotso bat dabil isilpean eta ilunpean bazterrak endredatzen. Eguneroko otoitza bazter utzi gabe, aspaldiko liburu zaharrak konpontzen eta kopiatzen ematen dute fraideek bizitza eta, halako batean, anaia bat akabatzen dute; zenbait egun sarrixeago, bertze bat eta, horrela, andana, apokalipsiaren kapituluetan ageri diren zenbait pasarteren harian, denak ere modu bitxi eta errebes samarrean.

Arreta gorde ezinik zebilen Migel, eta oilaskoari lepoa bihurritzeko komentuko hiltzailea agertu zain ote zeuden pentsatzen ari zela, hiru aitona ikusi zituen jantokian sartzen. Ez ziren frai-

deak, baina kantatzeko asmotan zetozen hala ere, zigarroaren kolorekoak denak, ilea zuri motz-motza, trastez gainezka. Imurtzi egin zion batek gitarrari, marakak tartekatu zituen bertzeak, eta ahaire zahar bat atera zitzaion kantariari eztarri idorretik. Ikasleak lapitza hartu zuen eskuan eta kantuaeren leloa jaso ahal izan zuen ia bere osoan:

*en un tiempo era colonia
tiempo de consternación*

...

repiqueteaba el tambor

Emankizuna akitu aitzin hasi zen Maria Josefa solasean berriz ere, eta arreta eskaini behar izan zion Migelek. Horrela, bada, arazo teologiko larriren bat zela medio biltzar nagusia egin behar baitute, hainbat anaia ailegatzen dira, bederazka, urrundik abiaturik, parte hartzera. Aitzindari, bertze guziak baino lehen, fraidez jantzitako Sean Connery bizar zuriduna dator, eta tenore horretan, hain zuzen, sortzen da saltsa guzia. Ikerlari lanak berak egiten ditu eta, intuizio harri-

garriari esker, hamaika korapilo askatu ondoren, misterioaren bihotzera helduko da noiz edo noiz. Baina bidean zetorren janaria, eta gose handitua zen Maria Josefa aspaldi.

- Al fin el prieto... -erran zuen ironiaz- ...convensió al cosinero.

Entsalada hotz bat paratu zuen zerbitzariak biendako mahaian eta, kortesiak horrela agintzen baitu, eskerrak eman zizkion Migelek. Irakasleak, zain eman behar izan zuten denbora luzearengatik edo, ez zion deus erran nahi izan, baina usain ederreko janaria ekarri zien eta ez zuten solasik apenas egin akitu arte. Atsedentxipi bat ere izan zuten hurrengo platera heldu bitartean eta, hausnarketa luzearen ondoren, Migelek hartu zuen hitza:

- ¿Qué quiere decir prieto?

- Nada, chico. Tú sabes que acá, a veces, el sol aprieta con cozones.

- O sea, una manera de llamarle mulato.

- ¿Mulato? -egin zuen espantu-. Escucha un momento. Mulata soy yo. Ese compañero es por lo menos azul, pero esas son cosas de la cubanía, y es difícil que tú entiendas.

Ez zion gehiago sakontzen utzi, zeren...

Abatetxean ba omen zegoen liburutegi ezku-tu bat, fraide itsu zahar batek zaintzen zuena gau eta egun. Apalez jositako labirintoan, amaraunez beterik eta hautsaren azpian, ezin konta ahala liburu zeuden, baina itsuak denborak horizatutako ale bat gordetzen zuen bereziki. Ez zuen inoren eskuetara hel zedin nahi. Tentazioa denez menderatu ezin den gauza bakarra, jakin-minak egin zuen gainerakoa. Ezin izan zuen liburua nahi bezala gorde, eta anaia irakurleengan hartu behar izan zuen mendeku.

Jainkoaren semeak gizon guzien salbazioaren alde gurutzean bizitza eskaini zuenetik inork ez omen zuen negarra baizik zilegi, baina infernua-
ren furrinda orroka zebilen azken aldian, eta fede gabeko anaia desbideratu batzuk irriaren bideetan zebiltzan guztiz galdurik. Antigoaleko liburu bat aipatzen zuten aldeko arrazoiak emateko, eta fraide itsuak bazekien non zegoen. Ale bakarra egoten ahal zen mundu osoan; eskuratu nahi zuenak, berarekin eginen zuen topo.

- Ya tú debes conoser de qué obra se trata.

Aristotelesekin bi ataletan ongi banaturik egin zuen bere liburua, baina filmean ageri zen fraide itsuaren antzeko jendea bitarteko, bakarrak baikirik ez zuen iraun; zati batek alegia, zeren...

Bertzea infernuaren zurrumbiloan ito omen zen.

Ondorioz, tragediaren bidetik jo zuen teatroak Mendebaldean eta komedia, aldiz, Gaztelako inkisidore zital batek erre zuen, gupidarik gabe, munduak irrikirik egin ez zezan.

Azken batean, Ekialdeko teatro guzia baztertu ez ezik, Mendebaldekoaren erdia galdu genuen bidean, eta geroztik arauari jarraitu zioten gehienek. Baina bizitzaren eta legearen artean beti egon omen da tarte franko handia, eta ikuslegoari sekula ez zaio irri egiteko arrazoirik falta izan. Horrela, bada, historiak gauzak azkenean bere lekuan paratzen baititu eta platerean ez baitzuten fisik orduko, *Matusalén* bana ekartzeko agindu zion Maria Josefak zerbitzariari.

Topa egitean *No es bueno tomarse las cosas tan en serio como ustedes*, aholkatu zion irakasleak teatroaren izenean eta etorkizunaren onerako.

Erantzunik gabe gelditu zen Migel; Mendebaldeko kulturaren historiak egindako bide murraren arduradun nagusia balitz bezala mintzo zitzaion, baina, beharrik, egun hartako bazkariak eta ikasgaiak ere akiturik ematen zuten, eta gerorako planak atera zituen irakasleak berant gertatu baino lehen. Aski izanen omen zituzten lau bazkari orotara. Migel ez zen sobera fidatzen, zeren...

Lehena egin zuten eta oraino ez ziren ia Greziatik jalgi.

Ez batek ez bertzeak ez zuten kaferik hartu eta, Migelek kontua ordaindu ondoren, eguzkiperira irten ziren. Astebeteko tartea utzi zuten elkarrengana berriz bildu arte, baina lekua zehaztu gabe geratu zen, eta Maria Josefak hartu zuen deitzeko ardura. Oharrak garbira pasatzeko agindu zion irakasleak, eta ikasleak, zerbitzariak emandako blok txipia sakelatik atera eta eskua goiti eramanez, Maoren liburu gorria balitz bezala erakutsi zion.

Izerditan blai, *Instituto Cubano de la Amistad con los Pueblos* irakurri zuen noizbait Migelek atalburu batean eta, sartzen menturatu baino lehen, *Partagas*-a piztu zuen aulki batean atsedan harturik. Atarian bi zutarri sendo eta balkonetan, ezker-eskuin, harriz landutako kalostra galantak zeuzkan apaingarri. Inguruko burdin hesiaren gibelean, itsaso hurbilaren hezetasunak zigorturik, zaindu gabeko lorategiaren erdian zegoen etxea. Hirugarren munduko edozein herrialderen enbaxada irudi zuen.

Azken bafada bota, zigarro-muturra zanpatu eta eskaileretan goiti, Kubako banderaren azpitik iragan ondoren, etxe barneko itzalak irentsi zuen. Aldameneko bulegoetan zalaparta zebilen, baina harreran ez zegoen inor. Zumitzez egindako besaulkian jesarri zen zain. Handik luze samarrrera, lenteak lepotik zintzilik, emazteki ilezuri-duna ikusi zuen beregana zetorrela. Zutitu egin zen.

- Tengo cita con Virgilio Montero -erran zion Migelek.

- ¿Usted dise que se yama?

- Miguel Salaberria.

- Aguarde un momento.

Ateak zuriz, paretak beixez eta lurra buztin gorriz egindako lauza karratu zabalez osaturik zegoen. Argiak piztu gabe, nahiz oraino izerditan, kanpoko lanpa baino hagitzez atseginagoa egin zitzaion bertako giroa. Egonean asperturik, zokomiran hasi zen eta, inor ez baitzen ageri, pasillo baten hondarreko leiho garaira heldu zen. Aspaldi galdutako saurioaren zangoak ziruditen hiruzpalau zuhaitz korapilatsu aurkitu zituen patio barnean isilik. Idazkaria itzuli eta topatuko ez zuen beldurrez, bere lekura hurbildu zen eta, zain zegoela, olibaz jantzitako neska gazteak egin zion kasu. Eskuan zeraman kristalezko txarroa erakutsi eta *¿Juguito de toronha?* eskaini zion abegiz.

Azken tanta akitu arte edan zuen. Ordu erdi zain egon ondoren, bere enkarguarekin ahantzi ote ziren hasi zen pentsatzen. Urduri, bueltaka zebilela, harrera egin zion emaztekoa atzeman

zuen manpara baten gibelean telefonoz solasten. Urrun samar zegoen, baina begira ari zitzaien lenteen gainetik. Aurki deituko ziola irudi zuen; beraz, ordezkariari, hau da, Ainhoaren lagunari zer erran behar zion saiatu zen oroitzen.

- No se encuentra, compañero -erran zion emaztekiak bihotzez sentituko balu bezala.

- He cruzado el Atlántico -mintzatu zitzaion larritasun faltsu baten gibelean babesturik- sólo para estar con él.

- Lástima, en este momento no se encuentra en la casa, pero si usted acude a eso de las dos, es probable que pueda recibirlo.

Ez zuen halako parada huts egiten ahal eta, azalduko zela agindu eta gero, karrikara irten zen kolore pixko bat hartzera. Aldapa koxkorra jaitsi eta bazterretako itzal apurrak probestuz, pasieran ibili zen dortoka baino mantsoago. Noizbait, Coppelia izeneko izozkitegi bat azaldu zitzaion bidera, eta ez zuen zalantza egin. Age-rian antolatutako esparru lasaia zen; harrizko mahai biribila zegoen, hutsik, palmondo baten azpian. Izeberg tamainako izozkiak ikusi zituen aldameneko mahaietan, baina bazekien ez zioten-

la egarririk kenduko eta, zerrenda irakurtzeko tentazioan jausi gabe, *juguito* eskatu zuen deshidratatu baino lehen. Berehala hustu zuen ontzia eta, ez aspertzeko, aulkian norbaitek ahantzita-ko *Granma* hartu zuen esku artean.

«Tregua en Bosnia».

Uztailaren 26ari buruzko artikulu luze bat ere bazetorren erdiko orrialdeetan, baina irakurtzen hasi orduko Ainhoarekin oroitu zen, eta bertze baterako utzi behar izan zuen. Iruñetik lekutu aitzin, *Faltetsiko haut* hura izan zen bere azken enbidoa elkarrekin gosaldu zuten egunean; ez zen, agi denez, gezurretan ari, zeren...

Telefonoz deitu ziolarik, *Faltesten haut* erran zion berriz ere, eta Ainhoak ez zuen sekula deus aditzera ematen intentziorik gabe.

Obsesioaren familian sailkaturik zeukan Mi-gelek amodioa. Neurritz kanpoko atxikipenarekin loturik zegoen bere ustean, baina, zorionez, eritasun iragankorra iruditzen zitzaion. Orratza ildoan trabatu zaion diskoaren gaitz bera harrapatzen zuen amoros gaixoak, eta gero eta sakonagoa bihurtzen zitzaion tamalez zuloa. Ezezkoaren aitzinean, gainera, larritzeko joera hartzen

zuen eta, denborarekin izan ezik, ez zen sendatzen ahal, zeren...

Maiteminduak bere bihotz atsekabetua zirikatzeke ohitura hartzen zuen mingainak kaltetutako hagina bezala; zenbat eta gehiago ukitu hainbat eta handiagoa bihurtzen zitzaion malenkonia.

Ez zeukan intentzio makurrik, eta ez zen inolaz errudun sentitzen, baina beharbada zuhaitzera igotzen lagundu eta eskailera erretiratu zion nahi gabe. Arkatzarekin idatzitako pasarte errebesa ogi-mamiarekin ezabatzen ahal zen bezala, bere burua anestesiatzeko eskatzen ari zitzaion akaso eta bere lagunak, ziur aski, nahiago zuen erromantizismoaren garretan erre.

Aldatu gabe irauten ahal zuen gauza bakarra aldaketa bera zela uste zuen Migelek, eta ez zuen bihotz-aldizkarietan agertzeko gogo handirik. Ez zuen korapilo errebesetan endredatu nahi, baina egia zor dio nork bere buruari, eta Ainhoak desio zuela jakiteak plazer ematen zion; nabarmen. Alderdi horri buruz ez zeukan zalantzarik, baina hondarrik gabeko itsasoan ari zen murgiltzen, eta egun hartarako aski zuela delibe-

ratu zuen, bertzeak bertze, hitzordua zeukalako laster Virgilio izeneko batekin.

Tenoreko zebilen xahutzeko denborarik gertzen ez bazitzaion ere; beraz, zorrak kitatu eta etorritako bidetik abiatu zen begiak itsutzen zizkion eguzki gupidagabetik ihesi. Aldapan goiti jo zuen bazter ezezagunetatik, eta galdurik zegoe-la aitortu behar izan zion bere buruari. Oinezko batengana hurbildu zen eta etxe dotore bat erakutsi zion espaloiaeren bertze aldean. *Instituto Cubano de la Amistad con los Pueblos* irakurri zuen bigarren aldiz Kubako banderaren gainean eta, errelojuari erreparatu ziolarik, hamar bat minutu berant zebilela konturatu zen.

Atean agertu bezain fite, harrerako emazteki ilezuriduna etorri zitzaion bila. Pasilloan barna eramán zuen. Ordezkarí batendako bulegoa baino gehiago, bilerak egiteko aretoa ematen zuen: egur iluneko mahai luze bat erdian eta kadirak, dozena bat, bazterraren kontra paraturik. Aspaldian pintatutako paretak izanagatik, xarma berezia zerion izpilikuaren koloreari, eta behialako urre arrea zuten oraino lurreko lauzek. Ispilutzar bat ere bazegoen zintzilik eta, ezker-eskuin,

Marx eta Engelsen posterrak. Atearen kirrinka entzun zuen. Bi gizonetako ikusi zituen, gazteena begi-urdin eta bertzea beltzarana, ispiluan. Elkarrengana bildu eta eskua eman ondoren, ordezkariak hartu zuen hitza.

- Virgilio Montero -erran zuen-, y acá, Julio Santamaría, secretario segundo de la organización del Instituto.

Ilea motz eta bibotea beltz, berrogei bat urte, aginduak ematen ohitutako gizona irudi zuen Virgiliok, eta bere lagunari -guayabera soinean; guajiroa, ziur aski- asmoak abian paratzeko ardura zegokiola ematen zuen.

Kargu eta erantzukizunen garrantzia nabarmentzeko beharbada, institutuaren ordezkariak hartu zuen bere gain Migelen aurkezpena egiteko ardura eta ohorea.

Auskalo zer erran ote zion Ainhoak berari buruz, zeren...

- Miguel Salaberria, ¿dihe bien? -galdetu zion-; abnegado internacionalista y jefe de la comisión organizadora de los actos de homenaje al insigne comandante Ernesto Che Guevara en la histórica ciudad de Pamplona.

Bere itzalaren azpian ezkutatzeko gogoia egin zitzaion Migeli. Elkarrizketa behar baino gehiago luza ez zedin, ekimenaren alderdi orokorrak bazter utzi eta jaso berri zituen datu adierazgarri batzuk eman nahi zizkion jakitera, bertze batzuen artean, ia astebeteko presentzia ziurtaturik zeukatela egunkari eta irrati nagusietan, eta pare bat telebista prest zeudela urtemugari buruzko bizpahiru albiste emateko.

- ¡De pinga! -iruditu zitzaion.

Oraino erabat lotu gabe zeudela, baina dozena bat hitzaldi kalkulatzeko zituztela herriz herri-mugaren hegoaldean- eta mahai-inguru bat lruñean berean. Gainera, jardunaldiei errematea emateko, aspaldiko jaialdirik hoberena ari ziren antolatzen eta, gauzak nahi bezala joanen balira, sei mila lagun espero zituzten.

- ¡Retranca! -erran zuen Juliok miraz beterik.

Ainhoaren bidez jakinaren gainean egonen ziren orduko, baina, ustekabekorik gertatu ezean, bi kilo garbi biltzen ahal zituzten edo, beharbada, gehiago. Une hartan oroitzen ez zuen ospitale baten eskuetan uzteko asmotan zebiltzan. Gobernu kanpoko erakunde baten bitartez

igorriko zuten sos guzia, eta gero Institutuak hartuko zuen ardura. Ahalik lasterren eman nahi zituzten kontuak argitara, eta urtemugari buruzko dosierra agindu zien gabonetarako.

- ¡Fantástico! -atera zitzaion Virgiliori bihoztetik.

Laguntza bila ere bazetorrela eman zien jakitera Migelek. Ernesto Che Guevarari buruzko erakusketa xumea zabaldu nahi zuten Iruñean eta horretarako, argazkiak, oroigarriren bat -Ar-senioen txapelarekin oroitu zen erremediorik gabe-, posterrak, bideoak, liburuak, egunkariak... behar zituzten haren bizitzaren lekuko. Era berean, adiskide, senide edo gerrillari ohiren baten presentzia beharrezkoa iruditzen zitzaien -hegaldia batzorde antolatzailearen konturama-hai-inguruan parte hartzeko. Azkenik, nahiz eta jaialdirako partaiderik falta ez, kantariren bat -ez zen Carlos Pueblaren izena aipatzen menturatu- eraman nahi zuten *Aprendimos a quererte*, bertzerik ez bazen ere, bertako jendeari oroitarazteko.

Egun batzuk behar izanen zituen Virgiliok, baina erantzun bat agindu zion hurrengo astera-

ko. Ba omen zeukan lagun bat La Casa de las Américas izeneko erakundean, eta ez zuen eragozpenik ikusten hitzordu bat adosteko. Ikus-entzunezko materiala bertan eskuratzen ahal zuen, baina komandantearen inguruko jendearena eta kantariarena ez zegoen bere esku bakarrik, eta ez zion hitzik ematen ahal. Horrela, bada, elkartasun guzia eskaini ondoren, hoteleko telefonoa eskatu zion harremanak gordetzeko.

- El asunto promete -erran zion Virgiliok asmoetan kide-. ¿Un juguito de toronha?

Ezetz ihardetsi zion Migelek.

- ¿De piña?

Txarro bete edanen luke, baina bilera akitzeko irrikan zegoen.

- Entonses... -erran zuen xake-mate ematen duenaren ziurtasunarekin- ...un ronsito.

Ezker gaiztokoa iruditu zitzaion hirugarren ukazioa, eta samuraiak ere batzuetan amore eman beharra izaten duela deliberatu zuen. Ispiluaren azpiko armairu koxkor batean gorderik zegoen botila eta, bere lagunak arazo txipiren bat baitzuen urdailean, bi baso bertzerik ez zituen ekarri. Etiketa beltzeko *bucanero* onduak

unearen garrantzia gogorarazi zion Migeli, baina atea jo zuten giroan laketzen hasi berritan. Elastiko zuria eta lenteak zintzilik zeramatzan emaztekiaren burua agertu zen egindako tartean, eta bilera amaitu behar izan zuten. Ordezkarri nagusiak dei bat zeukan telefonoan zain, eta bigarrenak egin zion ateraino lagun.

Institutura heldu zelarik, korapilo bat zekarren zilkoaren bertze aldean, baina bitartekaritza lanak bete ondoren, harro zegoen. Olibaz jantzi-tako neska azaldu zitzaion berriz ere bidera. Ez zekarren *toronha* zukurik, baizik eta Moncadako kuartelaren aurka egindako erasoari buruzko liburuxka sorta. Ale bat eman zion Migeli pasadizoan eta, atariko eskailerak jaitsi baino lehen, bortzekoa eskaini zion Juliok esker onez.

Erakundea gibelean utzi zuelarik, inguruari erreparatu zion arretaz. Ez zuen baztertzen berriz etorri behar izatea. Urrunean geltoki bat atzeman zuen eta, zorionez, bere hotelera zerman ibilbidearen zenbakia ageri zen seinalearen goiburuan. Ainhoak edozein unetan deituko ziola pentsatu zuen autobusean zihoala. Eskuinean, *Maine* guda-ontzia hondoratu zuen kanoitzarra

ikusi zuen Riviera hotelaren aitzinean eta, ezkerrean, antxetak zebiltzan itsasoko uhin harro apartsuen gaindi jitoan. Agindutako lanak, beharrik, bide onetik zihoazen, baina bertzelakoa zen bere kezka, zeren...

Ez ote zen ari hurrengo berpizkunderako sobera puntu biltzen?

Habana Zaharretik hurbil gelditu zuen automobila Alberto Josek, eta Migelek barraren bat zabalik ba ote zegoen galdetu zion Arseniori. Bakarren bat harrapatuko omen zuten, baina leher eginik zegoen terminologoa orduko, eta ezezkoa egin zuen, automobiletik plazara jalgitzeko asmorik azaldu gabe. Atzerritarrari lehenik eta bertakoari eman zion gero bortzekoa. Zaharrari ez zion graziarik egin, mahaiaren inguruko solasean kalapita txipi batean trabatuak ziren afalondon eta galtzerdiari buelta eman ezinik zebilen.

Antza denez Alberto Josek ez zion aparteko garrantzirik eman, baina Arseniok ez zuen hitzik atera bueltako bide osoan. Horrela, bada, *A gosar, que el mundo se va a acabar* erran zuen gidariak automobila abian zihoala, baina kontrako bidea zeramatela probestuz, ez batek ez bertzeak, inork ez zuen burua itzuli. Egia errateko, bi lagunena eta gehiago edana zuen terminologoa bakarrik, eta *fa sostenuto* nabarmena zerman soinean.

Izarren azpian, espaloietan barna, Obispo karrikara heldu ziren, eta hango ostatu batera eram zuen Arseniok. Nahiz goiburuan izenik ez izan, aspaldiko filibusteroren batena paratzen ahal zioten: izkinan egonik, bi aldetara behatzen zuen begi bakarrarekin. Egurrezko zutabe sendoa zeukan kantoinean eta, betazalak balitu bezala, aluminiozko pertsianen gibelean isilik, lo hartzeko zorian ematen zuen. Argiak pizturik zeuzkan, baina bezerorik ez orduko. Ukondoan egokitutako mostradorean zenbait aulki zangoluzen zeuden asperturik eta, zigarro-puru mutur bat hortzetan, pergamu zimurrez egindakoa irudi zuen agurea ontziak garbitzen. Alde egiteko irrikan omen zegoen; beraz, azken tanta negoziatu behar izan zuten tabernariarekin. Apalean ez zeukan garagardoa eta rona baizik eta, loak hartzeko arazorik ez izateagatik, pattarrean adostu ziren.

Airean, biraka, hainbateko aireztailua zebilen, eta gako batean Camilo Cienfuegos komandante hilezinaren argazkia zintzilik. Erreparatu egin zion Migelek arretaz. Itun zaharreko edozein patriarkak baino luzeagoa zeraman ilea, eta

ez zuen konprenitzen ahal nola ez zitzaion hai-zearekin harrotzen.

Berehala alde eginen zutela agindu zion Arseniok auzokideari eta, bere ulerkortasunari esker, azken *ronsito* bat edateko baimena erdie-tsi zuen. Ostatuko jabeak bi baso luze paratu zituen mostradorearen gainean eta, makurturik, azpiko bazterren batean galdu zen. Izeberg ta-mainako izotz-mokorra atera zuen harraskara, eta lauzpabortz puska kendu zizkion burdinazko gakotzarrarekin. Edaria ikusten uzten ez zuen botila iluna jaitsi zuen gero apaletik eta, ordaina jaso bezain fite, pertsianak ixtera abiatu zen.

Itsasertzetik zetozen, Cojimar izeneko herri koxkor batetik. Arratsaldea arrantzan emateko gonbita egin zion zaharrak, eta bazkalondoan egin zuten hitzordua. Eguraldia ez zegoen bate-re egonkorra. Ernest Hemingway idazleari eskai-nitako oroitarria ere bazegoen bertan eta, idor-rean gelditu behar izanez gero, bizar-handiari egiten ahal zioten bisita.

Habanatik irten aitzin, ordea, Alberto Josere-kin egin zuten topo. *Incapturable* baten zain zeu-den eta, automobilaren leihatilatik kanpo nabar-

men, terminologoa burua ezagutu zuen Migelek oihuka.

- San Cosme y San Damián, ique coinsidencia, hermano!

Aitzakiarik gabeko Lada sobietiko bat gidatzen zuen, eta hegazkinean ez bezalako itxura zeukan, zeren...

Eguzkitako lente beltzak zeramatzan, eta New Orleans irakurtzen zen elastiko zurian.

Eginbeharrez gainezka omen zebilen, baina arrats hartako planak adierazi orduko, ateak zabaldu eta sartzeko agindu zien berehala. Idazlearen izena entzun zuelarik, dozena erdiren bat liburu aipatu zizkien, eta taldearen buruzagitza hartu zuen bere gain. Inork halakorik eskatu ez zionez, kopeta zimurtu zitzaion Arseniori.

Eguraldia okerrera zihoan, eta ez zioten deus erran.

Aitzinean jesarri zen Migel eta zaharrari gibelako lekua utzi zioten. Alberto Josek eta Arseniok ispiluan begiratzen zioten elkarri eta, elkarrenganako adeitasuna erakutsiagatik, fidagaitz irudi zuten. Arrotz baten behakopean enbarazu egiten zioten batak bertzeari agi denez, eta bien arteko

harremana beheitiagoko mailan gorderik bezala, Migelendako izan ziren galdera eta erantzun gehienak.

Ateri abiatu baziren ere, giro beltza sartu zitzaizen pixkanaka itsas aldetik, eta sekulako eurijasa bota zuen tupustean. Argiak piztu behar izan zituen gidariak. Erauntsiak ez zuen, hala ere, une bat bertzerik iraun, eta etorri bezala egin zuen alde. Aldamenetara begira, espaloi gorria ematen zuen bide ertzetik at lurrak, eta inguruko mendi koxkorak, urrunago, landaretza-zen azpian zeuden osorik. Aldian behin, tximu zimatsuren baten larruz jantzirik bezala, zuhaitz harrigarriak ageri ziren bazterretan eta, eguzki galdatan, dardara egiten zuen argiak errepidearen zoru gainean.

Isilune laburraren ondoren, ustez hegazkinean atzendutako liburu bat aipatu zion Alberto Josek Migeli. Ekialdeko teatroari buruzko kalaka aterako zuela espero zuen, baina Arsenio tartean zegoela-eta ez zituen azaldu nahi izan. Kontua zen ozeanoaren bertze aldean erositako ipuin bilduma falta zuela, eta ez zekien -abiatu aitzin, airean edo Habanara heldu eta gero- noiz

galdu zuen; libururik ba ote zeraman oroitzen al zuen galdetu zion, zeren...

Hegazkinean elkarrekin etorri ziren.

Ez zegoen ziur, baina baietz uste zuen. Aza-lean ageri zen Buda potoloaren berri ematen hasi zitzaiolarik, Arseniok Cojimar irakurri zuen gezi baten ondoan, eta ezkerretara jotzeko agindu zion gidariari.

Arrantzale giroko herri txipi batera ailegatu ziren. Itzalean zegoen bazter bakarrean utzi zuten automobila. Itsasoari buruz zegoen ostatuan sartu ziren eztarria bustitzeko asmotan. Ez-patarrain bat zegoen horma batean ikusgai, eta jabeak bizar zuriko *americano* ospetsuak harra-patu zuela erran zion atzerritarrari. Igandetako aurpegia paratu zuen Migelek, baina Arseniok, kontrakorik aipatu ez zuen arren, fede gabeko behakoa eskaini zion. Egurrezko ontzira-leku apala ikusten ahal zen leihotik, eta Arseniok, arrantzarako giro handirik ez zegoen baina, bere txalupa ezagutu nahi al zuen egin zion galde.

Alberto Joserren ustez, itzala zen eguzkiak zeukan gauzarik ederrena. Ez zuen, bada, itsa-sertzera jaitsi nahi izan, eta bertze garagardo

bat eskatu zuen adiskideen ausentzia eraman ahal izateko. Eskaileretan beheiti joan ziren bertze biak. Ur bazterrera heldu zirelarik, txalupaz txalupa ibili ziren Arseniok erabiltzen zuenaren bila. Itsasoa harroturik zen eta, oreka gorde ezinik, ziraldoka, brankan *Arquímedes* idatzirik zerraman ontzi txipia erakutsi zion. Migeli izenaren arrazoiak galdetzeko gogoia egin zitzaion, baina ez zuen hitzik egin behar izan, zeren...

- Un cuerpo sumerhido en el agua -azaldu zion poliki- desaloha un volumen, igual, esétera, esétera.

Aspaldiko jakintsuari buruzko liburu bat irakurri omen zuen behin, eta gogoan geratu zitzaion haren printzipioa. Umetan ez zuen ikasteko paradarik izan eta, bizitzaren udazkenean, magia hutsa iruditzen zitzaizkion horrelako gauzak. Otoitz moduan erabiltzen zuen definizioa, txalupa sekula hondora ez zekion, eta arraina harrapatzen zuen bakoitzean *Eureka* erraten zuen Sirakusako matematikoaren omenez.

Inguru bat eginez, bertze aldetik igotzea proposatu zion zaharrak, eskaileretan goiti hatsa kexuan heldu beharrik gabe. Itsaso urdin ilunean

aparra bertzerik ez zegoen eta antxetak, lehorretik hurbil, aztoraturik zebiltzan. Ordu erdi eman zuten oinez eta herriko kaskora heldu ziren. Arrantzaleen etxe zaharrak ederretsi zituzten eta, azkenean, Ernest handiaren gorazarrez eraikitako oroitarria atzeman zuten karkaba batetik.

Iruñeko seme kutunaren irudia ikusi nahi zuen Migelek eta, hurbildu zelarik, Alberto Jose-rekin egin zuen topo. Aterpe gabeko antolamendu biribil baten erdian zegoen bizar zuriko *americano* famatua eta terminologoak, harrizkoa ez bazen ere, bera bezain asperturik ematen zuen. Idazlearen soingaina, zutarriz inguraturik, oinarri baten gainean zegoen. Hiruzpalau maila igan eta gero, argazkia ateratzeko erran zioten jolasten zebilen mutiko bati. Ernest erdian harturik, lepotik atxiki eta sanferminetan baleude bezala paratu ziren kubatarrak, eta nafarra, aldiz, koska batean egokitu zen irudiaren oinetan.

Egur-ikatzetan egindako arrainaren usaina aditu zuten egon berriak ziren ostatutik zetorrela eta, jaten bai baina, zaporeak behar bezala bereizten edozeinek ez badaki ere, iritzi bereko

gertatu ziren afari-merenduaren deliberamenduan. Oroitarria zaintzen zuten sugandilak kiskaltzen utzi eta sudurraren aginduari egin zioten kasu. Ostatuak guanozko aterpe zabala zeukan gibelean eta, zumitzezko besaulkietan jesarri zirelarik, morroiari egin zioten dei.

Egun hartan itsaskabra bertzerik ez zuten jan, eta Bulgariako bi botila ardo akitu zituzten ahalegin handirik egin gabe. *El viejo y el mar* goretsi zuen Arseniok. Alberto Joserren ustez ez zegoen *Fiesta* bezalakorik. Horizontearen gibelean egoten ahal zen pintore bat etengabe ari zen ilunabarra aldatzen eta, afaria denen artean ordaindu ondoren, Migelek botila bat ron atera zuen bere kontura. Ekarri bitartean komunera joateko probestu zuen zaharrak, eta terminologiak, noizbait, antzerkiaren gaia sartu zuen solasean, zeren...

- Anoche vi a María Josefa -erran zion-. Me comunicó que asimilas muy lihero.
- Se hace lo que se puede.
- ¿Establesieron ya fecha de examen?

- Más o menos... Espero que todo salga bien, y consiga pronto algún alquiler. El hotel me está costando un ojo de la cara.

- En primer lugar, debes comprender, Miguel, es preciso una buena nota. A continuación el permiso de residencia. Y en cuanto al resto, descuida, yo me encargo.

Ez zuten gaiari buruz deus gehiago zehaztu. Bueltan zetorren orduko Arsenio, eta terminologoa ez zituen bere joan-etorriak zaharraren aitzinean erakutsi nahi.

Bazegoen oraino botilan zer edan, eta kopa pare bana hartu zuten. Agindu bezala, ikasleak ordaindu zuen pattarra, baina ziria sartu ote zioten susmoa egin zitzaion Aleidaren osabari eta, irten baino lehen, kontua eskatu zion Migeli.

- Lo multaron, compañero -jakinarazi zion Arseniok, zeren...

- Un barril de ron resulta más barato, y además el pendeho nos metió chispetren.

- ¿Chispetren? -galdetu zuen Migelek.

Ostatu batzuetan, markako botila hutsak zakarretara bota orde, bigarren mailako ronarekin betetzen zituzten eta, buxon berria paratu eta

etiketatu ondoren, bi aldiz garestiago saltzen zizuten atzerritarren ezjakintasunari esker. Horrela, bada, zerbitzariaren begien bila ibili zen Obispo karrikako alkatea eta, arreta erakarri ziolarik, papera eskuetan hartu eta mila pusketan desegin zuen.

Automobilean, bueltako bidean, ustelkeriari, faltsukeriari eta amarruari buruzko hitzak atera zituen Arseniok. Ekonomiako Ministerioaren ardura Ernesto Guevarak zeraman egunetan plazaratutako dirua zebilen oraino kubatarren sakeletan, haren irudia ikusten ahal zen inprimaturik, eta ez zuen izen-abizenekin sinatu, zeren...

Sosaren nagusikeria baldintzapean uzteko, beharbada, ezizena, hau da, *Che* paratu zuen diru-paperean.

Ez zuen eramaten ahal lagun bati, bere aitzinean gainera, iruzur egitea, eta ahalkegarria zitzaien. Azerikeria bertzerik ez omen zegoen bazter guzietan, ostatu hartako nagusiarena kasu.

Alberto Josek aitzakiaren bat bazeukan, eta ez zuen gorde, zeren...

- Si no lo hase él -erran zuen-, lo ha de haser otro.

Ika-miketan nahasi gabe eman zuten arratsalde osoa, baina gauzak bere lekuan paratu behar izaten dira alde egin baino lehen. Migel adi zegoen zaharrak zer ihardetsiko zion. Arseniok ez zuen, agi denez, alferreko kutermarik nahi. Ezker-eskuin mugitu zuen burua behin eta berri, mutu.

Alberto Josek solaserako gogoia zeukan, eta arrazoia bereganatu nahi zuen, zeren...

- En su lugar, cualquiera hisiera la misma cosa.

- Cualquiera, no, hermano -zehaztu zuen Arseniok.

- La culpa -jarraitu zuen zerbitzariaren abokatuak- es de todos.

- De algunos, más; de otros, menos.

- Es posible, pero el asunto es... que no hay nada que haser.

- Todo está por haser, o casi todo -gaztigatu zion Arseniok-, si usted está dispuesto a defender lo que costó tremendo esfuerzo. Somos el tarser mundo, eso es sierto, pero lo mejor del tarser mundo. No lo olvide.

Urdirak urre eta urreak sugar, izarrak ere hasiak ziren banan-banan nabarmentzen, eta denbora joan ahala, itzalak bildurik, lurraren gainean pausatu zen gaua. Errepidearen bazterreko auzoetan, atariko argiak pizturik, jendea erretiratzeko gogorik gabe kulunkan zegoen jarlekue-tan. Ia automobilik ez zebilen bidean eta aldi-aldian behin, bizpahiru palmondoen erdian, oasia ematen zuen gasolindegiren bat uzten zuten gi-belean. Azken kilometroetan, hiritik hurbil, au-sarki zebilen automobila, eta mantsoago joan behar izan zuten.

Uste baino berantago heldu ziren Habanara eta, terminologoiari gabon opatu ondoren, Migel-ek eta zaharrak tabernarako bidea hartu zuten, arestian erran bezala. Automobilean sortutako solasa atzendu ezinik zeukan Arseniok oraino eta, tragoa edan ondoren, basoa erakutsi zion Migeli, zeren...

- Esto es chispetren -erran zion- pero no yeva etiqueta.

Obispo karrikara ematen zuen pertsiana era-bat jaitsirik zegoen, baina bertzeari gerrirainoko tarte-a gelditzen zitzaion zabalik. Hondarrak aki-

turik, makurtu egin behar izan zuten irteteko. Itsasontzi baten makinetako sotoan baino bero handiagoa egiten zuen kanpoan eta barrideak, lo hartu ezinik, balkonetan zeuden. Etxera erretiratzeke tenorea zuten, baina Arseniori bertze galdera bat geratzen zitzaion barnean; ozpinduko ez bazitzaion, bota beharra zeukan:

- ¿Usted sabe, compañero, qué cosa es un comemierda?

Bazekien nori buruz ari zen, eta baietz adierazi zion buruarekin. Ez bata ez bertzeak ez zuten inoren izenik aipatu. Aitortu beharrik ez zuten elkarkidetasunaren seinale, irri egin zuten batera.

Tenorez jaiki zen hoteleko bufeta probesteko asmoz. Denetarik jan eta edan ondoren irten zen karrikara, bapo, eguzkiaren eraso hasi baino lehen. Aberriaren aldeko eslogan biribilak eta irudi galantak ikusi zituen hormetan nabarmen, baina merkatu librearen paradisuan ez bezala, apenas ageri zen iragarki komertzialik. Erregimenaren ezaugarri izaten ahal zen, edo jenero faltaren ondorioa bertzenaz.

Dendak bakan eta aukeran murrizt iruditu zitzaizkion kontsumoan hezitako kalekumeari. Espaloiz espaloi ibili zen luzaro erakusleiho bakarra ikusi gabe, etxeetako behe-solairuetan ere jendea bizi baitzen Habanan. Ile zuriko emazteki beltzak eta pergamuzko aitona zimelak zebiltzan burdin sareen gibelean etxeko lanetan edo egunkaria irakurtzen.

Aldian behin kafez betetako zakutzarren bat edo lihozko soineko zuriren bat azaltzen zitzaion bidera, eta estanko dotore batean ere eman

zuen denbora-tartetxoa tabako usainaz gozatzzen.

Itzalpetik karrikara irten zelarik, eguerdiaren zama jausi zitzaion gainera. Argiaren dardara atzematen zuen urrunera beha, eta aihotzarekin urratzeko moduko aire pisua zegoen giroan. Izerditan blai heldu zen hotelera. Ez zegoen goseak, eta kafetegian sartu zen bazkaldu gabe. Añejo luze bat eskatu zion zerbitzariari. *Cohiba* mozko-te bat erre bitartean, siesta koxkorra egin eta arratsean Habana Zaharrera joanen zela deliberratu zuen. Hurbil hartan, ordea, norbait zebilen bere bila eta, burua itzuli zuelarik, *vermouth batido* baten aitzinean, bakarrik, Maria Josefa ikusi zuen. Ordubete zeraman bertan. Ailegatu bezain fite harrerako apalategian begiratu zuen, baina Migelen gelari zegokion gakoan ez omen zegoen giltzarik, eta telefonoz behin eta berriz hots eginagatik ere inork ez zion erantzuten. Arraro samarra iruditu zitzaion eta, badaezpada solairura abiatua zelarik, hoteleko poliziak ez zion igogailuan sartzen utzi.

- Estoy hasta la crica de tanto pendeho
-erran zion haserrearen sutan kiskaltzen-. Nos
tratan como si fuéramos escolares.

Ilea kizkur eta harro, ardoaren koloreko atza-
zalak, hildakoak pizteko moduko lurrina zerion.
Egunkari puskekin jositakoa irudi zuen soinekoa
zeraman gainean. Hurrengo hitzordua bi egun
geroago zeukaten Marianaoko jatetxe batean,
baina bertze zerbait sortu omen zitzaion, eta
arratsaldeari zer edo zer kentzeko asmotan zeto-
rren Migelengana, zeren...

Gelan aireztailurik ba ote zeukan galdetu
zion Maria Josefak.

Helikoptero baten tamainakoa bazuela azal-
du zion, eta hozkailu txipi bat ere bazegoela eda-
riz gainezka.

Ez zuten artabururik atzeman bidean. Igogai-
luan sartu zirelarik bizpahiru katu ikusi zituen Mi-
gelek harrera-lekuan bazkalondoko kuluxkan
erdi-lo, eta bere solairura heldutakoan, berriz,
txoriak zebiltzan aire zabalean, txioka, hotelaren
hegaletako pasilloetan barna hegan.

Aireztailua abiarazi zuen, baina ez zuen argi-
rik piztunahi izan. Oinetakoak erantzi eta bainu-

gelako galdea egin zion Maria Josefak; espaloietako galipota bigundurik zegoen beroarekin, eta takonak gobernatu ezinik ibilia zela erran zion. Itzuli bitartean, zumitzezko bi besaulki egokitu zituen bazter batean, eta iragan eguneko ikasgaietan noraino heldu ziren saiatu zen oroitzen. Instant baten bueltan zeukan irakaslea aldamean. Zigarroaren keari begira, aspaldiko filosofoa ekarri zuen mahaiaren ingurura, zeren...

Aristotelesen liburua galdu eta zenbait mende geroago, arabiarren bitartez heldu zen halako batean -erdia, bedere- *Arte Poética* bedeinkatu hura kristauen artera, baina garai hartako itzultzaileak ez omen ziren arras fidagarriak; beraz, gaur egun ezagutzen dugun bertsoa, Maria Josefaren ustez, urrun samar ere egoten ahal zen jatorrizko lan hartatik.

- Un buen día, tú sabes, ayá por el siglo XVI, a un tal Ludovico Castelvetro se le ocurrió abrir la obra del gran filósofo, pero la interpretó, más o menos, como se le puso en la pinga.

Edan berri zuen pattarrarengatik, beharbada, edo bazkaldu gabea zegoelako, logalearen arriskua sumatu zuen Migelek. Hozkailura hurbildu

zen erremedio bila. Bulgariako ardoa, Txekoslovakia-ko garagardoa, Kubako rona eta Sobiet Batasuneko xanpaina erakutsi zizkion bisitariari. Ikasleak aski zuen garagardo hotza, baina Maria Josefak nahiago zuen xanpaina, eta, kortesiak agintzen duen bezala, lagun egin behar izan zion.

Interpretatzen jakin ez zuen irri susmagarria eskaini zion Maria Josefak, tentagarri, ezpaine-kin. Idor zeuzkan Migelek bereak eta, trago bat edanez, begietara behatu zion zuzen, zer pentsatu jakin gabe.

Solasaren haria berreskuratu ezinik ibili zen irakaslea tarte batean, baina sasian endredatze-ko beldurra egin zitzaion Migeli eta behakoa al-
dendu zuen gaizki ulerturen bat gertatu baino lehen.

Teatroaren bidera itzuli eta etengabeko inguru-minguruetan zorabiatu ondoren, Ludovicoren berri eman zion Maria Josefak. Hiru lege nagusi ezarri omen zituen maisu zaharrak eta, tamalez, ia inork ez zion aurka egin. European bezala Ekialdean ere asmatu zegoen orduko teatroa, baina aspaldi hartan inori ez zitzaion burutik pa-

satu ere egiten Mendebaldearen mugetatik kanpo kulturaren aztarrenik egoten ahal zenik.

- Una lástima.

Elastikoaren besapean gero eta zabalago ari zitzaizkion bustiduraren aztarnak nabarmentzen Migeli, eta bigarren larruazal bat irudi zuen Maria Josefaren soinekoak bizkar aldean. Ez omen dago premia bezalakorik irudimena zirikatzeke eta, hozkailuaren atea ireki zutelarik, freskura ez ezik, beroa ematen ez zuen argi-puntu bat erantsi zioten giroari.

Aireztailuak sargoria barreiatzeko bertzerik ez zuen balio, egia errateko; horrela, bada, barnean botila epeldu baino lehen, xanpainarekin bete zituzten kopak berriz ere. Irri egin zion Maria Josefak begiekin, eta bertze pixko bat edan behar izan zuen Migelek zer egin deliberatu bitartean, zeren...

Antzerkiarekin zerikusirik ez zuen zerbait zebilen giroan, eta susmoak gero eta nabarmenagoak ari zitzaizkion bihurtzen; beraz, ozar eutsi zion behakoari; mugaren ertzean, ordea, gibelera egin zuen irakasleak, eta solasera bueltatu ziren.

- Unidad de espacio, unidad de acción y unidad de tiempo -omen ziren Castelvetroren ardatz errebesak, eta laburbiltzen saiatu zitzaion.

Adibide bat eskatu zion ikasleak, eta erantzun baten ordean, bertze galdera batekin ihardetsi zion Maria Josefak:

- Ya tú debes haber visto un gran film de intriga que, si mal no recuerdo, yeva por título *La sogá*.

- John Ford -menturatu zen zalantzan.

Ezetz adierazi zion keinu batekin, eta isil-isilik gelditu behar izan zuen zuzendariaren izena entzun arte. Izenburuak *western* baten oihartzuna zekarkion oroimenera, baina ez omen zen, eta zekorraren moduan harrapatu zuen laxoan. Migel asperturik zegoen hainbertze galderarekin, iruditzen zitzaion trufa egiten zuela bere ezjakintasunaren kontura, eta nekez eramaten ahal zuen bere amorrua disimuluz.

- Alfred Hitchcock -bota zion xake-mate emateko bezala-. ¡Un caballo!

- Ese señor vestido de negro, que cuando menos esperas, aparece en sus propias películas.

- No es el único. También a Velásques le gustaba salir en sus obras, o a Servantes en sus libros. Pero a lo que íbamos...

Egileak bere karreraren hasmentan egindako filma zen, zuri-beltzean, eta James Stewart aktoreak egiten zituen detektibe lanak.

Ohi bezala, hildako bat dabil bazterrak endredatzen eta, kasu honetan, bi lagun gaztek egin bide dute krimena, etxean berean, lagun arteko besta batean bildu baino zertxobait lehenago. Intriga areagotzearen, salan dagoen kutxaren barnean ezkutatzen dute gorpua, baina, jakina, ikerlariak -gaizkileen tutore ohiak- korapilo errazenetik hasi eta mordoilo errebesenak askatu ahala, gorpua, zauria eta arma uzten ditu agerian. Egilea oraino egongelan dagoela frogatzen du gero eta, azkenean, noiz, nola, zertarako eta nork egin duen azaldu ondoren... aretozainari deitu eta argiak pizteko baimena ematen dio.

Azken batean, betiko trikimailu poliziako nahasia bertzerik ez zen; ez zuen gehiago kontatzerik merezi, baina hiru legeak betetzen omen zituen guztiz eta, Maria Josefaren uste apalean,

bertze adibide *paradigmático* bat zeukan Migelek begien aitzin, zeren...

Castelvetroren arabera, antzerki bakoitzak historia bat eta bakarra kontatu behar zuen eta, hori gutxi balitz, ez zuen egun bakar batetik goiti irauten ahal. Obrak, ezta hori ere, eta gainera, agertokiaren esparrutik kanpora jalgi gabe.

Apartamentu baten muga barnean grabatu omen zuen zuzendari potoloak bere «soga» osoa; beraz, pozik egoten ahal zen Aristotelesen epigonoa bere ausardiarekin. Etenik gabe, antzekorik ez duen kamera-lana bitarteko, segidan filmatu eta josturarik ez zeukan sekuentzia luze bat bertzerik ez zuen behar izan eta, ondorioz, ekintzaren batasuna ere betetzen zuen; nahiz eta zazpikiren bat edo bertze azpijokoren bat nabarmentzen saiatu behin baino gehiagotan.

Irri egin zion Maria Josefak, sudurrarekin oraingoan, baina hasperena ere izaten ahal zen, eta Migel lenteak garbitzen entretenitu zen, irakaslea bere jardunera itzuli arte.

Era berean gertatzen zen hirugarren legearekin ere, zeren...

Grabatzen emandako denbora filmaren iraupenarekin bat zetorren doi-doi, hau da, ordu eta hogeita minutu, edo, bertze modu batean errateko, abiatu aitzin xehetasun txipienak ere programaturik zeuzkan zuzendariak eta, sosik sobera ez gastatzeagatik, beharbada, ez omen zuen zeluloide metro bakar bat xahutu.

Ustekabean harrapatu zuen Hitchcocken zekenkeriak, baina aitzakiarik gabeko adibidea zen, eta Migelek ez zuen ulertu bertze erremediorik izan.

Hitchcockek film hartan egin bezala, garai bateko antzerkigile gehienak -inuxente halakokak- Castelvetroren bideari jarraitu zitzaizkion mendez mende. Baina, hala ere, sekula ez da ardi errebelaturik falta izan lurraren gainean: 1930. urtean edo, Baliko dantzari batzuk heldu omen ziren Parisera, eta zalagarda piztu zuten antzerki giroan. Antonin Artaud izeneko aktore gazteak gidatzen zuen aldi hartan Alfred Jarry taldea, eta txunditurik geratu zen emankizuna ikusi zuelarik. Urrundiko ekarpen iritsi berriaren argitan, guztiz erratua iruditu zitzaion Mendebaldean urratutako bidea, eta 1938an liburu bat

eman zuen argitara, *Le theatre et son double*, lege zahar guziak hankaz goiti paratu zituen.

- El asunto es que el francés se lió tremendo canuto con las unidades de Castelvetro -azaldu zion gogaidetasunik ezkutatu gabe- y le prendió candela.

Asiako hegoaldera abiatzeko gutizia egin zitzaion aktoreari. Agi denez, ez zuen behar bezainbat sos bildu, eta Mexikora aldatu behar izan zituen asmoak. Aristoteles, Castelvetro eta konpainiaren berririk gabe aspaldiko ohitura eta bestak gordetzen zituzten leinuak ezagutu nahi zituen, eta *Tarahumara* izeneko batekin egin zuen topo. Eskarmentu eta ezagutza berriz gainezka itzuli zen indiarren artetik, eta Parisen bertze liburu batean eman zituen argitara.

- *Viahe al país de los tarahumaras* -zuen izena-. Pero tú debes saber también otra cosa.

Aunitz urte geroago, mendeak hiruretan hogei urte baino gehiago zituelarik, Bartzelonako etxe batek aipatu liburua argitaratu zuen. Francoren diktadurari ez bide zitzaion gustatu, eta debekatu egin zuen. Are gehiago, zeren...

Nahiz orduko hilik egon, idazlea bera deitu zuten auzitara.

- ¿Imahinas a Antonin Artaud -erran zion irri maltzur bat ezkutatu ezinik-, tremendo surrealista, por sierto, muerto de risa en medio de semehante comedia?

Aharrausia egin eta zurtzuilera eraman zituena Migelek eskuak, nagiak ateratzeko ahalke balitz bezala. Ez zekien noiz eta nola, baina bazekien non amaituko zuten. Hasperen egin zuen gero Maria Josefak, eta ahulezia susmagarri bat nabaritu zitzaion begietan. Hala ere, Castelvetro zeukaten oraino lekuko, eta ikasgaia burutu beharra zegoen.

Hoteleko harreran erositako mapa paratu zuen Migelek ohantzean zabalik, eta egin beharreko bidetari jarraitu zion, arretaz, paperaren gainean. Eguzkitara irten zen aski bazekiela deliberatu zueneko, baina galdu egin zen, mundua ez baita atlas bat. Oinezkoei galdezka, kable elektrikoz ehundutako amaraunaren azpiko karriketan barna joan zitzaion denbora. Hitzordura berant ailegatzeko larritasunez, etsipenaren mugetan, zinemako eskailerak azaldu zitzaizkion.

Bezperan hotelera deitu zion Arseniok, eta Continental zinemaren atarian elkartuko ziren aspaldiko film bat ikusteko. Aretora heldutakoan hasperen luzea sortu zitzaion Migeli, zeren...

Doctor Zhivago irakurri zuen tituluak iragaritzeko atalburuan pizturik.

Jende aunitz zegoen orduko errenkadan; aire egokitua zeukaten eta, uztaileko lanpatik ihesi, sosen bat ordaintzen ahal zen Habanan lo kuluxkaren truke.

Ateak irekitzen ari zen ehun kiloko morroia sarreran, baina txartelak saltzeko leihatilan ez zegoen inor. Azken bezeroaren gibelean paratu eta, halako batean, *iMiguel!* entzun zuen. Guayabera dotorea soinean, eskuarekin deika ari zitzaion Obispo karrikako alkatea. Une bat eman behar izan zuten zain, eta Cantinflasen eitea zeukan komandantearen aipamena egin zion Arseniok, zeren...

- En un tiempo, en especial tratándose de algún film de cowboys, era fácil coincidir con el Che en un lugar como éste.

Antonioni, Godard edo Bergman zalea zela erran izan balio ez zen hainbertze harrituko, baina hogeita bortz urte baziren Che hil zutela. Aspaldi hartan, ziur aski, ez zen aukera handirik egonen Habanako karteleran. Nola joaten ahal zen inor apatxeen galera eta aurpegi zurbilen garaitza behin eta berriz sufritzera? Ez zuen konprenitzen, eta Arseniori galdetzeko gogoia egin zitzaion, baina zaharrak bertze zerbait erran nahi zion.

Aunitz urte lehenago -ortzegun batean, oroitzen zuenez- une hartan berean zeuden leku be-

rean zegoen Arsenio zinemarako asmotan. Ez zen oroitzen zein film ematen zuten. *Western* bat izanen zen. Orduko, beharrik, zabalik zegoen leihatila eta ilara bazihoan aitzinera dortoka baino mantsoago. Bigarren lekura heldu zen noizbait, eta txartel-saltzailearen eta buruz buru zeukan bezeroaren arteko solasa entzun omen zuen nahi gabe. Bizartu gabeko gazte bat zegoen kristalaren bertze aldean eta, antza denez -Arseniok, artean, ez zekien zer arraiorengatik- ez zion gizon hari kobratu nahi.

- ¿Cómo es que me regalas el pase? -erran omen zion bezeroak serio-. Porque este sinematógrafo, compañero, no es tuyo, que yo sepa.

Zineman sartu nahi baitzuen, zer erran ez zekien mutikoaren aitzinean paratu zuen ordaina bezeroak. Aspaldiko diru hartan ez zen oraino Cheren aurpegia ageri, baina Arseniok bazekien nor zen, eta irri bat eskaini zion. Oinetakoak lotu gabe, ohi bezala, Kubako Banku Nazionalaren lehendakari zebilen komandantea garai hartan, baina ez omen zen, hala ere, diruarekin sobera fio.

Atezainari sarrerak eman ondoren, aulki banatan jesarri eta kredituak azaltzen hasi ziren pantailan. Omar Sharif, arabiarra iduriagatik, doktorearen paperean zetorren eta Julie Christiek, sobera lirain Moskuko alaba izateko, Lara zuen izena. Ekoizlea, bertze aunitz filmetan bezala, Carlo Ponti zen, Sophia Lorenen senarra, eta zuzendaritza David Lean izeneko iparramerikarrak sinatzen zuen.

Ezaguna egin zitzaion Migeli filmaren banda musikala eta, poliki-poliki, Antilletako zama beroa atzendurik, urki-basoetako negu gorrian galdu zen. Asto zahar baten tripa irudi zuen zeru zolak, eta elur-ale pikorrak ari ziren gainbehera atergabe jausten. Elur-malo handiagoak egin zituen ondoren eta, airean zalantzan, lurraren gainean pausatu ziren, mantso-mantso, pantaila osoa zuriz bete arte. Aldiz irin, aldiz gatza zirudien elurrak eta Yuriren urratsek, isiltasunean, felpa hauskor bat zanpatzen zutela ematen zuen. Eguraldiaren gogorrak benetakoa zirudien, baina Mosku zaharrak ez zuen kartona disimulatzeko, eta ahaleginak egin behar izan zituen Migelek lo hartu gabe atzarri irauteko.

Atsedenaldia heldu zelarik, aire egokitua etsai, hotzak zegoen Migel eta, aretotik kanpora irtendakoan, beldur zen leihoren batetik Plaza Gorria ez ote zitzaion agertuko. Arruntean ez omen zuten etenaldirik egiten, baina hiru orduko filma zen, eta ez zegoen habanarrik hainbertze-ko denbora irauten ahal zuenik zangoak luzatu gabe. Aldameneko egongelan barra koxkor bat baitzegoen, vodka gabe, garagardoa eskatu zuten.

- Usted debe conoser el libro -erran zion Arseniok.

Ezetz ihardetsi zion eta, nahi gabe, bide egin zion solas berri bati. Etxetik urrun, Escambray aldeko bazter malkorretan hartu omen zuen nobela bat eskuetan. Aldi hartan izan zuen Boris Pasternak-en berri. Baina galdu egiten zen elurretan, eta abandonatu egin behar izan zuen liburua.

Azken aldian, literaturari buruzko aldizkari batean, zer pentsatua eman zion artikulua kausitu zuen, eta Zhivagorengana hurbildu nahi zuen berriro oraingo begiekin hausnartzeko.

- Italo Calvino -erran zion, sekretu bat aitortzen ari balitzaio bezala-, iun cabayo!

Aitzakiarik gabeko nobela iruditzen zitzaion Zhivagorena, baina iraultzak -Kubakoak, konparazione- ez zuen etsairik falta, eta boltxebikeak zalantzan paratzen zituen bakoitzean, erresumin sor batek jaten zizkion erraiak. Italiarraren artikuluari esker, lente berriekin ikusten ahal zituen orain behialako kontu zaharrak, eta horregatik hain zuzen, luzatu zion zinemarako gonbita.

Filma, ordea, erdia ikusi eta gero, ez zetorren idazleak aipatzen zuenarekin bat, zeren...

- El árbol no deha ver el bosque -uste zuen Arseniok.

Aldi bateko urri gorriak atzendurik, bitan hogeit hamar eta hemeretzi urtarrilera, Habanara, egin zuen berehala jauzi. Aginte berriak errotik aldatu omen zuen egoera, eta Kuba bere buruaren jabe bihurtu zen, baina dena zegoen eginkizun, eta politikak harrapatu zuen bizimodu osoa edo, zehatzago errateko, lana, sormena, maitasuna, giza harremanak eta bizitzaren gainerako osagarriak ez zuten zentzurik politika deitzen zaion sare horretatik kanpo, eta hori, edozein

iraultzaileri, Arseniori ere, gauzarik naturalena iruditzen zitzaion garai hartan. Asmo guziak biltzen zituen motorraren antzeko zerbait bilakatu zen politika handik harat, eta bizitzaren alderdi bakoitzari, atalez atal, ez zegokion hortz bakar bat bertzerik.

- Es decir -hartu zuen parte Migelek-, que mejor si la vida fuera el motor entero, y la política sólo un engranaje.

- Es presiso que tú entiendas, Miguel, que cualquier avance real es fruto de diferentes desarrollos desiguales y combinados.

Ez zion lehenengo ahaleginean konprenitu. Baina, labur errateko, lente bat bertzerik ez omen zitzaion orduan baliagarri, hau da, politikarena; beraz, gainerako kontuak ere ez zituen kristal horretan barna baizik ikusten ahal. Alderdi bakoitzari, ordea, bere lente pareka zegokion, eta aunitz ikuspuntutik ikusten ahal ziren, Arsenioren ustez, politika ez ezik, bertze alderdi guziak ere, zeren...

Azken batean, bizitza eta politikaren arteko proportzioan zegoen koska edo, zehatz errateko,

xake-taula bere osoan hartu beharra zegoen kontuan, piezarik galdu gabe.

- Y por sierto -erran zion Arseniok-, aún espero sus espehuelos.

Oroitarazi izan ez balio, hotelera eramaten zituen bueltan. Botikan erositakoak galtzetan zeuzkan eta, aldatu ondoren, ibili ohi zituenak eman zizkion zaharrari. Arto-irinaren koloreko guayabera lisatu berria zeraman jantzirik, eta ezkerreko sakelari gorde zituen. Migelek ez zion ahalik lasterren egiteko eskatu; keinu errebes batzuk egin zituen begiekin, bereak faltesten zituela adierazteko.

- Un tanto ortopédicas -iritzi zion Arseniok-, teniendo en cuenta la complejidad de los acontecimientos que Pasternak relata en su novela. ¿Usted sabe qué libro acostumbraba llevar el Che en sus viajes?

Migelek ez zekien.

- *El Quihote* -erran zion lehenik; eta isilune baten buruan- y *La revolución rusa* de Leon Trotsky.

Ainhoarekin bat egin izan balu bezala, komandantearen izena atera zuen berriz ere Arse-

niok eta, itsasoan haizea zebilela probestuz, belak jaso eta txapelaren kontua aipatzeko gogoia egin zitzaion Migeli, baina neurritz kanpoko atrebentzia iruditzen zitzaion eta, gainera, ez zuen zaharraren aitzinean ahalkegarri gelditu nahi. Eskatzen hasi baino lehen, alderdi guziak hausnartu nahi zituen poliki.

Azken tanta edan eta, ireki gabeko botila baino isilago, Vladimir Ulianoven lurraldeetarako bidea hartu zuten.

- Existe un documental -azaldu zion zaharrak misterioz beterik- donde se observa al Che descendiendo de un avión proveniente de Moscú. Traho mala cara.

Aldaketa sakona behar zuen munduak, baina aspaldiko ereduak, Kubakoa barne, onenak emanak zeuzkaten, eta krisi sakonean murgildurik zeuden. Inguruko presio gogorraz gain, askatasunaren alde erabilitako borroka-motak ere sobera baldintzatzen zuen ondoren eraiki beharreko gizartea, eta kontradikzioz beterik jaio bertze erremediorik ez zuen izaten. Egitasmoetara doi egokitu ezean, arriskugarriak gertatzen ahal omen ziren bitartekoak, zeren...

- Los medios, además de inútiles, pueden ser desadecuados, desproporcionados, nosivos e incluso perversos, y usted mismo puede servirse los ehemplos.

Alderdi onak ukatu gabe, txertatu gabe beza-la ailegatzan ohi zen askatasuna mundu petral honetara, inperioaren etengabeko mehatxuaren aitzinean agintekeriak, hierarkiak, burokraziak eta, ondorioz, ustelkeriak sobera aise kutsatzen zuten luze baino lehen.

Azken txirrina entzun eta, sarrerako gortina astunak hedatu bezain laster, Zhivagoren etxera sartu ziren.

Oliba koloreko altzari lakatuak ikusten ziren inguruan. Aulkiaren bizkarra besarkaturik, ertza-
ren gainean burua, zaldun baten eran jesarririk zegoen Yuri, aurpegia zurbil, bakar-bakarrik. Baina David Leanek zer edo zer gehiago erakutsi nahi zion ikusleari; beraz, hiruzpalau urratsetan zeharkatu zuen doktoreak sala zabala eta, gortina gorrilun batzuk bildu ondoren, gandua kendu zion leihoko kristalari eskuarekin eta, horrela, Plaza Gorria miretsi ahal izan zuten habanarrek. Aitzinera jo zuen kamerak San Basilioaren basili-

kak pantaila osoa bete arte, eta koloretako tipula ortodoxoak, gero eta hurbilago, fantasiako izozkiak iruditu zitzaizkion Migeli.

Izarren azpian, alkoholez egindako suarena zirudien urdintasuna zerion elurraren azalari eta, bazter batean, muturreko bizarrak izozturik, zaldi batzuk zeuden zain. Ondoren, tren luzea agertu zen txistuka, eta otsargian, dagoeneko gauzez, argitasun gorri batzuk atzematen ahal ziren noizean behin. Elurra urtzen zelarik, ikuspegi ederrik ez zen falta, baina tren-geltokietako dekorazioa, konparazione, eramanezina gertatzen zen, eta Migel irteteko desiratzen zegoen.

Azken aitzineko sekuentzia, nolana dela, gorde zuen gogoan. Elkarrengandik urrun luzaro, zenbait urte gehiago gainean, Lara tranbian doa leihotik beha eta, bat-batean, Yuri agertzen zaio espaloian oinez. Oroiminez jarraitzen dio begiekin eta, halako batean, bihotzekoa eman eta lurrean zerraldo ikusten du kristalaren bertze aldean. Atea ireki eta kanpora irten nahi du, baina tranbia abian da, eta Moskuko karriketan galtzen du medikua betiko.

Argiak piztu zituztelarik, aharrausika ari zen Arsenio eta, zinematik jalgi ondoren, tarte luzea eman zuten elkarri fisik erran gabe. Garagardo bana proposatu zion zaharrak eta, huraxe edanez, filmari buruzko iritzia azaldu zion. Itxurarik gabeko *folletin* gogaikarria iruditu zitzaion. Ez zen Hollywoodekin fio, eta berriz irakurri nahi zuen nobela. Erranaldi bakarra gustatu zitzaion antza, eta buruan zeraman gorderik, baina zaharrak ahoa zabaldu aitzin, Migel menturatu zitzaion:

- «Mientras se extirpan los tumores malignos» -erran zion hitzez hitz- «hay que mantener al cuerpo vivo».

Ahalmen ezkuturen bat daukanari bezala geratu zitzaion begira Arsenio, harriturik, eta baietz adierazi zion.

- ¿Observó qué raros son los rusos haciendo revoluciones?

Elurrez estalitako lautada mugagabeak desegin gabe zeuzkan oraino Migelek begi-mintzetan, eta itsasertzeko palmondo harroekin eta barne aldeko landaretza trinkoarekin alderatu ziotuen. Olibaz jantzitako gerrillariak etorri zitzaiz-

kion gero gogora, ron baten aitzinean edo zigarro purua ezpainetan, eta boltxebikeak imajinatu zituen ondoren, vodka edanez mozkortu arte, hotza menderatu ezinik dantzan, eta armada gorriaren oihartzun sakona ere entzun zuen bere baitan kulunkatzen. Abesbatzaren marruma urruntasunean galdu ahala, salsa beroaren giroa itzulirik astiro, ostatuko leihoan pausatu zituen begiak. Ezkerreko aldean, zumitzez ehundutako besaulkian, ile zuriko amona beltz bat zegoen, kareizko lenteak begietan, egunkari zahar bat irakurtzen. Eta eskuinean, aitona zaharra zebilen pare bat kiloko anana aihotzarekin zuritzen.

Ernesto Che Guevarari buruzko materiala bildu behar zuen, eta Casa de las Américas zen leku egokiena horretarako. Virgilio Monteroren gomendiozko gutuna zeukan sakelan eta gauzak espero bezala bideratuz gero liburu sorta eta bideoren bat edo bertze eskuratuko zuela uste zuen. Ez zegoen urrun; oinez ere joaten ahal zen, baina fardel handi samarra gertatzen ahal zitzaion, beharbada, lepoan ekartzeko, eta Chevroletaz oroitu zen.

Newtonekin hitzordua egin zuen hotelaren aitzinean.

Ate nagusian zegoen Migel kristaletik begira. Ohi ez bezala, berant zebilen gidaria, eta errelojuari erreparatu zion behin eta berriz. Aspertu arte iraun zuen zain, eta azkenean telefonoz deitzea deliberatu zuelarik, eskuak koipez beterik agertu zitzaion txoferra, sosegurik hartzeko astirik gabe automobila izorratu zitzaiola eta bazter batean utzi behar izan zuela errateko, betilun. Aldameneko karrikan zeukan aparkaturik; beraz,

bertze zereginik gabe, elkartasuna adierazteko bertzerik ez bazen ere, Newtonekin abiatu zen.

Aitona zahar bat zegoen espaloira ateratako aulkian zaindari, eta giltza finkoak eta ingelesak ikusten ziren lurrean barreiu automobilaren inguruan. Ahotzar bat irudi, altxaturik zeukan kapota, eta arretaz erreparatu zion Migelek motorrari. Noizbait, azaldu zion Newtonek, aski izaten zuen bujiaren bat berritu, polearen bat paratu edo txinboren bat aldatzea, baina denboraren poderioz torloju bakar bat ez zeukan bererik, eta motorra kexu zen.

Atzerrian egindako automobilak ziren bertan zebiltzan gehienak, eta ordezeko piezak eskuratzeari izaten zen lan zailena. Txatartegietan metatutako automobilak miazera hurbiltzen omen zen, eta itsasontzi txipiren bat desegin berri zutela jakinez gero ez zuen bisita egin gabe utziko. Errepide bazterrean atzendurik zegoen traktore bati esker zebilen Chevrolet zaharra, eta etxeke garbigailu zaharraren piezak ere egokitu behar izan zizkion behin.

Erreminta eskuan, metalezko dragoiari hortzak konpontzen ari zitzaion dentista saiatua

ematen zuen Newtonnek. Eskuak sakelan, albotik beha, enbarazu bertzerik ez zion egiten Migelek; ez zen bere bizikletari katea paratzeko gauza, eta ez zion erranen zein tripa puskatu zitzaion.

Airean ikusi zituen goiz hartako asmoak.

Hala ere, bazegoen denbora, eta biharamunerako utzi gabe egin nahi zuen Ainhoaren enkargua, atzendu baino lehen. Egonean asperturik, etorritako bidetik egin zuen alde eta hoteleko terrazan hartu zuen atsedena. Egunkari bat edo bertze izan ezik, ez zuen azken aldian deus irakurri, eta libururen bat eskuratzeko gogoia egin zitzaion. Zerbitzaria, hau da, unibertsitateko irakaslea irudi zuen aitona agurgarria inguratu zitzaiolarik, berari galdetzea otu zitzaion non erosten ahal zuen libururik. Baina lehenik kafea eskatu zion, eta bi izotz puska botatzeko ere bai. Ordu laurdena ongi bete arte ez zen agindutakoa erreklamatzeko menturatu. Zerbitzaria aldame-neko mahaia jasotzen ari zela probestuz, kafearena oroitarazi zion ahalik apalen.

- Ya lo escuché, compañero.

Ez zion, beharrik, barkamenik eskatzeko agindu. Migeli, langilearen harrotasunaren aitzia-

nean herabe, gupida eman zion bere buruak. Oharrak eragina izan zuen eta, handik pixko batera, edaria mahai gainean zeukan. Hustu zuen baso luzea eta, ingurura begira, *Únicamente poesía* irakurri zuen parez pare zeukan dendan. Edaria ateratzeko baino hagitzez arinago ibili zen zerbitzaria kontua ekartzeko orduan eta Migel, dirua utzi eta karrika zeharkatu ondoren, dendan sartu zen zokoak harrotzeko asmotan. Atalburuak adierazten zuen moduan, olerki liburuak ziren gehienak. Eliseo Diego izeneko idazleak argitara emandako obra bat hartu zuen esku artean. Idazleak berak sinaturik zetorren aitzin-solasa eta, irakurtzeari ekin behar ziola, itsasoak eta ronak marrantatutako ahots sakona entzun zuen gibelean.

*...apártenme esos espehos
que la muerte presume...*

Arnas sakoneko hitzak ziren, baldinbaitere, baina Migelek oraino ez zekien zein belarritatik ari zen entzuten. Itzuli zelarik, haizegoak pizturik zirudien bizardun batekin egin zuen topo eta Ni-

colas Guillen, Dulce Maria Loynaz, Jose Lezama Lima eta bertze hiruzpalau autore gomendatu zizkion bihotzaren erditik, zeren...

- Escuche, compañero -erran zion gogaideta-suna erakusteko asmoz-, yo también soy forofa de la poesía.

Olerkia tentsio altuko literatura iruditzen zitzaion eta, adibide gisa, bere azken lanaren berri eman nahi zion. Edozeinek bazekien milioi bat sei zerorekin idazten zela, baina hamarra sei aldiz berretuz gero, bat-bateko goi-argitasuna ematen zuen aditzera, eta bizitzaren barne-muinetan biltzen zuen arima. Nolanahi ere, arrunt garai errebesak omen ziren olerkari batendako eta, atsekabean lagun azaldu zitzaion.

- Usted debe de escribir también..., ¿o me confundo?

Ezetz ihardetsi zion, ez zuela idazten, baina liburu-denda batean egiten zuela lan. Jakin-mina piztu zitzaion olerkariari. Urtean zenbat liburu berri argitaratzen ziren, ale batek zenbat balio zuen batez bertze, egilearen eskubideengatik zenbat jasotzen ahal zen eta bertze mila gauza azalarazi zizkion eta, azkenean, bigarren eskuko

libururik saltzen ote zuten egin zion galde. Migel-
lek erran zion apal batzuk bazituztela horretara-
ko bereziki, baina eskaria murriztua zela, eta
kentzekotan zeudela.

Aspaldi ari omen zen habanarra Migel bezala-
ko lankide baten bila, eta sekulako mahuka zeu-
kan berarendako, zeren...

Armen plazako arkupetan *libro de vieho* sal-
tzen omen zen egunero, eta dendari gehienak
lagun zituen. Edozein titulu topatzen ahal zen
bertan eta, nahi izanez gero, hamar aldiz mer-
keago eskuratuko zizkion, zeren...

Bazeukan itsasoan zebilen lehengusu bat,
eta urtean lau aldiz Bizkaiko Golkoan ematen zi-
tuzten zenbait egun; sotoa bete liburu igortzen
ahal zion itsasaldi bakoitzean.

Izugarri estimatu zion bereganako konfian-
tza, baina ez zeukan konpromisorik hartzerik li-
buru-dendaren jabearekin kontsultatu gabe, ez
zuen deus ere deliberatzen ahal. Aldi onari atza-
parka lotu behar gatzaiykiola oroitarazi zion so-
laskideak, eta errefrau zaharrek ez omen zuten
gezurrik erraten. Pazientziaren mugetan zebilen
orduko Migel, eta agurraren lehen peonak hasi

zen mugitzen. Olerkariak ez zuen amore eman nahi eta, partida galdu baino lehen, bertze alde batetik jazartu zitzaion:

- Usted ha de saber, por otra parte, que también soy colesionista numismático; de modo que, sin ningún compromiso, por supuesto, si usted pudiera presindir de alguna moneda, de algún seyo postal...; en fin, perdone si lo molesto.

Elkarrekin irten ziren dendatik eta, diskrezioz badaezpada, ehun pezetako bat eta lau edo bortz txanpon eman zizkion eskura. Olerkariak ez zuen hitz egokirik topatzen zenbat estimatzen zion erakusteko, eta hori, kubatar baten kasuan, arraro samarra ez ezik kezka garria ere izaten ahal zen; horrela, bada, neurritz kanpoko esker-rak alde batera utzi eta presaka zebilela erran ondoren, Newtonen bila abiatu zen aldapan beheiti.

Automobila zegoen lekura heldutakoan, ez zuen inor ikusi bertan, eta bidean gurutzatu ote ziren pentsatu zuen hasmentan. Gero ukondo bat atzeman zuen Chevroletaren azpian ageri, eta egoera larria zela iruditu zitzaion. Oin bi ikusi

zitzen mekanikariak motorraren aitzinean eta, adiskidea ezagutu zuelarik, kanpora jalgi zen fite. Aurpegia koipez zikin, trapu zahar bat zera-bilen eskuetan, eta esperantza gabeko keinua atera zitzaion. Migelek errelojuari erreparatu zion; baita Newtonek ere, baina ez zeraman eskumuturrean, eta ez zuen zer ordutan bizi zen jakiterik izan. Kopetan goiti joan zitzaizkion bekainak Migeli, eta habanarrak azalpen bat eman behar izan zion, zeren...

- Se me escacharró.

Alamar izeneko auzotik hurbil zegoen hondartzara joan omen zen bezperan mulata zoragarri batekin, eta olatuekin jolasten ibili ziren arratsalde osoan. Itsasora sartu aitzin, lehengo erreloju zaharra zeukalakoan, eskumuturretik kendu eta poltsikoan sartzeko asmotan hasi zen, baina Migelekin aldatutakoa zela oharturik, ez zuen gorde. Urpean erabili ahal izateko moduan egindakoa zela erran zionez, soinean zeramala murgildu zen. Itsasazpiko arrainak ikusten aspertu eta gero, lehorrera irten eta bina daikiri hartu zituzten guanozko babes baten itzalpean. Arrats apal, automobilean sarturik, bazter lasai-

ren baten bila abiatu ziren jolasean jarraitzeko, eta zirkuko kontortsionisten eran jardun omen zuten gibeledako jarlekuan gaua lurraren gainean pausatu zen arte. Mundura jaisteko tenorea zela konturatu zirelarik, errelojuari begiratu zion Newtonek. Ezin izan zuen orratzik ikusi, ganduturik zegoen kristalaren azpiko barnealde osoa.

- ¡Tremenda catástrofe!

Oraino ez zuen konpondu, baina automobila abian paratzeko gauza baldin bazen, nola ez zuen, bada, gandu hondar bat barreiatzen asmatuko? Automobilaren giltzari eraginez arrankatzen saiatu zen mila bider, baina ito egiten zitzaion; berriz ahoz goiti etzanik, herrestan giberatu eta Chevroletaren azpian galdu zen.

Alde egitea deliberatu zuen Migelek.

Hotelerako bidean, liburu-dendan ezagututako endredamakilarekin egin zuen topo bigarren aldiz. Arestian izandako solasarekin aski bazuela iruditu zitzaion, eta aitzakiaren bat asmatzen saiatu arren, makurtu egin zitzaizkion asmoak. Jose Antonio Echevarriari, hau da, iraultzaren alde jausi zen lehen martiriari eskainitako oroitarria ezagutu nahi zuela erran zion Migelek.

- Eso está hecho -ihardetsi zion olerkariak-,
estaba seguro que usted era de los nuestros.

Hurbildu egin zen, ikusterrean. Unibertsitateko ikasle baten aurpegia zeukan, lenteak eta guzi, baina jaioteguna irakurri zuen Migelek oinarrian eta kontuak atera zituen; hiruretan hogeita bi urte izanen zituen, bizirik balego.

Aitzindariari so, aitorpena egin zion laguntzaileak:

- Entiendo su desconfianza, pero no soy lo que usted supone.

Turismo Saileko funtzionarioa zela eman zion jakitera: aberriaren etsaiek ez zutela amore ematen sekula, eta adi egon beharra zegoela, inoren mende jausi gabe irauteko. Guantanamo berean zeuden yankiak, eta oporraldi baten aitzakiarekin iraultzaren kaltetan saiatzen ahaltzen Iparraldeko edozein mertzenario zital, zeren...

- ¡Estamos amenasaus!

Horregatik, jenero txarrarekin gogor eta mundu osoko lagunekin atsegin portatzea maite omen zuen kubatarrak, eta zalantza izpirik izan ez zezan, gonbita egin nahi zion Colina hotelean

berean, adiskidetasunaren izenean elkarrekin topa egiteko.

Ate nagusia zeharkatzean *¿Cómo le fue, Ricardo?*, erran zion taxiak gobernatzen zebilen atezainari; ataria gibelean utzi eta Migelen ondolik aldendu gabe, *¿Dónde tú te escondes, Ramonita?* galdetu zion harreragile bati; eta barraren aitzineko aulkira igo baino lehen, *¡Tiempo sin verte, Lásaro!* erran zion zerbitzariari agur gisa.

Olerkariak, bildumagileak, funtzionarioak edo dena delakoak kubalibrea eskatu zuen eta Migelek mojitoa. Baina batzuetan gauzak ez dira irudiduten bezalakoak izaten, zeren...

- ¡No te quiero más ver por acá, pendeho!
-erran zion gonbidatzaileari kafetegia-aren ardura zeraman kapitain nagusiak errukirik gabe eta bekozko, behakoa trebeska.

Inozo aurpegia paratu zitzaion hasmentan Migeli.

Baina luze gabe pentsatu zuen *Lásaro*, *Ramonita* eta *Ricardo* asmatutako izenak izaten ahal zirela edo, bertzenaz, kafetegiko arduraduna, komisioren bat bitarteko, tartean ibiliko zela azpilanetan.

Jende argia zebilen Habanan, Migelek ordaindu behar izan zuen olerkariarena.

Oraino bazeukan aski mojito bertze tarte baterako eta, ontzia eskuan harturik, terrazara jalgi zen sortutako giro nahasitik ihesean. Aulkian jesarrik, gose dagoen katuaren marrua sumatu zuen tripetan eta, zerbitzaria hurbilean zela probestuz, *Aporreado de tasaho* eskatu zuen, zer zen jakin gabe.

Goizeko kafea baino bizkorrago ekarri zioten eguerdiko legea eta, akitzen ari zela, Newton ikusi zuen, koipez beterik, urrunean zetorrela.

Garagardo botila txipi bat edan zuen tragoan, baina ez zion jatekorik onetsi. Automobilarekin ez zuen karrerarik ateratzerik izan, eta haserre zegoen. Infernuko deabru beltza ematen zuen. Etxera omen zihoan, berehala dutxatu eta gaineitik beheiti aldatzeko.

Goiza hutsean joana zitzaion Migeli, baina hitzordua lotu nahi zuen zorioneko Casa de las Américas hartara behingoz heldu eta Ainhoaren enkargua behar bezala betetzeko.

Sugandilak larrutzeko moduko sapa errukigabea baitzen Habanan, bazter-bazterretik ibili zen hiriko espaloietan. Onbuak, zeibak, palmondoak eta elefantearen oina irudi zuten zedroak bereizten ikasi zuen Migelek oinezkoei galdezka.

Ilunabarrean, atsedenaldirik baten premian, Vedado erraten dioten alderdi dotorean zebilela, *El Gato Tuerto* irakurri zuen goiburu batean, eta egarria egin zitzaion. Ateko gortinak bildu eta barneratu zelarik, ustekabearen harrapatu zuen freskurak, baina aldi berean izerdiarekin nahasitako lurrinaren usaina hasi zitzaion sudur-zuloetatik sartzen. Argi motel batzuk bazterretan, tertziopelo gorriarekin jantzirik zeuden hormak. Ilunpetan ia, apaletako botilak baizik ez ziren ikusten ahal. Oin luzeko aulki batean jesarri eta begiak ohitu ahala, kanelaren, tabakoaren eta errautsaren koloreko bezeroak agertu zitzaizkion, gero eta nabarmenago, barraren gibeletako ispiluan.

Antigoaleko gramola dotore bat atzeman zuen zoko batean. Izenen arabera, bertako taldeak ziren gehienak; ez zuen Antonio Machin bertze inor ezagutzen. Eskua sartu zuen poltsikoan eta oinetakoen lokarriak sekula lotzen ez zituen komandantearen aurpegia ikusi zuen txanponaren gainean zigilaturik. Ulertzen zaila egiten zitzaion paradoxa errebesa sumatzen zuen diru hartan. Aunitz atzerritako elastikoetan, posterretan eta eskolako koadernoetan bezala, Kubako diruak ere haren irudia zeraman.

Aparatua abian, diskoaren maniobrari erreparatu zion. Melodia hasi aitzin gizonezko gazte bat hurbildu zitzaion solas bila. Ez zuen susmorik ateratzeko batere arrazoirik, baina, arrotzaren paranoiak bitarteko, dolarraren usainean edo Barne Sailaren agindura zetorrela egin zitzaion.

- ¿España?

- Vasco -erran zion sustrai gabeko atzerritar kaskarinaren gisa portatzeko tentazioari amore eman gabe.

Bekainak harrotu zituen kubatarrak eta, Newtoni ez bezala, Espainia, Frantzia, Euskal He-

rria... eta bertze mila lardabiori buruzko ikuspegi orokorra eman behar izan zion.

- Eso significa que ustedes se comunican ¿en español o en francés?

- También en vasco.

- Escuche, compañero, usted debió naser en la torre de Babel. ¿No traho alguna gramática, algún disionario...?

Ihes egin ahal izateko desenkusa asmatzen saiatu zen; baina ez omen dago txiripa gabeko pasadizorik, eta barraren bertze muturrean, zeharka begiratzuz, Aleida ezagutu zuen. Adiskide giroan ematen zuenez, Migel ez zen menturatu beregana, eta ordaintzera zihoalarik, Aleida bera hurbildu zitzaion, bakarrik ote zebilen galdez.

Elkarrekin irten ziren karrikara, Habana Zaharrerako bidean. Etxeko mandarrarekin jantzi-tako emaztekiak eta elastiko gabeko gizona-ak ikusten ziren balkonetan freskuraren peskizan. Katedral kolonialaren ondoko terraza batean hartu zuten atsedean libre ageri zen mahaia-aren inguruan.

Aleida erizaina zen operazio-gela batean, eta ospitaleko lankideak ziren barran berarekin sola-

sean zeudenak. Aste hartan arratsaldeko txanda egokitu zitzaion eta, lanetik irten ondoren, gibelean utzi berria zuten ostatuan bildu ziren urtemuga baten aitzakiarekin. Gustura zegoen lanean, baina ez zuen edozein hoteletako igogailuan goiti eta beheiti zebilen morroiak baino gehiago irabazten, eta amorrua ematen zion: *No hay derecho*. Ozeanoaren bertze aldean halaxe gertatzen zen jakin nahi zuen. Edaria eskatzeko zeukaten oraino, eta parentesia egin zuten zerbitzaria mahaitik aldendu arte.

- Ahora, Miguel -erran zion orduan Aleidak-, sería bueno que tú me preguntaras, por ejemplo, si tengo gana de tomar alguna cosa.

Triple sec bat nahi zuen, eta añejo luzea eskatu zuen Migelek. Liburu-denda batean urteak zeramatzala kontatu zion, baina beldur zela ez ote zuten kanpora igorriko berak nahi baino lehen. Akitzeko arriskuan zegoen leinua zen irakurlearena; aldizkarietara eta ikasleendako fotokopietara esker bizi ziren. Ogibidez aldatzeko tenorea ez ote zitzaion heldu ari zen hausnartzen azkenaldian eta, korapilo hori eskatzeko sosegu bila,

bidaia bat egitea egoki izaten ahal zela deliberratu zuen.

Izarren azpiko solasean, osabaren galdea egin zion Aleidak.

Nortasun handiko pertsona ez ezik hitz aspertuan jarduteko ere mintzaide ezin egokiagoa iruditu zitzaiola eman zion jakitera Migelek.

- Un buen jodedor -erran zuen ilobak.

Migeli ohiz kanpoko adierazpena iruditu zitzaion osaba batendako, baina irri egin zion erizainak; solasean ongi konpontzen zen edozeini deitzen zitzaion modu horretan Kuban. Adieraren nahasteak eragindako giroan, maitasunari buruzko kontuak ere azaldu ziren eta, galdera zehatzetatik urrun eta erantzun garbirik gabe, bihotzean maizterrik ez zeukala adierazten saiatu zitzaion bata bertzeari. Aldamenekoaren gezurra sumatzen zuen Migelek, baina bera ere tranpi koxkorren bat gordetzen ari zen; egiak denbora behar izaten du azaleratzeko, eta zerbitzaria bueltan zetorrela probestu zuen denbora puska batean isiltzeko.

Edariaren bizigarriak konfiantza eman zion Aleidari, eta Arsenioz gainera aspaldiko asaba

zaharrak ere hartu zituen ahotan. Asturiasen jaioa zuen amaren aitona, eta ez zuen zahartu nahi itsasoz bertze aldeko familia ezagutu gabe.

Nahiz urrun samarretik abiatu, Migelek ez zuen bere burua asmo ezkuturen baten aldeko sareetan nahasirik ikusi nahi, eta bere itzalaren azpian galdu zen ezarian. Istant bat bertzerik ez zuen behar izan Aleidak lagun berria zertan zebilen jabetzeko. Aspaldi zekien landareak ez direla tiratuagatik goizago heltzen; beraz, hedatu berri zuen jokaldia gibelera bildurik, *No es fásil* erran zion, zeren...

- Tú sabes..., sin este terronsito de asúcar, lejos de mi cocodrilo verde, debe de haser mucho frío.

Aitzina zihoazen orduak, eta Migeli akidura ari zitzaion metatzen, baina handik lekutzeko gogorik ere ez zuen. Bazekien giroaren berotasun lodiak ez ziola gau hartan lo hartzen utziko.

Aldian behin ordu txipiren bat jotzen zuen katedralaren dorreko kanpaitzarrak, eta hotelera itzultzeko autobusik gabe geratu arren, ez zen sobera larritu. Etxera erretiratzerakoan, kortesiak agintzen duen bezala, lagun egin nahi ziola

erran zion erizainari, eta denboraren axola gabe abiatu ziren elkarrekin. Azken tragoa proposatu-ko zion ostaturen bat zabalik harrapatuz gero, baina denak itzalirik zeuden orduko.

Trocadero karrikara iritsi ziren eta, zopa-on-tzia irudi zuen balkon dotore bat ikusitakoan Aleidaren etxeko atarian zeudela konturatu zen. Ez zuen zintzilik gelditu nahi, eta taxi bat bilatzen hasteko tenorea zela aipatu zion.

- Incapturable -irri maltzurra sortu zitzaion erizainari ezpainenetan.

Debaldetan zebilela konturatu zen Migel. Oinez abiatu bertze erremediorik ez zeukan, eta patuaren eskuetan utzi behar izan zuen bere burua, zeren...

Etxean ba omen zegoen lekua franko, eta igotzeko gonbita egin zion Aleidak.

Irrikatzen zegoen, baina plantak egin zituen, alegia, ez zuela konpromisoan paratu nahi. Hote-la, gainera, ez zegoen hain urrun. Urrats bat gi-belera eta aitzinera bi egiteko prest zegoen Migel, baina erizainak ez zion astirik eman, es-kaileretan goiti eramanean zuen besotik heldurik.

Eskuak sakeletatik atera eta besaulki batean jesarri zen Migel, gauzak argitu zain. Aleidaren portaera aztertu nahi zuen nola jokatu deliberratu baino lehen. Etxera heldu bezain fite, ordea, komunera sartu zitzaion, eta asmatu ezinean ibili zen. Kokotsa igurtzi, izterrean hiruzpalau zarta eman eta zurtzuilean bildu zituen besoak nagiak kentzeko. Sofaren gainean etzatea ere otu zitzaion, baina ez zuen nabarmen gelditu nahi, eta *Partagas* bat piztu zuen.

Amaiezina gertatu zitzaion egonaldia eta barrandan ibili zen. Noizbait ate kirrinka entzun zuen, eta zimikoa sortu zitzaion zilkoaren gibellean. Pausoak aditu zituen gero eta hurbilago pasilloan barna, eta aldizkari baten babesean gorde zuen burua Migelek. Ustekabean harrapatu dutenaren plantak egiteko prest zegoen, baina abiatu aitzin egongelako argia itzali zion Aleidak eta, begiak goratu zituelarik, oinutsik, atearen erroan zeukan zain.

- Escucha, chico, como ya tú no te des prisa...

Eskerrak eman zizkion zeruari ilunpetan egon izana, zeren...

Ez zuen ispilurik behar izan gorri-gorri zegoe-la jakiteko eta, bere onera etorri zelarik, etxeko maizterra ez zegoen atean.

Ausardi hondarra bilduz, erizainaren gibeletik abiatu zen, argia pizturik zeukan logela bakarre-ra.

Ekialde urruneko irudiz apaindua zegoen bionbo zahar baten bertze aldean ezkutuka zebilen Aleida. Etxeko patioan arropa zintzilikatzen ari balitz bezala, blusa, galtzak, bularretakoa eta kuleroak paratu zituen bederazka bionboaren goiko ertzean eta, aldian behin, oin bat, belauna, ukondoa uzten zuen agerian.

- Aguarda un tanto, Miguel -proposatu zion bihurri-, que ya tú vas a ver cómo adivino el color de tus matapasiones.

- Acabo de comprármelos en unos almacenes, cerca del Malecón.

- Entones es fácil. Sólo hay seis modelos en venta, que yo sepa.

Elastikoa erantzi zuen Migelek; nahi baino denbora gehiago eman bide zuen ahaleginean eta, burua lepotik atera zuelarik, biluzik agertu zitzaion parez pare. Pauso bat eman zuen aitzi-

na; gerrikoa askaturik zeukan orduko eta, bidea-
ren erdian, orkatiletara irristatu zitzaizkion gal-
tzak. Igarkizunak atzendurik zeuzkan, baina eri-
zainak ez zuen parada alferrik galdu nahi izan,
eta jolasari jarraitu zion:

- Lo mismo da que hagas trampas, mi amor.

Irritsaren mugetan, ez zegoen galtzontziloen
kolorearekin distraitzeko moduan, eta ez zion so-
bera kasu egin. Ohantzean sartu eta, elkarren
usainekin mozkorturik, zirrara luze baten zurrun-
biloan murgildu ziren, desioaren mende zamal-
ka. Emazteki guziak ez dira berdinak, zeren...

Inolako zalapartarik gabe hasperen egiten du
batek, eta bertzea, aldiz, irudi du gertakaria irra-
ti bidez ematen ari dela.

Aleidak, olatua lehertzeko zorian, aparraren
gozotan ezin laketurik, *isándalo!* erraten zuen
behin eta berriz:

- ¡Sándalo selesté!

Sosegu hartu zutelarik, bataren besoa ber-
tzearen bururdi, nor bere baitara itzuli zen. Ez
zion sandaloaren berri eskatu; biharamunean
ere edukiko zuen aukerarik. Baina oheratu aitziz-
neko igarkizuna ere argitu zain zeukan, zeren...

Ez zitzaion buruan sartzen planteamendua.

Nola asmatzen ahal zuen ezagutzen ez zuen zerbait? Urteetako ezjakintasuna baino samurragoa omen da istant bateko ahalkea; beraz, loak hartu baino lehen, bere galtzen azpiko misterioaren berri galdetu zion.

Irratia entzuteko eta hotsa grabatzeko ere balio zuen traste zaharra zegoen apal baten gainean, eta hura pizteko agindu zion Aleidak. Ohantzetik jaiki eta *play* zanpatu ondoren, bera-rengana itzuli zen azalpenaren esperoan. Ezkurtukoak argiturik, ikuskizuna errematatzeko giro egokiaren bila zebilela uste zuen Migelek, eta bolero, mambo edo bertze salsaren baten zain geratu zen, baina ez zegoen halakorik. Aparatua abian, ohaidearen ahotsa ezagutu zuen orkestra baten ordeztan, eta bere irri maltzurri begira hitzok entzun zituen:

- Se me hase que son..., azul selestes con estreyitas plateadas.

Izarrak lokatu eta lurrak ikaran paratzeko moduko harridura egin zitzaion keinuan, nahiz eta ez zegoen zertan Sherlock Holmes izan hainbateko korapiloa askatzeko. Aski izaten ahal zen

galtzak behar baino beheitiago edo elastikoa behar baino goitiago eramatea galtzontziloa agerian uzteko; baina zer arraio egiten zuten hitz haiek grabagailuan gorderik bere zain? Ihar-despenaren premia nabarmendu zitzaionez begietan, hitza atera aitzin muxu batez mututu zuen erizainak. Arrunt unaturik omen zegoen eta, *Mañana, Miguel* erran ondoren, bizkarra eman zion.

Argia itzali eta denbora puska batean ez zuen loak hartu. Aldian behin automobil baten argitasunak harrapatzen zuen gela barnea, eta Aleidaren gorputz beltzarana uzten zuen agerian. Berari bezala giroari ere izerdi fina zerion, eta arnas sosegatuak gau osoarena irudi zuen. Ez zekien zein ordutan bizi zen, baina ez zuen ematen hainbertze falta zenik eguna argitzeko. Leihoak ikusten uzten zuen zeru puskan beltzak urdin bihurtzeko zorian zeuden, eta distira galitzen ari zitzaion izarren zilarrari.

Iratzarri zelarik Aleida ez zegoen bere ondoan. Baina haren usaina zerion oraino maindireari. Argia, nabalaren ahoa irudi, leiho-ordearen zirri-tuetatik ari zen sartzen. Ohantzetik jaiki, galtze-tako sakelatik *Partagas* paketea atera eta ziga-rroa piztu zuen. Irrati zurrumurrua zetorkion etxeko bazterren batetik eta, barrandan, sukal-dera hurbildu zen: bertan zeukan, mandarra soi-nean, biluzik. Atean begira gelditua zitzaiola jaki-nagatik, Aleida ez zen itzuli; beraz, gerturatu eta burua lepoan pausatu ondoren, gerritik heldu zion. Oinetakorik gabe, baldosaren gainean epel, izerdiaren berniza zeraman larruazalean itsatsi-rik. Apal bati beha, zerbaiten bila zebilen erizai-na. Tentazioari eutsi ezinik, gibelean zeraman xi-ristiloa laxatzen saiatu zen, baina ez zion utzi.

Juguito de toronha eta *sendos puchitos de café* paratu zituen mahaian. Aulkian jesarri eta sosegatu bitartean, Migeli jakin-mina ari zitzaion zirika, eta bezperan erabili zuen trikimailuaren berri galdetu zion.

Zeruak eta lurrak nahasi zituen egia erran baino lehen: Ogun eta Changoren itzalak luzeak zirela alegia, eta yoruba batek ez zituela aspaldiko sekretuak argitara ematen ahal. Isilpean gorde beharreko kontuak omen ziren, itsasoa irauli eta eguzkia itzaltzeko arriskua zegoela bertzenaz. Migelek ez zuen etsi, eta Aleidak bere tranpi koxkorrak aitortu behar izan zizkion noiz-bait ere.

Oilasko bat akabatu eta odola edanaraziko ziola pentsatu bazuen ere Migelek, armairu baten atea irekitzeko eskatu zion lehenik eta behin. Arropaz beterik zegoen, eta sonbrero bartzuk ere bazeuzkan. Te koloreko pamela zabala ekartzeko agindu zion. Azpian zer zegoen miatu eta txartel bat kausitu zuen, lelo bat zekarrena letra larritan idatzirik. Eskua luzatu zuen Aleidak, eta ez zion irakurtzen utzi.

- Pongamos que son carmelitas.

Portzelanazko hautsontzi handi bat zegoen mahai txipian, eta azpiko oharrean *Se me hase que son canela* iragartzen zuen. Horma gainean zintzilik zeukan Ama Birjina beltzaren irudiaren gibelean *Como que fueran verde cotorra* para-

tzen zuen. Apalean liburu bat bereizi eta bere le-
kutik atera zuelarik, bertze mezu bat topatu
zuen orrien artean gorderik: *Asul turqui*. Azkena
bere mandarraren poltsikoan sarturik zeukan,
eta *iColor salmón, sin duda!* erran zion belarrira.

Adar jotzearen aitzinean bere burua defendat-
zeko eskubidea probestu behar zuen eta, bi
aldiz pentsatu gabe, mandarraren xiristiloa aska-
tu zion gupidarik gabe. Etxean barna ibili zen
ihesi, deabruak jarraituko balio bezala, eta
Migel, nora jo ez zekiela, gelaz gela eta bazterrik
bazter saiatu zen bila. Hatsa kexu, ate baten gi-
belean ezkutaturik aurkitu zuen azkenean eta,
irriak hasperen, besaulki zahar baten gainean,
iragan gauean ohantzean bezala, *Sándalo, sán-
dalo selest*e erraten zuen gailurraren zorabio go-
zoan, eta hutsa falta izan zitzaion Migeli irrintzi-
ka hasteko.

Atsedean hartu bitartean, Aleidaren erran mis-
terioitsua entzuten zuen behin eta berriz bere
baitan; hortaz, indarrak bildu eta herabetasuna
atzendurik, galdetu egin behar ziola deliberatu
zuen; baina ahoa zabaldu aitzin kendu zion
hitza: lente berriak zertan ziren jakin nahi zuen.

Arseniok ez zion egun zehatzik eman; iragan astean hartu zizkion neurriak, eta laster ikusiko zuten berriz elkar. Irrikan zegoela erran zion Aleidak, eta Migelek, oharkabean, ordezeko parearen erantzi eta lurretik galtzak eskuratu ondoren, zapi zuria atera zuen sakelatik kristalak garbitzeko.

Etiketetik alde egin eta bere bakardadea atsean hartuz eramateko beharra zeukala deliberratu zuen Migelek. Bainugelari sartu eta dutxatu egin zen lasai. Auskalo zenbat denbora eman ote zuen, baina ordu laurdena baino gutxiago ez, irratia pizturik zegoen eta *¡Ojalá!, Mamá yo quiero saber, Aprendimos a quererte, Pintor que pintas iglesias* eta *Yolanda* aditu ahal izan zituen zaparradaren azpian. Orraztu eta kanpora irtenda koan, besaulkian jarraitzen zuen Aleidak; kontu berezi bat erran nahi zion aspaldiko partez, zeren...

- Miguelsito, es preciso que tú me ayudes un poquito nada más.

- ¿De que se trata? -galdetu zion Asturiasen jaiotako arbasoa ahantzi gabe.

- Anteayer estuve en los almacenes del Hotel La Habana Libre... y recién salió nueva promoción de grabadoras.

- ¿Y ésa de ahí? -aitzineratu zuen hatza gal-tzontziloen kolorea asmatzen zekien aparatua erakusteko.

- Es trisentenaria, y susede que dispongo de algunos dólares.

Errukia egin zitzaion bere buruarenganako Migeli, eta isatsa zangartean gorderik, bizpahiru kolpe eman zituen bihotzari dagokion parean damuaren ikusgarri. Zer erraten ahal zion kontsumo porrokatuaren zorabioaren erdian bizi zen europar txoriflauta batek Habanako alaba bati, behar zuen eta behar ez zuenari buruz?

Deus ez.

Hortaz, laguntza eskaini zion edozertarako; dolarrak gobernatzen zituen merkatu beltzak, eta bertako jendeak ez zuen atzerritarrendako dendetan erosteko baimenik. Aspaldi omen zebilen horrelako aukera baten zain, eta berehala joan nahi zuen. Migelek ez zekien ezetzik erraten, eta alde batera utzi zituen bere bakardadearen gutiziak.

Egoera soseguz hartzen saiatu zen, zein gizon-ek ez daki zenbat denbora ematen duen emaztekiak apaintzeko lanetan? Denbora-pasa, lur gaineko baldosak zenbatu zituen lehenik, eta esparruaren metro koadroak kalkulatzeko ere entrentenitu zen. Iragan eguneko maskorrek hartu zituen gero apaletik, baina burua jiratu zuelarik gelaren erdian zegoen Aleida. Artoaren koloreko soinekoa gainean, takon luzeko zapata zuriak oinetan eta irria ezpainetan, itzuli oso bat egin zuen bere ardatzean.

Karrikara irten zirelarik, itsasotik zetorren haize susmagarria zebilen balkonetan zintzilikatuturik zegoen arroparekin jolasten, eta erratz ikusezinak eragiten zituen zirimola txikiak atzematen ziren lurraren gainean. Ateri egonagatik ohi ez bezalako hezetasuna zegoen giroan. Antxetak ihesi eta hodeiak gibeletik, ematen zuen une batetik bertzera lehertu behar zuela eguraldiak. Eta halako batean oinaztura zital batek pitzatu zuen zerua. Hainbateko ortotsak entzun ziren gero eta sarriago hodeien gaineko solairuan ozen.

- ¡Aguasero! -erran zuen goiti begira aitona batek.

Euri-tanta apal batzuk hasi ziren jausten, eta luze gabe suilka ari zuen. Ordu erdiren bat baino iraun ez zuen arren, pelaturik utzi zituen. Arro-pak pega-pega eginda, soinekoaren azpikoak agerian geratu zitzaizkion erizainari, eta Migelek elastikoa erantzi eta bihurritu egin zuen behar bezala xukatzeke.

Hoteleko atarian sartzean, zaintzaile batek zeharka begiratu zion Aleidari. Diplomatiakoaren plantak egin zituen Migelek eta, horregatik beharbada, ez zioten deus erran. Alderdi guzietatik etorritako turistak zebiltzan, trastez beterik, goiti eta beheiti edo taxiren bat noiz helduko. Esparruan barreiu, palmondoak eta landare tropikalak zeuzkaten eta, noizean behin, mezuren bat entzuten zen bozgorailuetatik. Afrikarren eremuan margotutako irudiz apaindurik zeuden hormak eta, ukondotzar baten eran, egur ilunez egindako eskailera patxadosoak ere bazituen goiko kafetegira igotzeko.

1959ko urtarrilaren lehenengo egunean, Fulgencio Batista eta bere gizonak bi oin baino

gehiagorekin jaió ez izana faltetsi izan zuten ziu-
rrenik eta, ihes egin ondoren, gerrillariak Haban-
nan sartu zirelarik, eskailera hartan goiti igan
omen ziren Camilo Cienfuegos eta lagun bizar-
dunak zaldietatik jaitsi gabe, zeren...

Ipar Amerikako Hilton izeneko kateak gober-
natzen zuen garai hartan hotela, eta bertan
zuten ostatu etxeko jauntxo salduak eta kanpo-
ko yanki harroek.

Handik harat, eguzkiaren erasoak, itsasoaren
kresalak eta euriaren emanak beren lana egin
zuten, eta erreboluzioak -horrela azalduko zuen,
beharbada, Ainhoak- jendeak bezala, gaixotasu-
nak harrapatzen zituen noizean behin: batzuk la-
rriak, bertze batzuk arinak; batzuetan kanpoko
erasoak zirela medio, bertze batzuetan bere
burua behar bezala zaintzen ez zuelako, eta kon-
tua da, Aleidak eta Migelek arazoak izan zituzte-
la supermerkatuan sartzeko tenorean, zeren...

- Esa muher -gaztigatu zion, kubatarrari be-
giratu ere gabe, zaintzaileak itsusi- no debe per-
maneser en el hotel.

Ustekabean harrapatu zuen Migel, baina ez
zen kikildu, eta soinean zekarren txartela eraku-

tsi zion, Donostiako ikastaro batean parte hartu ahal izateko egin behar izan zuena; argazkia barne, apaingarri aunitz zeuzkan, eta euskaraz idatzirik zegoen. Azpitik, gainetik eta argitan zehar aztertu zuen zaintzaileak eta, parada probesturik, eragozpenen bat baldin bazegoen, arduradunarekin kontsultatzeko gomendatu zion Migelek. Perestroikari ihes egindako aholkulari sobietikoren bat ere izaten ahal zen; beraz, bazterrak nahasteko gogorik gabe, hasperen egin eta dendan sartzeko baimena eman zion.

Angolako soinekoak, Ipar Amerikako jeansak eta bertako kokoekin eginak ematen zuten lanparak ikusten ziren zintzilik. Antilletako dortoka diseatuak, goi-mailako rona, puru-kaxak, karra-marro-lata sobietikoak eta bertze aunitz gutizia zeuden apaletan. Ordu erdiren bat eman zuen aise Aleidak bazterrak miatzen eta, urrun samarretik, hurbiltzeko keinua egin zion, zeren...

- Acá, Miguelsito, la *Pioneer* que buscaba. Pero aguarda un instante, chico, ¿por qué tú no me preguntas si quiero un blumer o unos ahustadores de fantasía?

Aspaldi hautaturik zeuzkan, doike, baina bat-batean otu izan balitzaio bezala proposatu zion xalotasun faltsuaren gibelean babesturik. Oparia, noski, Migelen samurtasunaren adierazgarritzat hartu zuen Aleidak, eta grabagailua erosteko, berriz, bere dolarrak erabili zituen.

Erosketak bizkarrean jaso eta bertze tentazioren batean jausi baino lehen utzi zuten denda. Atariko bidean, kanabera luze eta lodikoteen artean, *Arrivederchi, Roma* ari zen jotzen orkestra bat. Goizari ez zitzaion gehiago eskatzen ahal, eta hoteleko gelara itzultzeko amorratzen zegoen Migel.

Irten bezain laster, zorionez, *incapturable* zuri bat zegoen zain.

Trocadero karrikara eramateko agindu zion berehala. Aldapan beheiti, ezkerretara jo zuten itsas bazterretik eta etxera igotzeko proposatu zion erizainak.

Ez zuen nahi izan eta, erosi berria zuten trastea ateratzen lagundu eta gero, taxian jarraitu zuen.

Erretiratzeko asmoa zeukan, baina Maleconetik hurbil, neonezko kartel bat atzeman zuen piz-

turik, eta azken tragoaren gutizia egin zitzaion. Eragozpenik ba ote zuen galdetu zion badaezpada gidariari. Ez zion ihardetsi, baina etxaldeari buelta osoa eman ondoren agindutako lekuan aparkatu zuen automobila.

Espaloian, hiruzpalau pauso gibelerago, taxista ere bazetorrela ikusi zuen. Atea irekitakoan iglu bat iruditu zitzaion ostatua, bezperan bezala, eta infernua kanpoan utzirik sartu zen barnera. Elkarrekin galdu ziren ilunpetan eta, bezeroari lagun egiteko añaño bat eskatu zuen gidariak. Aspaldiko mambo bat paratu zuen norbaitek gramolan, eta itzalak dantzan hasi ziren poliki. Gidariak bere edariari begiratzen zion, eta galderaren bat egin nahi ziola igarri zion Migelek. Automobilean sartu zirenetik ez zuen ahoa ireki.

- De modo que, España -menturatu zitzaion, zigarroa piztu eta pospoloari putz egiten ziola.

Ez al zegoen bertzelako solasik?

Ostatu hartan berean sortu zitzaion, bezperan, lehen aldiz galdera bera.

Ustekabean harrapatu zuen, eta amuari heldu zion. Egundoko hitzaldia eman behar izan zion, zeini eta ezezagun bati; aski zuen iragan

eguneko saioarekin, eta baiezkoa adierazi zion txoferrari buruarekin.

- ¿Y de qué parte?

Hiruzpalau hiribururen artean ibili zen hautatu ezinean. Stockholmeko sindromearen aldagarriren baten eraginpean beharbada, sobera planta iruditu zitzaizkion egun bakar batendako. Arreta handiagoa eskatzen omen du, gainera, gezurrak egiak baino eta, ia pentsatu gabe, *De Azpilkueta* sortu zitzaion zopin moduan.

- Entonses...¿por qué usted no dise que es vasco?

Airoso samar jalgi zen enbarazutik, zeren...

Gauza jakina da edozein eltzek badituela bi belarri.

Migelen azalpenaren misterioak eragin nabarmena izan zuen; begiak zimurtu zituen taxistak, bezeroaren eginkizun sekretuetara gerturatu ahal izateko. Ez zion, ordea, bertzerik galdetu eta, kontuak egin ondoren, kanporako bidea hartu zuten. Isil-isilik sartu ziren automobilean eta, Pradoko lehoiei agur egin eta Espainiako Enbaxada gibelean utzirik, hotelerantz abiatu ziren.

Añejo luze bat hartzeko gogoan egin zitzaion, eta franko berant erretiratu zen bezpera gauean. Ohi baino goizago jaikitzeko asmoa zeukan, baina ez zen tenorez iratzarri. Bozina egoskor bat entzun zuen ametsetan. Ez zituen begiak zabaltzen ahal eta, txofer astun hura hamar mila aldiz madarikatu ondoren, Newton etorri zitzaion burura.

Chevroleta ikusi zuen espaloiaaren aldamean zain.

Nagiak atera, aurpegia busti eta giltzak harrerera-lekuan utzita jo zuen hoteletik kanpora. Egunak aitzinera zihoazen binaka, eta oraino ez zuen Casa de las Américas bisitatzeko parada izan, zeren...

Uste baino denbora gehiago behar izan zuen Newtonek matxura konpontzeko eta azkenean Migelek, berant gertatu baino lehen, telefonoa erabili bertze erremediorik ez zuen izan.

Eskua luzaturik, automobiletik jaitsi gabe, *Cómo le fue, mi hermano* erran zion Newtonek

adeitsu eta, segidan, bertze aldeko atea ireki zion sar zedin. Aitzineko jarlekuan egokitu eta infernu hartan laketu ezinik, labean erretzen dagoen axuri gizajoa iruditu zitzaion bere burua eta, ibilian haize freskoagoa hartuko zuelakoan, kirtenari eragin zion leihatilako kristala beheitiraino eramanez arte. Argiak, indar biziz, ez zion deus ikusten uzten, eta eskuineko ispilu txipian iltzatutako izpi distiragarri batek min ematen zion begietan.

Alde zaharreko karrika meharretan barna sartu ziren eta, behingoz itzalpean, zilarrezko flamenkoa bereizi zuen Chevroletaren muturrean hegadak zabalik. Ez zihoan bakarrik, hegaztiarekin batera, bidean lagun, panterak, izurdeak, Egiptoko esfingeak eta bertze hainbat ikur zebiltzan, norabide bietan, bakoitza bere automobil gainean dotore.

Itsasoa eskuinean zutela, Maleconarekin leerroan egin zuten bidea eta, alderdiaren ederrari begira mantso joanagatik, berehala heldu ziren kultur erakunde ospetsura. Atea ireki eta norbait agertu bitartean, bakoitza bere besaulkian jesarri zen hormetan zintzilik zeuden pinturei begira.

Ikasle jendea zebilen bereziki, eta atzerriko adituren bat ere bazegoen etengabe galdezka.

Eskolako maisua irudi zuen aitona beneragarria hurbildu zitzaien noizbait, eta noren partetik zetozen aipatu bezain agudo, jakinaren gainean zegoela erran zien. Aldameneko bulegoan sartu zituen zaharrak eta bortz liburu paratu zituen banan-banan mahaian: argitaratu berria zuten *Biografía* mardul bat, *La guerra de guerrillas*, Cheren argazkiekin osatutako albuma, *Diario de Bolivia* eta *Casa de las Américas* aldizkariak Julio Cortazar, Harold Pinter, Mario Benedetti eta abarrek bere heriotzaren ondoren idatzitako soslai eta olerkiekin argitara eman zuen zenbaki berezia. Erakusgai paratzeko egokiak izaten ahal ziren, baina bere liburu-dendako apaletan, urrun joan beharrik gabe, bazeuden oraino maileguan jasoko zituen bortz haien arteko pare bat bedere.

Iraultzaren museoak egindako bideoa erakutsi zien segidan aitonak, eta lenteak garbitu zituen Migelek, deus ez huts egiteko. Lehenik, enbor baten gainean jesarririk pipa prestatzen agertu zitzaien Che Sierra Maestran, azukre-lan-

tegi batean zakuak garraiatzen gero, unibertsitateko ikasleen aitzinean hitzaldia ematen ere bazeuden tarte batzuk eta, azkenean, bere gorpua ikusi zuten Boliviako eskola txipi batean etzanik. Irudiak, zuri-beltzean, marraz beterik zeuden, eta min ematen zuen soinuak belarrietan, baina bazuten interesa dokumentu gisa.

Urteurrenari beha bildu berri zituzten zenbait poster prest zeuzkan, eta Alberto Kordaren argazki-bilduma ospetsua ere agindu zion, baina denbora pittin bat behar omen zuenez paketeak biltzeko, bi ordu iragan ondoren itzultzekotan geratu ziren.

Artxiboari zerion freskura utzi eta kanpora irten zirelarik, berriz ere infernua zeukaten automobilaren barnean zain. Eguerdia hurbil zegoen baina goixko zuten bazkaltzeko. Newtonek ez zuen aukerei ez ikusia egiteko ohiturarik eta, badaezpada, proposamen bat egin zion, bi ordu sobera denbora ere bazelako aspertu gabe emateko.

Errelojuari erreparatu zion gidariak, oharkabean, kontuak ateratzeko, baina ez zeraman soinean. Adiskideari so egin zion zeharka, eta Mige-

lek jakin-mina ezkutatu ez zuenez, azalpena eman behar izan zion, zeren...

- ¡Esplotó!

Egun pare bat egonean uztea aski izanen zela uste zuen gandua suntsi zedin, baina denboraren joanak ez zuen konpondu. Arantzak kentzeko pintza batzuk hartu eta kristala askatzen saiatu arren, ez irekitzeko moduan zegoen asaturik, eta ahaleginean azkazalak galdu omen zituen ia. Azpiko tapakia miko bat altxatu eta gero, pila paratzeko zulora hurbildu zuen ilearendako idorgailua, zirrituren batean barna haize pixko bat sartzea erdietsi ote zuen. Baina arretaz egiten zuten, agi denez, Suitzan lana, eta neurri bortitza goak hartu behar izan zituen.

- Lo metí en el microondas -aitortu zion azkenean- y al cabo de un rato explotó imprevisiblemente.

Ez zekien sinetsi behar zion ala ez, eta ez zen gauza bera gertatzen zitzaien lehen aldia. *Experto en movimientos sísmicos y otras ondas expansivas* paratzen zuen bere txartelean; beraz, ez zion mintzabiderik eman. Ez zen, beharbada, arrazoirik gabeko gezurra izanen, baina egiaren

kalitatea ehunekotan neurtzen ahal bazen, zenbat puntu merezi ote zituen Newtonek orduko hartan? Egia eta gezurra nahasian zebiltzan, nonahi bezala, habanarren artean ere, eta ez zegoen bereizten samurra.

Jendeak bazuen egunean egunekoarekin bizitzeko bezainbat, edo horrela ematen zuen bedere, baina gutziak zilegi izaten ahal dira batzuetan, eta kubatarrek, eskean baino lehen, nahia-go zuen, segurik, azpilanetan saiatu. Gezurrak, azken batean, joko gehiago ematen zuen jolaserako, eta turista-jendea, edonongoa izanik ere, beti egonen zen hirugarren munduarekin zortetan.

Enkargu batzuk egin nahi zituen Newtonek. Atzerritik ekarritako jeneroa izaki, dolarretan ordaindu behar zuen derrigor eta kubatarrek, baimen bereziren bat izan ezean, ez zuten horrelako sosik erabiltzen ahal. Alde Zaharraz bertze alderdirik ere ba omen zegoen Habanan eta, aitzakiarik atera baino lehen, erosketak eginik fite itzuliko zirela agindu zion Migeli, zeren...

- Tremenda diplotienda -azaldu zion- que recién abrieron, acá mismo, en Guanabacoa.

Itsasoa orain ezkerrean zutela, Maleconaren lerroan berriz, hiriaren bertze muturrean zeuden auzoak igaro zituzten eta, puxka batera, Guanabacoan zeudela erran zion gidariak. Gasolinatan frijitutako txurruen usaina zegoen giroan. Karriketan ez zen aurpegi zuri bakarra ageri. Afrika ere ematen ahal zuen, baina jendeari kubatarrak daukan harrotasun puntu hori nabaritzen zitzaien eta, gainera, aski zen solas bat edo doinu-
ren bat entzutea edo erreboluzioaren aldeko ikur edo irudiei erreparatzea non zeuden konturatze-
ko.

Itzal handia zeukan yorubatarren lege zaharrak Guanabacoan, eta zituak edo loreak ikusten ziren zedroen oinetan. Arrats apal, sainduz, kulturez eta txoriz betetako patio sargorietan santeroen danborrak entzuten omen ziren biltzarre-
ra deika. Oilarraren erpeak, burdinazko kateak eta horrelako gauzak erabiltzen zituzten ospakizunetan, eta aspaldiko jainko eta jainkosek, bakoitza bere zopa-ontzian gorderik, mundu honetan jarraitzen zuten oraino. Gordean ibili beharreko egunak joanak ziren behingoz eta Changok ez zuen Santa Barbararen irudipean zertan ezku-

tatu. Beltzen artean ez ezik bertze guzien artean ere gero eta jarraitzaile gehiago zeuzkan sante-riak Habanan, eta Newtonek berak ere sinetsi ez baina kontuan hartzen zuela aitortu zion.

Automobila bazter batean aparkatu eta salto-
kian sartu ziren biak. Azokaren eiteko zerbait es-
pero zuen Migelek, baina hurbilago zegoen azo-
karen biltegitik. Apal batzuk hutsik zeuden, eta
bertze batzuk, berriz, gainezka. Aireztailuak,
ekipo musikalak eta telebistak aztertzen eman
zuten denbora tarte bat. Gero, jeans galtzak,
lente beltzak eta biserak. Errusiako karramarroa,
Libanoko kabierra eta Poloniako zinger egosia
ere bazuten salgai eta, bertze bazter batean,
Bulgariako ardoa, Txekoslovakiako garagardoa,
Mexikoko tekila eta hainbat pattar.

Alderdi eta zoko guziak ongi miatu ondoren,
txanda heldu arte egon ziren zain harategian. Ez
zen garbitasunik falta, baina euliak zebiltzan in-
guruan eta, berotasun itogarriaren eraginez,
usaina zerion haragiari. Idikiaren pikadura eska-
tu zuen Newtonek, eta harakinari hamarren bat
minutu joan zitzaizkion, aise, zeregina bete arte.
Auskalo zenbat laguni eman behar zion jaten

Newtonek, bi poltsa behar izan zituen eraman ahal izateko, zeren...

- Proteínas, compañero, indispensables!

Dolar sorta txipi bat eman zion Newtonek disimuluan, hurbilean begi barrandaririk ez zegoe-la probestuz. Edariak zeuden apaletara jo zuten gero, Coca-Cola bila, eta dozena pare lata hartu eta bertze bi poltsa bete zituen. Migelek ez zuen konprenitzen nolako hozkailua behar zuen izan lagunak etxean hainbertzeko gauza piloa sartze-ko, baina kontua isil-isilik ordaindu eta denak au-tomobilean sartu ondoren, sobera geratu zitzaiz-kion sosak itzuli zizkion.

Uste baino goizago zebiltzan, eta bazterrak ikusi eta garagardo bana edatera joan ziren. *La Universal* irakurri zuten karrika-kantoin batean eta, barnean sartu zirelarik hainbat jende zegoen legea egiten. Edan bitartean, mahai gainetan banaturik zeuden plateri erreparatu zien Migelek, eta inon ez zuen arrainik ikusi. Lehendanik oharturik zegoen, eta sinetsezina egiten zitzaion; itsasoz inguraturik oro, nola uzten ahal zuten bildu gabe hainbertze elikagai? Ez zuen

konprenitzen, eta bere lagunari egin behar izan zion galde.

Arraina jateko orduan arrunt milingak omen ziren kubatarrak, bera barne, eta zalantza egiten zuen Guanabacoa osoan ba ote zegoen antxoari burua kentzeko ausardia izaten ahal zuen sukaldaririk, zeren...

Yoruba jendeak nahiago zuen itsu geratu hezur bat ikusi baino.

Atuna, legatza edo txipiroia maite izan balute, sobera zituzten beharbada errazionamenduliburuxka guziak, baina euli bati ezin zaio konpreniarazi negua nolakoa den, eta bueltako bidea hartu zuten berantetsi baino lehen.

Eskuin aldean ikusi zuten berriz ere itsasoa eta ez zen arrantzalerik falta kanabera eskuan; Chango, Ogun eta Lemanjaren jarraitzaileez gain bertzelako jendea ere bizi zen Habanan. Indigoz, *selestez*, karmelitz eta kanelaz pintatutako etxeak utzi zituzten ezkerretara eta, Maleconaren bazterretik denbora puxka bat eman eta gero, *Casa de las Américas* paratzen zuen seinalearen aitzinean gelditu zuen Newtonek Chevrolet zaharra.

Oinetarainoko atorra arrosa batek nekez kontintzen ahal zuen emakumezko galanta zegoen harrera-lekuan. Eskolako maisuaren galdea egin zioten. Ez zegoela eman zien jakitera, eta Ainhoaren enkarguari ezinezkoaren antza hartu zion Migelek une batez, baina telebista handi bat gordetzeko moduko kaxa zegoen bazter batean zain, eta fundazioari zegokion zigilu gorria zerman kartonaren gainean itsatsirik.

Lepoan jaso eta eskerrak eman ondoren, automobilera eramane zuten bien artean.

Ez zekien nola igorriko zuen Iruñera. Virgilio-ren laguntza espero zuen edo, bertzenaz, Ainhoari deitu beharko zion zein bide erabili behar zuen jakiteko. Alberto Joserekin ere oroitu zen: aurki Madrilera baitzihoan, bere burua eskaini zion zernahitarako. Dena den, Instituto Cubano para la Amistad con los Pueblos erakundean ere prestatuko zioten zerbait; beraz, traste guziak jaso eta pakete bakarrean bildu arte, hobe zuen fitsik ez egin.

Etorreran bezala bueltako bidean ere ezkereskuin zebiltzan automobilak sartzen zitzaizkion Migeli begietan barna. Harmonika erraldoiak

irudi zuten babesak aitzinean, betazalak faroetan, metalezko hegaltzarrak gibelean... Aldapan goiti egin eta, semaforo gehienak alde, hotelera heldu ziren berehala.

Automobiletik hotelera elkarren artean eraman zuten kaxa, baina gidariak ez zuen ate nagusia iragan nahi izan. Kutermaren bat sortzen ahal zion atezainak, eta ez omen zuen merezi. Zama bizkarrera altxatzen lagundu zion Newtonek. Pisu ikaragarria zeukan eta ozta-ozta eraman zuen igogailura.

Blai heldu zen gelara; trastea bazter batean utzi ondoren, ohantzean etzan zen luze bezain zabal eta biraka zebilen aireztailuari so hartu zuen loak. Ez zen arrats apaldu arte iratzarri.

Guevararen txapela eskura eduki eta atzaparra erantsi gabe uztea ez zion bere buruari sekula barkatuko. Arseniori deitu eta bazkaltzera gonbidatu zuen Habana Libre hotelean; hogeita borzgarren solairuan ba omen zegoen Sierra Maestra izeneko jatetxe bat franko ona, eta so-lastegi egokia zen proposamena jakitera emateko.

Hotel atarian elkartu eta bizpahiru minutu eman zuten igogailutik jalgi gabe. Goian zerbitzariari galdetu ziotelarik, ez zegoen mahairik libre. Sobera urrun joan gabe hurbil hartan bertze nonbait bazkaltzerik ba ote zuten galdetu zion, baina orduko berant zebiltzan, eta lehen solairuan zegoen kafetegira jaitsi ziren. Ez zieten, noski, goian bezain ongi emanen, baina bazen sukalde koxkorra bertan; beraz, bazterren batean egokituko zituztelakoan abiatu ziren.

Egur beltzez egindako altzari ederrak eta beso baten tamainako banbu sendoz apaindurik, lekuak Afrikari zor zion bere kutsua. Ispiluek,

hormako barrandari, esparruaren giroa biderkatzen zuten, eta sabaian malkoz betetako lanparak zeuden zintzilik. Oihanean bezain bero, aire egokituaren instalazioari erreparatzen zion Migelek. Geldirik omen zegoen aspaldi, zeren...

Atzerriko etxe batek egindakoa zen, eta ez zegoen ordezeko piezarik eskuratzeko modurik.

Ohi baino dotoreago jantzitako kubatarrak zeuden mahaietan barreiu -eginkizun ofizialen bat betetzen, beharbada-, baina turista jendea zebilen batez ere eta zerbitzariak, azal ilunekoak gehienak, etiketazko arropa zeramaten. Ordu bi eta erdiak bertzerik ez ziren arren, orkestra mambo bat ari zen jotzen. Janari-zerrenda arretaz aztertu eta *Ensalada de poyo*, *Camarones enchilados* eta garagardo bana eskatu zuten.

- Anteayer -erran zion Arseniok zigarroaren keari begira- solisit  seisientas p ginas de *Doctor Zhivago* en la Biblioteca Nacional, y resi n finalis  la novela.

Aspaldi hartan egindako irakurketan baino hamar aldiz hobea iruditu zitzaion. Eskandalizatuz gero filmaren alderdikeriarekin. Italo Calvinoren artikulua gogoan, lehen erdipurdi bere-

ganatutako alderdi bat baino gehiago konprenitu omen zituen, eta Migeli azaldu nahi zizkion, hiru bat pasarte itsatsi zitzaizkion buruan, eta Hollywoodeko bertasioak batto ere ez zuen kontuan hartzen, zeren...

- «La revolución se ha producido sin intención, como un suspiro cuando se ha contenido demasiado tiempo el aliento» -erran zuen poliki; eta galdera hauxe zeukan-: ¿Usted recuerda que Omar Sharif dihera algo semehante?

Entsaladarik ez, baina garagardoa, beharrik, mahai gainean zeukaten orduko, eta edariaren hotzarekin saiatu ziren gosea engainatzen. Ordu laurdenaren buruan Migelek ez zeukan tantarik botilan, eta egarri jarraitzen zuen. Inguruan behatu zuen zerbitzariren bat ikusten ote zuen. Bakarra ere ez zen ageri. Geldialdi susmagarria igarri zuen giroan: orkestra isilik zegoen, eta musikariak ez zeuden beren lekuan. Atsedenaldiren bat izaten ahal zen, baina halako batean argiak itzali egin zituzten, eta Migelek inguruari erreparatu zion begiekin galdezka. Untxiaren aurpegia geratu zitzaien turista harrituei eta kubatar gehienek goratu egin zituzten behakoak.

Zorionez, galdurik zebilen zerbitzari bat, lanean ari zen bakarra, mahaira hurbildu zitzaien, eta bertze garagardo pareta eskatzeko probestu zuen. Ez zela posible erran zion abegitsu, eta puska batean egon egin behar izanen zutela. Arrazoiak eskatzeko astirik eman gabe, ahots sakon bat sartu zen, orkestraren orde, bozgo-railuetatik barna, eta Migelek Arseniori egin zion so.

- Olvidé mensionarlo -azaldu zion-, Fifo prometió discurso para hoy.

Ongi etorria eman zion kazetariak lehenik eta, ondoren, agintari nagusiaren ahots ezaguna giroaren jabe bihurtu zen. Aldian behin egoeraren azterketa egin behar baita, *Impostergable* iritzi zion egun hartako hitzaldiari, zeren...

Ziztu bizian ari omen zen aldatzen mundua eta Txinatik goizean jalgi eta, ekialderako norabidea hartuz gero, Habanara bezpera arratsaldean heltzerik bazegoela azaldu zuen.

La vuelta al mundo en 80 días etorri zitzaion Migeli gogora, baina ez zuen deus erran.

Armada yankia titanioa ari zen erabiltzen misilen muturra indartzeko eta, aitzakiarik eman

gabe, nonahi botatzen omen zituzten bonbak, mundu honetan nork agintzen duen erakusteko, zeren...

Ez zuten ahalke izpirik izaten, gainera, eguneratu gabeko mapa zaharren bat ustekabean erabili zutela erran eta nahasi egin zirela adierazteko.

Etsaiaren berri eman ez ezik, Kubari buruz ere mintzatu zen, eta zenbakiak, estatistikak eta bertze mila datu eman zituen. Irratiaren jario luzea medio, edo gosearengatik bertzenaz, bere baitan murgildu zen Migel eta, entzule zintzoaren plantak eginagatik, harremanak eten zituen Fidel Castroren hitzaldiarekin puska baterako, zeren...

Ahalik lasterren proposatu nahi zion Arseniorri txapelaren kontua, erantzun bat behar zuen.

Fidelek ez zuen isildu nahi, eta hirurak ongi pasaturik zeuden orduko. Entzuleria argazkian izozturik bezala zegoen, eta orkestrak erabiltzen zuen antolamenduari erreparatu zion Migelek, musikariak mugitzen hasiak ote ziren, baina bere buruarekin bildu behar izan zuen berriz ere.

Inoiz ez zuen Indurainen elastiko horia, Hemingwayren luma edo Antonio Machinen marakak eskuratzeko gutziazirik izan. Hala ere, zorioneko txapela ikusi zuenetik, neurritz kanpoko irrika egin zitzaion. Argentinarrak eskumuturrean eraman ohi zuen *Rolex* beltza agindu zion Virgiliok, eta eguneko oharrak jasotzeko erabiltzen zuen blok bat, eta pipa zahar bat eskuratzeko modua ere ba omen zegoen, baina denak egoiak izanagatik, Ainhoaren asmoekin baino gehiago, bere irudimenaren ispiluari erreparatzen zion Migelek, eta hegazkinaren eskaileretan beheiti, Iruñeko espaloietan barna edo terraza batean jesarririk, Guevararen txapelaz jantzirik ikusten zuen bere irudia.

- El marabú, por ehemplo -erran zuen halako batean Kubako agintari nagusiak, eta hitzaren arrotzari esker Migelen arreta hartu zuen, zeren...

Arrunt landare gaiztoa zen, zitala, arantzez betea, izugarri aise ugaritu eta hedatzen zena eta, lekadunen familiakoa izanagatik, ez omen zuen azindaren bazkarako balio. Agi denez, nitrogenoaz baliatzen ziren garatzeko, eta bere

zainetako bakterioen bitartez bereganatzen zuen elikatzeko behar bezainbat. Askatu beharreko arazo korapilatsuren baten adibide paratzen ote zuen egin zitzaion Migeli, baina ezin izan zuen asmatu zer izaten ahal zen, zeren...

Gero traktoreak hartu zituen mintzagai, eta sortzen ziren aberia guziak eta hondatutako piezak ordezteko erabiltzen ahal ziren trikimailu erabilgarrienak azaldu zituen bederazka.

Edozein entziklopediak baino xehetasun gehiago eman zituen. Akitu ere akitu behar zuen noizbait eta, pare bat ordu ongi beteak zituelarik, kazetariaren ahotsa entzun zuten eta, noizbait behar eta, isildu egin zen irratia.

Entzuleek, hamarna kilo galdu balute bezala, lurretik pare bat zentimetro goitiago irudi zuten eta ispiluetako irudiek, aspalditik geldi, etenik zegoen filmari heldu zioten berriz ere. Itzalitako lanpara dotoreak piztu egin ziren batera. Musika-riek, poliki-poliki, txokolate lodiari bueltak ematen bezala, mundua bere onera ekarri zuten. Orkestra prestatzen ari zen salsa bezain bero zeukan Migelek burua, baina Arseniok hainbertze

denbora muturik eman eta gero, solas pixko bat egiteko gogoia zeukan, zeren...

- «Cada hombre se ha transformado y cambiado. Diríase que en cada persona se han producido dos revoluciones; una, propia, individual, y otra, general» -erraten omen du Boris Pasternakek bertze leku batean, eta bigarren galdera egin zion solaskideari-: ¿Acaso escuchó usted esta frase?

Arrokak puskatzeko moduko hitzak iruditu zitzaizkion Migeli. Ezkerreko eskua kokotsean, deus erran nahi ez zuen irri inozoaren gibelean gorderik, solasean jarraitzeko baimena eman zion zaharrari.

- «Hoy los hombres han desidido vivir la vida como la intuye el genio, creadoramente enriquecida, y no experimentarla en los libros, sino en sí mismos». Tampoco eso diho el doctor.

Zerbitzari bat hurbildu zitzaien zer nahi zuten galdezka. Irratia piztu aitzin eskatu zuten arren, oraino zain zeudela erran zion Migelek. *No se ponga usted bravo* gomendatu zion gizonak aho-tsa goratu gabe. Etorri berritan eskatutakoa aipatu behar izan zuen bezeroak, baina *Desmayen*

eso, *compañero* aholkatu zion berehala, sukaldea egonean zegoen eta ez omen zuten ordu pare bat baino lehenago zabalduko. Gosaritik afarirako zubia eraiki beharra zegoela deliberaturik, kafe doblea eta añejo luzea eskatu eta, edaria ekarri bitartean, Moskura itzuli ziren, Zhivago doktorearen bila, zeren...

- Hollywood -erran zion Arseniok Fidelen hitzaldia aipatu gabe- ocultó presisamente lo que mas reclamó mi atención en la novela.

Guevararen aipamena egiteko unea zela iruditu zitzaion Migeli, eta nolako jokaldia komeni zitzaion hausnartu zuen. Urtemugaren itzalean Iruñean antolatzen ari ziren jardunaldien berri hasi zitzaion azaltzen lehenik, eta abiada probestuz, txapelarena aipatu gabe, erakusketa ere zabaltzekotan zebiltzala eman zion jakitera. Eki-menaren ikur gisa erabiltzen ahal zuten zerbaiten bila zebiltzan, bertze zenbait oroigarriekin batera paratzeko, eta aholku eskatu nahi zion, zeren...

Orain arte eskuratutakoak ez zitzaizkien behar adina adierazgarriak iruditzen.

- Un par de zapatos -proposatu zion Arseniok sobera pentsatu gabe.

- ¿Zapatos?

Benetan ari zen, eta bere gomendioaren arrazoia ere azaldu zion. Agerian zegoen komandantearenganako gordetzen zuen mira eta, denboraren poderioz, franko irakurri zuen berari buruz; beraz, bazekien zerbait haren bizitzaz. Gogoan gordetzen zituen Cheren ibilbide historikoaren gaineko pasadizoak; nonahi zebilela, oinetakoekin borrokan oroitzen zuen behin eta berri.

Argentinan, konparazione, gainbehera etorritako zapata-denda bateko hondarrak eskuratu omen zituen behin bere lagun batekin eta, bakoitza bere kiderik antzekoenaren ondoan paratu eta gero, karrikan saldu zituzten sos pixko bat biltzeko. Behin baino gehiagotan azaltzen omen zen ezkondu gabeko oinetakoekin fakultatera. Sierra Maestran, orobat, bazekien noiz edo noiz oin batean zapata eta bertzean bota jantzirik ibilia zela. Eta txiriparik gabeko kontakizunik ez baitago, Bolivian hil zuten hartan, Ovando jene-

ralak zapata-kaxa baten barnean erakutsi zizkion prentsari Guevarak idatzitako egunkariak.

Aipatutakoaz gain, Habanara heldu eta agintari-lanak egokitu zitzaizkiolarik ere, ez zituen lo-karriak sekula lotzen; ez, dena den, oinetakoei garrantzia ematen ez zielako, zeren...

1961ean, Industriako Ministerioaren ardura zeramala, bikoiztu egin omen zen zapatagintza-ren produkzioa, baina kezkatu zegoen kalitatearekin, zeren...

Behin, lantegi batean bisitan, *Yo no me pongo estas sandalias a menos que me lo mande la revolución* erran zion, serio, bertako arduradunari.

- Austeridad -proposatu zuen Arseniok- pero calidad, al mismo tiempo.

- No debe de ser fácil.

- Indispensable. Porque la mayoría de la gente, Miguel, ya no sabe que es disfrutar de la calidad de un par de sandalias.

Arrakastaren morroi zegoen aspaldi aukera. Ez zitzaion arreta eskaintzen ongi egindako lanari, itxuraren eragin hanpatuari baizik eta, jakina, erabilpenari egokitu ezean, ez zegoen benetako

kalitaterik. Arrakasta, gainera, berez zen iragan-korra eta, modaren mende, probetxu gabeko xahuketan eta aitzinamendu gabeko aldaketan jausi bertze erremediorik ez zegoen. Inozokeria galanta iruditzen zitzaion kapitalismoarekin lehiatu nahi izatea kontsumoaren basakeria garestian, baita sozialismoaren izenean ere: garaituagatik, galtzaile bihurtzen gaitu ezinbertzean, zeren...

- Lo que se desperdisia -atera zituen kontuak- no es nesesarario. El que no compra basura, Miguel, resiste, y eso les jode con cohonos.

Oinetakoei buruzko apologia akitu zain zegoen, baina hitzaldiak flotazio-marraren azpian eman zion, eta uzkurtu egin zen. Urtemugaren asmo hartan ez zegoen deus makurrik, baze-kien; eta, egia errateko, zaharraren pentsaerarekin bat zetorren; baina itxurakeriari eskainitako astinduaren ondoren, hutsala iruditu zitzaion txapelaren eskaria egitea, eta ez zuen ergel hutsa gelditu nahi izan. Tenoreko zebilen, eta parada egokiagoa heldu arte egotea deliberatu zuen.

Alkandoraren sakela txipian zeramatzan Arseniok Migelen lente zaharrak, eta itzuli egin zizkion ahantzi baino lehen. Ez zituen jadanik behar, eta laster emanen zizkion kareizko berriak. Aitzakia aproposa iruditu zitzaion Migeli bertze hitzordu bat egiteko -Arsenioren beraren etxean ahal balitz, hobe-, zeren...

Txapela atera behar zion, eta ez zuen aukera huts egin nahi.

Ordu bi eta erdiak inguru sartu ziren kafetegian eta, irratiko hitzaldia tartean, afaltzeko ordua etorri zitzaien. Hondarrak akitu eta zorrak kitaturik, *allegro ma non troppo*, kanporako bidea hartu zuten. Orkestra *Cuando se quiere de veras* ari zen jotzen, eta Migelek eskua eman zion atean zegoen zerbitzariari alde egitean. Igogailuan sartu eta pare bat minutu igaro zituzten hogeita bortz solairu igan eta Sierra Maestrara iritsi arte. Oraingoan, zorionez, bazegoen non jesarri. Etxeak ateratako bermut zuri bana edan zuten eta, bitartean, sukaldariaren eskaintza aztertu zuten arretaz.

Aireztailuak bueltaka zirauen sabaian. Eguzkiak, pertsianaren zirrituetan barna, zebra baten larrua zeukan hormen gainean marrazturik eta, zine-aretoetan bezala, urrezko hauts fina zebilen iragazitako argi zerrendetan igeri. Erdiz erdi zegoen zabalik balkoneko atea. Itsasoko haizea gortina zuri-urdinekin ari zen jolasten eta, bada bakoitzean, hanpatu eta belaren eitea hartzen zuten.

Eskua ohantzearen aldameneko mahai txipiaren gainera luzatu eta, Habanan zegoela egia ote zen ziurtatzeko, sudurrean goiti paratu zituen lenteak Migelek. Errelojuari begiratu zion. Aspaldian ez zuen hainbateko siestarik egin.

Orratzak arinago al zebiltzan Antilletan?

Atzarri zeukan ondoan Maria Josefa, baina nagiak kendu ezinik, eta ez zion jaikitzeke batera asmorik atzeman.

Antzertiari buruzko solaserako asmotan etorri zitzaion irakaslea bazkalondoan, baina ez zuten oraino gaia aipatu, zeren...

Aristoteles eta Castelvetro ate joka zeuzkaten, bai, baina, jakina, zenbait gauza ez dira nornahiren aitzinean egiten ahal, eta kanpoan geratu behar izan zuten zain.

Horrela, bada, gero eta intentzio handiagorekin behatu zioten elkarri, eta ahulezia epelean jausi ziren.

Oinetakoen gainetik jaitsi ondoren, soinekoa gerriraino bildu eta burutik goiti erantzi zuen Maria Josefak. Ikaslearengana hurbildu eta, tentagarri, bizkarra eman zion bularretakoa aska zekion.

- ¿Cómo tú me encuentras?

Eztarrian egin zitzaion korapiloa irentsi eta, *Con todo en su sitio* ihardetsi zion ahalik naturaltasun handienarekin.

- Pues entonses, para ti toda, mi amor.

Ohantzean biluzik, bata bertzearen bazterretan ibili ziren atsedetik gabe eta, nor bere desiraren mende, izerdi-mintz gozoan bildurik egin zuten bat. Ezarian, erne, amildegiaren ertzean zelatu gabeko zaldiaren gainean dabilenaren arretarekin, elkarrenganako irrika soseguz gobernatzen saiatu ziren luzaro eta, azkenean,

atseginaren hondarretara ailegatu zirelarik, hutsaren gainean geratu ziren zintzilik.

Oinak lurrean paratzeko indarrak hartu arte nor bere buruarekin lasai ederrean, hitzik erran gabe egon ziren aireztailuari begira. Izerditan trenpaturik zeuden, eta porrokaturik zeuzkaten maindireak. Ohantzetik jaikitzeke tenorea zela adierazteko bezala, muxua eman zion Maria Josefak ezpainen ertzean. Eskua luzaturik *Partagas* paketea hartu zuen Migelek eta, zigarroaren errealdian, Umberto Eco eta Alfred Hitchcock azaldu ziren solasean. Aitzinera jo beharra zegoen, eta hurrengo adituaren izena eman zion irakasleak jakitera: Bertolt Brecht.

Baina antzerti gaietan murgildu aitzin, Akira Kurosawarengana egin zuen jauzi, zeren...

Aristoteles eta Castelvetro ez ezik, zinemagile japoniarra ere kontuan hartzeko modukoa iruditzen zitzaion. Ohantze batean ez zegoen hainbertze jenderendako lekurik, eta ordu erdiko atsedenaldea eskatu zion Maria Josefak. Aski izan zuen ordu laurdena aurpegia freskatu eta janzteko. Komunetik itzuli zelarik, xanpain kopa bana

proposatu zion ikasleak egun hartako kapitulua-
rekin hasi baino lehen.

- Esta ves se trata -erran zion- de una proye-
sión que yeva por título *Rashomon*.

Antigoaleko ate ospetsu baten izena zen. As-
paldi handian, VIII. mendean, Japoniako enpera-
doreak gortea Kiotora aldatu zuelarik, Mendebal-
deko sarrera gisa eraiki zuten, baina garai izuga-
rriak heldu ziren ondoren eta, denboraren pode-
rioz pitzatu, usteldu, eta gainbehera etorri zen.
Inguruko gaizkile guzien biltoki, argitzen zuelarik
ia egunero agertzen zen gorpuren bat, eta filma-
ren hasmentan hiru gizon daude bertan, sola-
sean, erauntsiaren pean atertu zain.

- Es la versión cinematográfica de un cuento
muy breve que un tal Akutagawa escribió a prin-
cipios de este siglo.

Egurgile arlote bat eta bontzo gazte bat ira-
gan egunetan gertatutako hilketaren lekuko izan
dira eta, konprenitu ezinik, hirugarren bati ari
zaizkio ikusitakoaren berri ematen. Aterpean
dauden bi gizonen lekukotasunaz gainera bertze
lau ikuspuntu ere ematen ditu Kurosawak irudi-
tan, hau da, Tajonaru izeneko gaiztagin susma-

garriarena, preso hartu duen aguazilarena, hildakoarekin zihoan andrearena eta, sorgin bat bitarteko, hildakoarena berarena. Oihal eder baten bilbean bezala daude ehundurik bertsio guziak, baina ez datoz inondik inora bat; denak dira desberdin eta entzuleak, egurgilearen eta bontzoaren arteko solasari adi, erranairu bakarrean laburbiltzen du egoera, zeren...

- No somos sinseros ni con nosotros mismos.

Aireztailua hegaka eta hozkailuaren atea irekia eduki arren, urik gabe egosten paratutako el-tzea zen gela. Harat-honat zebilen irakaslea oinutsik, eta urratsek izerdiz inprimatutako aztarnak uzten zituzten baldosaren gainean. Elastikorik gabe, galtzontzilotan, besaulkian jesarririk zegoen Migel hankak zabalen zabal eta, saiatzen bazen ere, ez zuen behar bezala jarraitzen ahal ikasgaia.

- Creemos en nuestras propias mentiras -erran zuen, Maria Josefa bitarteko, Rashomongo gizonak.

Saiatuaren papera egiten zuen Migelek, baina Maria Josefaren solasak ez zuen ikaslearen galdera txipienaren trabarik. Ahoa ireki beharra

zeukan irakaslea susmoa hartzen hasiko ez bazen.

- ¿Aristóteles? -galdetu zion aipatu berria zuen erranairuaren egilea aspaldiko laguna balu bezala.

- ¿Aristóteles?

Ez zion irrikik batere eragin, eta zain gelditu zen Migel, nondik joko zuen ez zekiela. Bere ezjakintasunaren atrebentzia nabarmendu nahi zuen purrustada eskaini zion irakasleak eta, soinburuaren gainetik begiratu ondoren, komunerako bidea hartu zuen. Konprenitu ez duenaren muturra egin zuen Migelek, baina Maria Josefak, azalpenik eman gabe, dutxaldi baten gutizia egin zitzaiola erran zion.

Elkarrekin dutxatzen ahal zirela otu zitzaion hoteleko maizterrari, baina sutan botatako gatz zimiko baten ondorioa izaten ahal zuen proposamenak; beraz, ireki gabeko botila bezala, isildu eta gibelera egin zuen enbatak amore eman arte.

Azterketa etorri zitzaion burura, gauzak agindu bezala gertatuz gero, gainean zeukan. Aristoteles, Castelvetro eta egun hartako saioaren on-

dotik azken solas bat bertzerik ez zitzaion falta. Maila emanen ote zuen? Oharren batzuk jaso izan balitu, tira, kopiatzerik izanen zuen behar-bada, baina erremediorik gabeko kaiku axolagabearen gisa ari zen portatzen eta, proba gainditu ezean, ez zioten bertan bizitzeko baimenik emanen. Horrela, bada, Alberto Joserren eskue-tan utzia zuen bere etorkizun hurbila, konturatu gabe ari zitzaizkion sosak urritzen eta.

Arrats apaltzen hasia zegoen.

Hiriari begiratu zion gortinen artetik. Portuko garabi makurrak ikusi zituen urrunean, eta zuri-gorritz margotutako tximinia luzea ere bai. Alde batetik bertzera zebilen jendea karrikan, baina indarrik gabe iristen zitzaion zalaparta. Inguruko terraza gehienetan arropa sailak zebiltzan haizearen mende idortzen, eta aldameneko balkoneko dortoka itzalaren eta eguzkiaren arteko muga ari zen ikertzen.

Ate kirrinka entzun zuen.

Maria Josefa agertu zitzaion uretatik sortutako jainkosa baino ederrago. Toalla zuri handi batean bildurik zetorren, orrazia eskuan. Geratzen zen xanpain tanta bat botilan eta, kopa eskaini

ziolarik, irakasleari amorrutik hondar bat atzeman bazitzaion ere behakoa, onetsi egin zion gonbita. Edaria berarekin zeramala sartu zen berriz ere bainugelari eta, orrazten ari zela, irria harapatu zion Migelek ispiluan.

- Esáctamente lo contrario -abiatu zitzaion, tartean deus gertatu izan ez balitz bezala-, esáctamente lo contrario que hisiera Hitchcock con su *Soga*.

Aitzinean zeukan ispilu hura hautsi eta berriz osatu izan balu bezala, sei edo -Rashomongo atean gertatzen dena barne- zazpi film laburrek bat egiten zuten egilearen erranetara. Ordura arte inork ez bezala, lekuko bakoitzaren ikuspuntutik kontatu nahi zuen Kurosawak gertaera bendera eta bakarra, eta ahalegin horren ondorioz, aldatu egin zituen narrazioaren arauak. Immanuel Kant handiak frogatu omen zuenez, arteak, lehenik eta behin, denbora eta espazioa konprenitzeke moduari eragiten zion bereziki, zeren...

- *Ma* -erran zion irakasleak.

Aitzinera egin ezinik, hitza erraten amaitu gabe mutu geratu ote zen egin zitzaion Migeli. Ez zekien tutik ere japonieraz, baina paper mutur

batean idatzi zion irakasleak aipatutako hitzari zegokion karakterea. Atearen bi orriak atzematen ahal ziren, edo hori azaldu zion bedere, eta erdian eguzkia edo sua adierazi nahi zuen ikur txipia. Etxe barnetik beha eguzkia izaten ahal zen, baina kanpotik, ateetan barna, gehiago irudi zuen supazterra. Nolanahi dela, ateak betazal eta eguzkia nini, begiaren eitea hartzen zion Migelek marrazkiari. Ez zekien zer erran nahi zuen, eta galdetu egin zion.

Etxe barneko gela, ganbera... adierazteko erabiltzen zuten hitza omen zen, baina, era berean, tarteari ere horrela deitzen zioten.

Japoniarrek bazuten antigoaleko terminoak biltzen zituen hiztegia, eta *ma* karaktereari zegokion lekuan zera adierazten zuen: «bi espazio edo denbora naturalen arteko tartea». Arkitektura, borroka, antzertia eta gainerako arte tradizional guztiak irizpide horren mende zeuden. Ezauzgarri horrek, bertzeak bertze, erabat bereizten zituen Mendebaldeak egindako bidetik, zeren...

- ¿Imahinas qué cara pondría Castelvetro si de repente lo supiera?

Aspaldi bateko Europan ez bezala, teatroa gihatzen zuten unitate ospetsu haien berririk gabe, tarteak agintzen zuen ekintza, denbora eta lekuaren artean, eta arkitektura ekarri zuen Maria Josefak adibide gisa, zeren...

Japoniako etxearen tradizioan tarte eta gela sinonimo ziren edo, bertze modu batean errateko, gelen arteko tarte gisa ulertzen zituzten gelak. Ateak zirrituetan lerraka zebiltzan, eta debaldetan zeuden pasillo guziak; atalez atal tolestu ondoren, bionbo ere bihurtzen zituzten, eta horrek bazuen eraginik teatroaren gainean.

- Una especie de sistema para distribuir huecos vasíos.

Akutagawak eta Akira Kurosawak berez zekiten hori, ez zuten Japoniako kulturatik kanpo bilatu beharrik izan, baina Mendebaldeko antzerkigile baten izena ekarri zuen berehala Maria Josefak solasera: Bertolt Brecht. Azken eguna hari eskaini behar zion, eta ez zuen gurdia idien aitzinean paratu nahi. Ikasgaia errematatuko zuen azken zirto baten zain zegoen Migel, baina irakasleak ez zuen deus gehiago erran.

Desagerturik zegoen aspaldi zebraren larrua hormaren gainetik, eta pertsiana igo zuen poliki. Ilunabarrari hondar bat bertzerik ez zitzaion geratzen, eta karrikako argiak pizturik zeuden dagoeneko. Etxe baten gaineko terrazan ile horiko emazteki beltza ikusi zuen idortutako arropa biltzen, baina behatzen ari zitzaiola konturatu aitzin, aldendu egin zen leihotik.

Arratsalde osoan irekia egondako hozkailuaren atea bere lekura itzuli eta argia piztu zuen Migelek.

Iluntasunean ohiturik, begiak bildu zituen Maria Josefak eta, pausoz pauso, mantso, bainu-gelan galdu zen berriz ere. Arestian erabilitako toalla busti eta aurpegia freskatu ondoren, ezpainak pintatu zituen ispiluaren aitzinean. Istant bat bertzerik ez zuen eman eta, Migelen gibelera hurbildurik, gerritik atxiki eta kopeta paratu zion soinburuan; oinetakoen gainera igan zen, eta gero soinekoari tiratu zion alde batetik eta bertzetik izterretako zimurrak egokitzeke.

Elastikoa eta galtzak jantzi gabe sartu zen Migel bainu-gelan. Iturria ireki eta lepoa paratu zuen azpian buruko mina arintzeko. Ispiluari so,

harritu egin zen begi-zuloekin, eta elefante baten karantza eman zion. Bizarra egiteko beharra zuen, baina ez zitzaion une egokia iruditu; beraz, orraztu eta bertze baterako utzi zituen gainerako lanak. Argia itzali eta irten zelarik, Maria Josefa ez zegoen gelan.

Maleconaren ertzean bueltaka zebilen iluna-barraren atarian, itsaso zabalari begira. Otsargitik goiti urdin argiak agintzen zuen; azpian añaikak eta, lehorrera hurbildu ahala, gero eta turkesago zegoen uraren azala. Ibilbidearen bertze aldean kresalaren mende -aspaldi berritu gabeak egonagatik eder- glizinia, malba, hortentsia eta bertze aunitz loreren kolore xumez jantzirik zeuden etxeak. Espaloietan, han eta hemen, egurrez jasotako behatoki mailakatuak prestatu zituzten iragan astean, eta habanarrak, milaka, karnaballetako jaialdia behar bezala ikusteko leku egokiaren bila zebiltzan. Izotz, garagardo eta ron merkez betetako txosna ugari ikusten ziren inguruko zabalgunek eta karrika-kantoinetan. Besta eta eromena zebilen guanozko babesen itzalean.

Itsas bazterrean, Txinoaren Harritik hurbil zegoen kafetegian eman zion Maria Josefak hitzordua egun hartan. Buztanik gabeko sugea iruditu zitzaion porlanezko karek gotorra eta, urrunera

beha, irakaslea baizik espero ez bazuen ere, terminologia ezagutu zuen ondora zetorkiola.

Alberto Josek bi koloreko zapata saredunak zeramatzan oinetan eta kapelu dotorea buruan. Emaztekoa ere laguna bezain apain, etxeko jangelaren goiko gakotik jaitsitako lanpara malkodunak ematen zuten belarritakoekin apaindurik etorri zen; eta egongelako paretari kendutako paperarekin egina ematen zuen soinekoak.

Maria Josefak, dagoeneko, bazuen azterketaren berri, eta astebete baizik ez omen zuten prestaketaren azkenak burutzeko. Migelek terminologoiari begiratu zion ondoren etxearen kontuak nola zeramatzan jakiteko asmoz, baina bertzelakorik zekarren:

- Eselentes notisias, Miguel; regreso a Madrid en próxima fecha.

Ohiko lanak alde batera utzirik, biltzar batean hartu behar omen zuen parte. Sobera terminologia iruditu zitzaion solaskideari artaburu bakar batendako. Curriculuma metatzen ibiliko zen etorkizunari beha, edo paper-mota guzien izenak buruz ikasteko aginduko zioten bertzenaz, zeren...

- Usted seguramente no ignora el número de funcionarios que dispone el servicio de traducción de la Comunidad Europea. ¿Es así?

Migelek ez zuen ideiarik ere; beraz, harridura poxi bat prestatu zuen, kopuruari beharbertze garrantzia eman ahal izateko.

- Mil dosientas personas -omen ziren-. ¿Es posible que usted imahine como cuantos son los traductores? Aproximadamente, quinientos -azaldu zion kontuak atera eta gero-. ¿Y terminólogos, Miguel, se hace usted una idea?

- Ninguna.

- Treinta y dos, esáctamente -argitu zion harrotasunez-. ¿Usted me comprende?

Ez zekien zer konprenitu behar zuen. Asmaki-zuna ematen zuen erdia baino gehiago. Aitortu gabeko azpijokoren bat izaten ahal zuen esku artean. Auskalo. Oraino ez zuen terminologia sobera ezagutzen, eta ez zuen sekula gezurretan harrapatu. Baina argi zegoen nahi izanez gero gordetzen ere bazekiela eta, uste bezala, ez zuen luzaro egon behar izan Migelek bere susmoak egiaztatzeko:

- Lo mismo un sobre, una comunicación telefónica -gaztigatu zion-, yo me encargo. Sólo tiene que hasérselo saber a mi compañera la próxima vez que la vea.

Mi hark ustekabeko oihartzuna eragin zion belarrietan, zeren...

Compañera eta *Mi compañera* artean alde nabarmena zegoen Kuban.

Orain arte ez Maria Josefak ez Alberto Josek ez zioten beren harremanen berri sekula eman, eta batekin lautan eta bertzearekin hirutan egona zen. Zer dela-eta hainbertze kopla?

Ikuskizuna abian zetorren Malecanean barna eta Maria Josefa ohitura zaharren berri ematen hasi zitzaion. Besta hartan parte hartzen ez zuen musikaririk ez zegoen ez hirian eta ez errebaletan. Urdinik ilunena iduri zuen beltzetik hasi eta zuri zurbileraino, mestizajearen aukera guziak ikusten ahal ziren. Tunbonak, tronbonak, zartaginak eta bertze aunitz tresna eskuetan, odola irakiten eta sabela urduri paratzen zuen giroa jabetu zen bazterretan.

- Ayá vienen *Los pregones* -erran zuen Maria Josefak- arroyando tras la comparsa.

Aspaldi batean ozeanoaren bertze aldean sardina-saltzaileek eta zorroztaileek bezala, Habana inguruko nekazariak *Pregonak* kantatzen omen zituzten, papaia, juka, kokoa, guaiaba, mangoa edo banana saltzeko. Kantek lanbide horietan hartzen zuten oinarri eta, irakasleak errandako hitzen oihartzun, konpartsa batek *Manisero* jo zuen jendearen gozagarri.

Auzo bakoitzak bere karroza zekarren. Guanabo, El Cerro, Guanabacoa, Vedado, Guanimar, Miranao, Habana Zaharra eta bertze hainbat alderditan egindako lanak ikusi ahal izan zituzten jainko eta jainkosaz beterik. Ogun, Chango eta Lemanja, urre-paperezko koroak buruan, dantzari zebiltzan kartonezko zutarri borobilen erdian eta gezurrezko zaldiarra in erraldoiak zaindari. Alberto Jose erreginarik ederrena hautatzen ari zen segurik eta, elefante gainean zetorren olandra ikusi zuelarik, bere azterketaren berri eman zion Migeli belarrira:

- ¡Rehia mulata!

Aspaldiko partez bat zetozen, eta irri bihurri berak elkartu zituen.

- A propósito -erran zion Migelek-, ¿aquí en Cuba la expresión *sándalo selest* tiene alguna significación especial?

- ¿A qué viene eso, hermano?

Arnasa hartu eta, gero eta harroago, heren-suge baten tamaina hartu zuen terminologoak. Ahoa zabaldurik, sua botako ziola uste zuen Migelek. Inguruari erreparatu zion Alberto Josek disimuluz, Maria Josefa aldamenen ote zeukan jakiteko eta, urrun samar zebilela ziurtatu zuelarik, bekainak kopetan goiti galtzeko zorian, hitz saminak entzun behar izan zituen Migelek oinaztura eta ortotsen artean, zeren...

- Usted no debió haser eso, compañero. Sólo hay una mujer, ¿o quisá dos?, en toda La Habana que pudieran exclamar esa espresión, y omito desir en qué sircunstansias. Ahora ya yo sé dónde fue a parar mi libro japonés, aunque quién sabe.

Ikuskizuna, beharrik, azkenetan zegoen, eta Maria Josefak, intentziorik batere gabe, ordainezineko bidea erakutsi zion Migeli terminologoa-ren haserreari ihes egin ahal izateko; uholdean galtzeko beldurrez, hitzordua zuen ordubetera El

Mascarón izeneko ostatuan eta Migel, ordu laurdena bete baino lehen, jitoan, bakarrik zebilen zurrunbiloaren erdian.

Alberto Josek lekukorik gabe hitz egin nahiko zuen bere maitale, emazte edo dena delakoarekin, egin berri zitzaion susmoak oinarririk ba ote zuen jakiteko. Migel, bere aldetik, gizonak, senarrak edo dena delakoak eskaini zizkion hitzak aztertu eta kontuak egiten hasi zen, eta *O quisá dos* hartatik bi ondorio atera zituen: alde batetik, Aleida eta terminologoaren artean bazegoela zerbait; eta bertzetik, Alberto Jose, Migelek ohar-kabea aipatutako auskalo zer bitarteko, Trocaderoko maizterrarenganako ez ezik, Maria Josefarenganako maiterrearen oliotan frijitzen ari zela.

Nolanahi ere, zer zen Japoniako liburuaren kontu hori?

Izkinetan salgai zegoen azukre-kotonaren kolorea sortu zitzaion ilunabarrari eta, hurbilago, Maleconaren karelean jesarririk, etzanik edo zutik, maitasun jolasetan zebilen jende gaztea. Almendraren antzeko begiak, larruaje ia urdinak, ezpain moreak, tabakoaren koloreko ile kizku-

rrak eta elkarren arteko nahasturaren ondorioz gertatzen ahal ziren mirari guziak sartu zitzaizkion ninietan barna eta, oroimenean gorde eta gero, irakaslearen bila jo zuen berant baino lehen.

El Mascarón ostatuan ez zegoen iskilin baten-dako lekurik. Arazoak izan zituen jende artean aitzinera egiteko. Baina, azkenean, kristalezko malkoekin apaindutako lanpara bana atzeman zuen emazteki baten belarrietatik zintzilik: Maria Josefaren aurpegia ezagutu zuen. Bakarrik zegoen, errelojuari begira, eta Alberto Joserren galdea egin zion Migelek.

- ¡Pendeño del caraho! -atera zitzaion bihoztzaren erditik-, me yamó piruha.

Ez omen zion sekula barkatuko; asperturik zegoen konfiantza faltarekin. Bere laguntza izan ezean, orduko dolarrak aldatzen ibili bertze erre-mediorik ez zuen izanen eta, gainera, berari esker ematen zioten espainiarrek ia urtero beka; sekula ez omen zuen karrerarik atera: ez linguistika, ez informatika, ez deusik.

Terminologiari buruzko biltzarra aipatu zion Migelek, eta *Tremenda turca, compañero* iharde-

tsi zion irakasleak. Ez zuen gauza garbirik erran, baina *tapadera* gisa erabiltzen ote zuen ulertu zion, eta disko konpaktoak fabrikatzeko material berri baten formula ere utzi zuen airean. Maria Josefa amorraturik zegoen erabat, eta gupidarik gabe ari zitzaion mendeku hartzen.

- De modo que -galdetu zion Migelek- ¿la beca no se la da el Gobierno de Cuba?

- Negativo. El asunto es que yo trabajo en la Enbahada de España y, en fin, ya tú sabes... ¿No te lo diho Alberto José?

Ez zekien deus ere.

- Por sierto... -erran zion Maria Josefak be-
rriari sobera garrantzi eman nahi gabe bezala-,
ayer la secretaria del agregado cultural mensio-
nó tu nombre.

- ¿Mi nombre?

Agiriren bat galdu ote zitzaion pentsatu zuen hasmentan, baina bigarren hausnarketa batean teatroko eskolan sartzeko azpilanak etorri zitzaizkion burura, eta larritu egin zen; Alberto Joseren susmopean zebilen orduko eta, hark nahi ezean, ez zuen sekula ez baimenik ez etxerik es-

kuratuko. Datu gehiago behar zituen, eta amua bota zuen solasaren erdira:

- ¿Qué pues?

Arazoa uste baino larriagoa zen, zeren...

Che Guevararen heriotza eta hogeita borzgarren urtemuga aitzakiak baizik ez zirela erran omen zion nagusiak; alegia, demokraziaren aurpegia desitxuratzeko eta aspaldi gainditurik zeuden kontuak berriz ere astintzeko. Espainiako edozein hiritarrek enbaxadaren bitartez eraman behar zituen Kubako erakunde ofizialekiko harremanak eta, makur jokatu baitzuen, Migel susmagarri bihurtu zen Kulturako ordezkariarendako.

Atearen mugan, barnera so, Maria Josefaren bila ziurrenik, Alberto Joserren buru biribila atzetan zuen Migelek, eta keinu egin zion non zeuden jakin zezan. Igeri bezala abiatu zen besoekin lagundurik. Haserreak sutan jarraitzen zuenez, barrara heldu baino lehen egin zion alde bere kuttonak. Aurpegian igarri zitzaion ez ziola batere graziarik egin, baina duintasun faltsuz moztururik, goiari eutsi eta betiko solasari heldu zion, zeren...

- El asunto estriba en que los términos, cualquiera que sea la materia, están ya repletos de asepsiones diferentes.

- Entiendo.

- Tanto es así que dentro de la palabra no queda ya más espacio, y comensaron a explotar como bombas de relohería.

Alberto Joseren hitzak premonitorioak gertatu ziren. Suziri batek egin zuen eztanda eta ondotik bertze bizpahiruk. Argitasunez eta kolorez jantzi ziren leiho guziak harrigarri. Lepo zegoen ostatua hutsik geratu zen bat-batean, eta Migel eta bere solaskidea ere kanpora jalgi ziren su artifizialak ikustera. Espermatozoide urdin bihurriak, tropelean, sigi-saga saiatzen ziren goia jotzen, baina indarrrik gabe azkenean, iluntasunak irensten zituen banan-banan. Aldian behin, uretan jausitako harriaren eraginez bezala, malba koloreko lore batek egiten zuen zapart, eta ondoren gauaren beltzean galtzen zen uhin zabala-goetan barreiu. Eztandaz eztanda zebiltzan Alberto Joseren termino terminal guziak ere, eta lehertutako granadaren mamia bezala agerian, ale gorritz egindako iduneko gero eta handiagoak

uzten zituzten zeruan. Ikuskizuna akitu aitzin, Maria Josefaren belarritakoetatik askatuak irudi zuten malko esmeralda batzuk gelditu ziren han nonbait zintzilik eta, instant bat orekan eman ostean, jauskailuaren laguntza balute bezala, ezarian etorri ziren beheitika.

Azken trago baten esperantzan zegoen Migel, bertze zerbait jakiteko aukerarik sortzen ote zitzaion, baina Maria Josefak besotik atxiki eta bazihoala erran zion. Alberto Jose ere hurbilean baitzen, bortzekoa eskaini zion gertatutako tirabirarengatik erresuminik txipiena erakutsi gabe. Ez zekien, egia errateko, elkarrekin zihoa-zen edo bakoitza bere aldetik, baina atsedean hartu zuen bakarrik utzi zutelarik, zeren...

Ortotsen oihartzuna zeraman belarrietan eta lurraren ikara sentitzen zuen oinetan.

Arestian erretako bolboraren usaina aditzen zen bazter guzietan, eta habanarrek goiti begira jarraitzen zuten su galduren bat noiz agertuko. Azkenean izarrak bertzerik ez ziren geratu eta jendea, banaka lehenik eta tropelean ondoren, karnabala utzi eta karrika artean galdu zen. Auzo

urrunetako biztanleek etxe aldera jo zuten kamionetan gainezka.

Itsasoa bare-bare zegoen. Hondoak pizturik balego bezala, turkesaren argitasuna zerion azalari. Indarrik gabeko uhin ziztrin batzuk bertzerik ez ziren iristen Maleconeraino. Esku batekin eragindako palasta bera ere ezinago garden entzuten ahal zen gauaren erdian.

Espaloiaren ertzean *Bus* paratzen zuen seinale metaliko gorri baten ondoan dozena erdi lagun zeuden hark ematen zuen itzalaren arrastoan lerro-lerro. Egunkari bat zekarren Migelek hoteletik, eta paperezko txano bihurtzeko zorian egon zen errukirik gabeko eguzki hartatik babes-teko. Autobusa uste baino lehen heldu zen, eta ez zuen ahalkegarri gelditu behar izan. Urdin turkesaz margotutako antxoa-lata xarmanta zen eta aulki bat, zorionez, bazegoen libre; beraz, egun hartako berriak irakurtzeari ekion zion.

Iberoamerikako III. Gailurra Bahia de San Salvadorren bildurik zegoen, eta zenbait agintariren hitzak jasotzen zituen egunkariak. Albisteak ez zeukan -Migelandako, bedere- aparteko interesik, baina irakurri egin zuen dena den.

Paz Zamora Boliviako lehendakariaren ustez *Gero eta zailagoa ari zen bihurtzen Kubaren aldeko elkartasuna.*

Alberto Fujimorik, bertzalde, Abimael Guzman Sendero Luminoso erakundeko aitzindaria

aipatzen zuen, *Ahal izanez gero tiro bat emanen ziola* aitortzeko.

Espainiako Erregea beti bezain argi eta zorrotz mintzatu zen, eta bere hitzaldia errematazko, *Garapen soziala eskubide indibiduala ez ezik, betebeharr kolektiboa ere bazela* erran omen zuen serio-serio.

Fidel Castrori leku gehiago eskaintzen zioten, bertzeak bertze, isilik geratzeko ohiturarik ez duelako, zeren...

Hego eta Ertamerikan laurehun milioi biztanle baino gehiagok ez omen zuten ordezkari iraunkor bakar bat ere Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluan eta, gainera, bortz potentzia nagusiek baizik ez zuten betoa erabiltzeko eskumenik.

Aski iruditu zitzaion mundua nola zebilen jakiteko; gainera, ez zekien ziur non jaitsi behar zuen, eta gidariari galdetu behar izan zion.

Ispilutik zeharka begira zanpatu zuen freno, eta aitzineko atea ireki zion denbora gehiago ez galtzeko. Alde batera eta bertzera mugitu zuen burua nolako gibelak zeuzkan adierazteko, baina ez zion, alabaina, fitsik erran.

Ozta-ozta bizkarrean zeukan pilotalekuaren atea Migelek, eta zabalik zegoela probestuz, eguzkiaren azpian su ez hartzeko, sartu egin zen Virgilioren zain egon gabe. Ordu laurden lehena-go iritsi zen adostutako tokira, eta zementuzko mailadian jesarri zen itzalaren gozoan. Urteetan abandonaturik, aldamiok beterik zegoen, baina besta eguna izaki, ez zebilen langilerik. Isiltasun mortu hartan bildurik, pilotaren oihartzuna entzun zuen bere baitan.

Virgilio Monterok agindu bezala, astebete gabe jaso zuen bere deia, zeren...

Egunak aitzinera zihoazen, eta egindakoaren berri eman nahi zion. Urtemugaren inguruko ekitaldiak antolatzeko batzordekide batekin bildu berria zen, eta prest zegoen behar bezainbat laguntza emateko. Baina bazterrak endredatzen omen zebilen norbait, eta xehetasun batzuk aipatu nahi zizkion.

Igandean paratu zion hitzordua. Institutuak egun hartan ez baitzituen ateak irekitzen, Concordia karrikan elkartuko ziren, zeren...

Pilotaleku zahar bat zegoen bertan, eta era-kutsi egin nahi zion.

Behialako jarleku ederrak hondaturik zeuden. Lur jotako lantegia irudi, leihoetan ez zuen kristal bakarra osorik ikusi. Azalik gabe zeuden hormak, lurra pitzaturik eta herdoilak janik zeukan osoro frontiseko txaparen burdina. Nolanahidela, *Jai Alai* irakurtzen ahal zen goiburuan, eta berdez edo urdinez margotutako bazterren bat ere bazegoen. Arras handia zen, hamasei koadro; punta-xisteran jokatzeko erabiliko zuten, noski. Euskal Herrikoa ez bezalako giroa behar zuen izan, habanarrez beterik. Pilotariak etorri zitzaizkion gogora, partidaren beroan, non zeuden ere jakin gabe, elkarren artean euskaraz solasten. Garai hartan irabazleak txapela jantziko zuen Kuban... eta Migelek Obispo karrikako alkaterekin oroitu bertze erremediorik ez zuen izan eta, bide batez, Ainhoari ere egin zion tartetxoa, zeren...

Migeli poz ematen zion Ainhoak maite zuela pentsatzen zuen bakoitzean eta, berak ere pixko bat, bedere, maite ezean, ez zuen uste halakorik posible izaten ahal zenik. Opari gisa hartzen ahal zuen bere aitopena baina, bai zera, La Vienesa kafetegiko goiz hartan, hostoa baino arinagoa

izaten ahal zena, harria baino astunagoa iruditu zitzaion. Orain, aldiz, ez zegoen hain ziur eta, beharbada, faltetsi ere egiten zuen neurri batean.

- ¡Aire! -entzun zuen halako batean.

Virgilio zen sarrerako atean keinuka. Bortze-koa elkarri eman ondoren, zizerone lanak egin zituen; arranoari hegan erakusteko gogoarekin zetorren, agi denez, eta, solaskidearen jatorria kontuan hartu gabe, harrizko zapata-kaxa hura aspaldi batean oihu eta zalapartaz bete ohi zela eman zion jakitera. Amaraun ikusezina ehuntzen omen zuen pilotak tanto bakoitzean, eta giroaren oihartzunean nahasten ziren osagaiak oroi-tarazi zizkion: aitzineko hormaren kontrako kolpea, botea bera, xisteran harrapatzean ateratzen zuen soinu idorra edo txaparen gaineko ez-tanda izugarria eta, gainera, pilotarien arteko aginduak, zigortu gabeko faltaren bat salatzeko biraoak, bitartekarien oihuak edo ikusleen artean sortzen ziren zarta-zaparradak eta iskanbilak.

- El palasio de los gritos -deitzen zioten orduan pilotalekuari.

Aurki beteko ziren berrehun urte euskaldunek pilota ekarri zutela. XIX. mendean zabaldu zituen Concordia karrikako fronton hark ateak. Igande eguerdian musika-banda batek Kubako Ereserkia eta Gernikako Arbola *-Es desir, el himno de los fueros o libertades vascas-* jotzen zituen partida hasi aitzin, eta jendea zutitu egiten zen entzuteko. Habanako hiriak ez zuen hainbateko ekarpena aitortu gabe utzi nahi; zorretan zeuden Euskal Herriarekin betiko, eta bere garaian ezagututako mailara jaso nahi zuten pilota.

Kontu gehiago ere bazeuzkan eta, hitz bertze, Iruñeko ekimenari buruzkoak ekarri zituen solasera. Ez omen zen ahalegin faltarengatik izan, baina gauzak ez zihoazen behar bezain ongi. Bihotzetik bihotzera adierazi nahi zion bere nahigabea. Eskariz gainezka zebiltzan, eta komandantearen adiskide, burkide eta familiarteko gehienek emana zuten beren izena han eta hemen parte hartzeko. Atzerriko konpromisoez bertzelakorik ere bazuten, Santa Claran antolatzen ari ziren gorazarre nagusia ere bideratu beharra adibidez; baina, tira, bazegoen denbora

pixko bat, eta lehen mailako eginkizunen zerrendan sarturik omen zeukan Migelen izena.

Ezinak ezin, albiste hobekak ere bazituen berrendako: Guevarak eskumuturrean kendu gabe eraman ohi zuen *Rolex* handi bat -oraino bazebilena-, tabakoa erretzeko erabili ohi zuen pipa zaharra eta, gainera, Sierra Maestran eguneroko pasadizoei buruzko oharak jasotzeko erabiltzen zuen libreta txipia.

- De su puño y letra.

Eskerrak eman zizkion, baina aurreko egunean eskatutako kantariari buruz deus erraten ez baitzion, Carlos Pueblaren izena utzi zuen Migelek airean.

- Nada lo hubiera hecho más felis, pero desgrasiadamente fayesió hase por lo menos tres años.

Aho bete hortz, ahaleginak egin zituen bertze kantariren baten izena oroitzen, eta Virgiliok berri ere pilota kontuak aipatuz josi zuen solaskidearen etena. Bi astekari omen zeuden aspaldi hartan Habanan pilotaren berri ematen zutenak: *Euskal Erria* eta *Beti Jai*. Orduko pilotarien izen batzuk ere oroitzen zituen, hala nola: Ituarte, «El

divino sonámbulo»; Nicasio Rincon, «El Pitágoras de los frontones» edo «Macala» -*Que significa floho en vascuense*-. Eta amaitzeko, hirian zer erran handia eman zuen pasadizoa kontatu zion:

Ez zekien zein bikoteren kontra, baina Bergarako Txikito zeukan gibelean Makalak, eta azken tantoa bertzerik ez zitzaion falta. Aurkariak, ordea, piztu egin ziren eta, azkenean, inork espero ez bazuen ere, ados egin zuten. Egun haie-tan partidak hogeita hamarrera izaten ziren, eta bikote bakoitzak bazeuzkan hogeita bederatzi. Aitzineko jokalaria sakatzera zihoala, *iAire, Macala!* entzun zen frontoneko harria pitzatzeko moduan, eta hirugarren koadroan paratu zen jokalaria pilota errestitoan eramateko prest.

Azken hurreneko kinka larri hark bazuen Habanan bere izena: *El tanto de la buya*, eta une hartan lehertzeko zorian omen zegoen *Oihuen Jauregia*.

Airean harrapatu zuen Makalak pilota, baina indar izugarria zeraman, eta xistera puskatu zitzaion. Are gehiago, puskatu eta zulatu egin zuen pilotak, bere traiektoria jarraituz. Ikusleek ez zuten sinesten ahal eta pilotaria, harriturik,

bere erremintari begira gelditua zen. Amorruz beterik egin zuen alde, baina inoiz baino zarta gehiago jaso zituen egun hartan. Ohi ez bezala, Makalak galdu zuen partida aspaldiko partez. Habanak ez zuen jokaldi hura sekula santan ahantziko.

- La Atenas de la Pelota Vasca -deitu zion Virgiliok Kubako hiriburuari.

Eta iraganaren orrialdea pasatu ondoren, etorkizunari egin zion bide. Azaroan beteko ziren bi urte Euskal Pilotaren Munduko XI. Txapelketa egin zenetik Habanan, eta hainbat jende zebilen buru-belarri orduan hasitako bideari segida emateko. Aunitz gauza zeuden jokoan eta ez kirolaren aldetik bakarrik, zeren...

Turismoaren garrantzia atzendu gabe, Ipar Amerikako Estatu Batuek tematurik segitzen zuten blokeoarekin, eta parada ezin hobea gertatzen ahal zen nazioarteko harremanetan aitzinera egiteko, zeren...

Asmo handiko eginkizunak zituzten abian -Concordia karrikako pilotaleku hura berritzea, konparazione-, baina Espainiako jendeak indar handia zeukan Euskal Pilotaren Nazioarteko Fe-

derazioan eta, denak ere amets hutsak gertatzen ahal ziren laguntzarik ezean, zeren...

- El asunto estriba que hay un pendejo en la delegación española que dise que las relaciones de los ciudadanos de su país deben de ser tramitadas nesesariamente a través de la Enbahada.

Ez zion gehiago azaldu behar izan. Ez zuen harreman diplomatikoetan sartzeko batere asmorik, bazekien ez zuela deus erdietsiko. Ainhoak ez lioke baimenik emanen jakinaren gainean balego; beraz, bertze alde batera begiratu eta, isil-isilik, parentesia egin zuen, Virgiliok solasean jarrai zezan:

- No hay derecho.

Esperantzarik ez galtzeko gomendatu zion hala ere, zeren...

Ez zen lehen kasua, eta edozein txalupak ba omen zeukan bideratzeko aski denbora zubiaren begira heldu bitartean, zeren...

Afrikan komandantearekin batera borrokan ibilitako norbaitekin zegoen harremanetan -erabateko diskrezioan ohitutako jendea-, eta Mexikon *Granma* yatean itsasoratu zirenen artean

ere bazeukan ezagunen bat edo bertze laguntzeko prest.

Atzendu ezineko zerbait zeukanez, fite lekutu zen Virgilio. Ortotsa buru barnean lehertu izan balitzaio bezala, soraio gelditu zen Migel pilotalekuaren erdian bakarrik. Egunkaria besazpian, kanporako bidea hartu zuen mantso-mantso, eta espaloia ertzean jesarri zen busaren zain. Jendez mukuru zetorren, baina Migelek ez zeukan lurrean geratzeko asmorik, eta gibelego sarrera zabalik zegoela probestuz, barnera igan zen autobusak ihes egin baino lehen. Inork ez zion dirurik eskatu eta, egia errateko, ordaintzeko ohiturarik ez zegoela ematen zuen, baina arrotz izaki, hobe zuen zintzo portatu; ondoko mutiko bati txanponak eman eta eskuz esku, katean, txoferraren aldameneko potora heldu ziren, edo heldu bide ziren: txilin-hotsa entzun zuen Migelek, eta handik tarte batera txartela eman zion anabasaren erdian sortu zen esku batek.

Aldameneko aulkiaren bizkarrean hartu zuen berme. Eskolako haur batek burua sartzen zion ezkerreko besapetik etengabe, eta bere ama zo-

ragarriaren paparrean zeraman berak sudurra tantaka. Izerditan zegoen, pega-pega eginik zeraman elastikoa. Amaigabea egin zitzaion bidea eta, etsipenaren zorian, hoteletik gertu zegoela erran zion errautsaren koloreko aitona zahar batek. Ateekin asmatu ezinean ibili zen txoferra baina, halako batean, gorde ezineko eztula bezala, tupustean ireki ziren. Ahal izan zuenak heldulekuren bati eutsi zion arren, Migelek ezin izan zuen orekarik gorde eta, jaitsi gabe, jausi egin zen espaloiaeren gainera.

Jatetxe dotore bat proposatu zion Maria Josefak ikastaroari akabaila emateko, eta Migelek ez zekien ezetzik erraten. Nahiz izena kontuan hartu ez, aireporturako bidean zegoen, eta taxiari deitu behar izan zion. Newtoni ere erraten ahal zion, baina habanar guziek elkar ezagutzen zute-la iruditzen zitzaion, eta diskrezioaren bidetik jotzea hobe. Arrats apal, bederatziak aldera egina zuten hitzordua eta, nahiz bortz minutu lehenago heldu, zain zeukan mahaikidea. Atorra laburrez eta galtza zabalez jantzirik zegoen; azenarioaren kolorekoak, eta oihalaren gainean marrazki geometriko urdin eta gorriak zeuzkan apaingarri. Bi solairuko takonak zeramatzan, eta Afrikako zuhaitz idorrak baino harroago zekarren ilea.

Atezainak ez zion inolako kutermarik sortu, baina Migelek ez zeukan protokoloaren berri, eta arazo koxkor bat izan zuen etiketarekin sarreran. Beti bezala, mahuka hutsik jalgia zen hoteletik. Ezker-eskuin egin zion atariko zaindariak burua-

rekin. Azala zuria eta ilea gorri, sir Francis Drake-ren ondorengoren bat izaten ahal zen, baina ulerbera portatu zitzaion. Atzerritarren begirune faltarekin ohiturik zegoen antza denez eta, deus erran aitzin, jaka beltz bat ekarri zion arropategitik. Espartinak, beharrik, hoteleko gelan utzi zituen, bertzenaz, bi koloreko zapatak ere aterako zizkion beharbada.

Eskuko eskailera baten moduan makurtu eta ohorezko kilimusi baten ondoren, erreserban zeukaten mahaietan paratu zituzten arduratsu. Etxarteko patio gordean zegoen jantokia, eta alde batetik bertzera zebilen mahai gaineko kandela txikiak pizten zerbitzari bat. Etxafuego moduan igan eta bortz edo sei metro goitiago leher egiten zuen palmondo sendoa egokitu zitzaientaldamenean. Nahiz ilun, zeruak urdinari eutsi nahi zion, baina ikusten zen izarrik aldiaren behin keinuka.

Esku artean zeukan Migelek janari-zerrenda. Sekula entzun gabeko platerak ziren gehienak, eta Maria Josefari utzi zion afariaren ardura. Ez zuen irakurtzeko lanik hartu, eta sukaldearen eskaintza buruz zekiela erran izan balio ez zen so-

bera harrituko. Eskaria jasoko zion norbaiten arreta bereganatzen saiatu zen ondoren behakoa-arekin eta, libreta eskuan, argiak gobernatzen ibilitako gizon bera hurbildu zitzaien. Isilik hartu zituen oharrak eta, bitartean, ikasleak ere bere blok gorria atera zuen galtzetako sakelatik..

- Esta ves se trata -Maria Josefak ezul txipi batzuk egin zituen- de un film realizado bajo la dirección de Fred Zinnemann que yeva por título *Julia*.

Aspaldi elkar ikusi ez duten bi lagun minen arteko historia kontatzen zuen; Jane Fondak (Lillian) eta Vanessa Redgravek (Julia) egiten zuten lana.

Ameriketatik dator Lillian eta, Parisera heldu delarik, Juliari deitzen dio hainbat aldiz Vienara. Ez du harrapatzen, baina zenbait egun sarrixea-go, gaupasa egin eta hotelera bueltan, gizon bat, Johann (Maximilian Schell), hoteleko harreran dauka zain. Goraintziak ematen dizkio Juliaren partetik, baina bertze zerbait ere badakar. Alemanian naziak daude jaun eta jabe aspaldi; erresistentzian ibilitako jende andana dago preso eta atera egin nahi dituzte lehenbailehen kartzela-

tik. Gatibuen askatasuna erosteko asmotan baitabilta, norbait behar dute dirua mugaz bertze aldera eramateko. Onetsi egiten du Lillianek proposamena eta, sosak sonreroan goderik, trena hartzen du Berlinerara.

Ostatu batean paratu diote hitzordua eta, atea zabaltzen duelarik, mahai baten gibelean jesarririk ikusten du Julia. Egurrezko protesia darama eskuineko hankan; nazi gazte batzuen oparia, unibertsitate garaian. Aunitz gauza dauzkate elkarri kontatzeko, baina ez dago astirik. Sonbreroa besaulkiaren gainean elkarren arteko tartean uzteko erraten dio Vanessa Redgravek eta, berokiaren barneko aldean ezkutatu ondoren, makuluak besoetan, komunera jotzen du. Atea giltzatu eta aldaketa lanak egin eta gero, bere lekura itzultzen da. Egindako ahaleginari esker, bortzehun preso -beharbada gehiago- askatzen ahal zituzten. Alde egin beharra dauka Jane Fondak berehala, zeren...

Moskura doa, biltzar batean hartu behar du parte eta trena zain dago.

Aiduru urdurian, Lillianek sonreroa jaso gabe utzi du, eta Juliak ohartarazi behar izan dio.

- Es la versión cinematográfica de una novela extraordinaria que publicaron, si mal no recuerdo, con el suherente nombre de *Pentimento*. ¿Tú sabes qué significa?

Italieraz, aspaldi, «damua» erran nahi omen zuen, baina artistaren batek adiera berezia eman nahi izan zion hitzari eta, obra bat amaitu eta gero, azpian geratutako trazu ezkutu guzien nahaste-borrastea izendatzeko erabiltzen hasi zen, zeren...

Denboraren poderioz, azaleko olio garden bihurtu ahala, zuhaitza ikusten ahal zen soineko batean barna edo itsasontzi handi bat agertzen zen jauregiaren gibelean gorderik.

Ez zekien zer zeukaten platerean, baina bapori zen Migel inolako aitzakiarik atera gabe. Irakasleak, milinga, ez zeukan gogorik, baina dene-tarik jaten zuen, eta bere lagunak baino gehiago gainera. Aldian behin sardexka bazter utzi eta bloka zabaldu ondoren, boligrafoa hartzen zuen ikasleak eskuan; euskaraz idazten zuen badaezpada, zeren...

Ohar haietan endredatzeko tentazioa izaten ahal zuen Maria Josefak.

Mendearen bigarren hereneko urte nahasiak erakusten zituen filmak, eta oinarri biografiko sendoak zituen. Jane Fondak Lillian Hellman idazlearen papera egiten zuen; arestian aipatutako nobelaren egilea.

Eraso faxistaren aurkako biltzar internazional batean parte hartzeko gonbita jaso zuen New Orleanseko alabak, eta idazteko makina eta senarra -Dashiell Hammett nobelagile ospetsua-etxean utzirik, Moskurako bidea hartu zuen bertze aunitz idazlek bezala. Migelek ez zituen, gaitzerdi, denen izenak entzun beharrik izan, baina bertzeak bertze Erwin Piscator, Sergei Eisentein, Vsevolod Meyerhold, Konstantin Stanislavski, Joseph Losey eta Bertolt Brecht bildu omen ziren bertan.

- El asunto es que un chino, un tal Mei Lang Fang, acudió también al Congreso, y el gran Bertoldo, al pareser, entró en profunda crisis.

Ekialdetik etorritako aktorea zen eta, agi denez, biltzarrean ezagutu zuten elkar. Berliner Ensembleren ordezkariak bazekien Txinako teatroari buruz zerbait, eta ez zuen parada probestu gabe utzi nahi izan. Horrela, beraz, Beijingeko

Opera ikustera joan zen adiskide batzuekin, eta asmatu egin zuen. Akrobaziak, kankak, dantzak... bat egiten zuten, generoak oraino bereizi gabe egonen balira bezala, baina biltzarkidearen lana interesatu zitzaion bereziki, zeren...

Erabateko identifikazioa eskatzen zitzaion aktoreari Mendebaldean; bere buruarekin ahan-tzi eta paperean sartu beharra zeukan eta, obra-ren sarean harrapatu, berez sortu behar zi-tzaion irri eta negar egiteko gogo. Hagitz bertzelakoa zen Mei Lang Fangek egiten zuen lana: emakumezko pertsonajeak antzezten zituen, baina bere gizona bezala gorde gabe; gizona-ren gorputza erabiltzen zuen emaztekiarena era-kusteko, eta antzezteko modu horrek gaur egun bazuen teatroaren hiztegiaren izen bat.

- ¿Pentimento?

- Distansiamiento -zuzendu zion irakasleak.

Ekialdean, Mendebaldean ez bezala, desiden-tifikazioa zegoen teatroaren munitetan, eta Berli-ner Ensembleko zuzendariari pertsonajearen eta ikuslearen arteko tarte hori geratu zitzaion gogo-an.

- Una especie de marioneta -azaldu zion Maria Josefak- pero con su manipulador espuesto al público; como que fuera el *Bunraku* japonés; que también conosió el autor teutón durante su posterior periplo por el extremo oriente.

Ekialdean barna, Japoniara heldu zen alemaniarra, eta etxeak gobernatzeko zituen *ma* hura atzeman zuen antzerkiaren baitan ere. Europan, hau da, Mendebaldean, piramidearen egitura erabiltzen zen obraren ekitaldiak elkarren artean lotzerakoan, zeren...

Lehenak eta bigarrenak hirugarrenari eusten zioten eta hurrengoa, karta-dorre baten antzera, hiruron gainean paratzen zen. Azpikoren bat kenduz gero, ordea, lur joko zuen gaztelu osoak eta, jakina, hor zegoen maratilen krisketa, zeren...

Erran bezala, bionboaren egituraz baliatu zen, bertzeak bertze, Berlingo maisua, eta Ekialdetik ekarritako maileguari esker, aire berria eman omen zion Mendebaldeko teatro zaharrari. Ekitaldiek bazuten elkarren arteko loturarik, baina guziz osoak eta autonomoak bihurtu zituen; hortaz, baten bat baztertuz gero, obra ez

zen zertan gainbehera etorri. Atal bat kendu bertzea erantsi, Japoniako etxe tradizionaletan bezala, esparruaren tamaina eta tankera aldatzen ahal ziren. Ludovico Castelvetroren teoriatik behingoz libre, ate bakoitzak bertze ate bat zeukan gibelean.

Eguzki sortu berriaren lurraldeei buruzko aipamena entzutean, Alberto Joserren liburua etorri zitzaion Migeli burura. Ez zuen bazterrak nahasteko gogorik sobera eta, gainera, Osakako txo- txongiloen berri eman nahi zion irakasleak ikastaroa akitu aitzin, zeren...

- En Oriente el actor está vasío como las marionetas.

Antigoaleko teatro zaharra zen, baina bizirik zegoen, eta jende aunitz biltzen omen zuen oraino. la pertsona baten tamainako panpinak erabiltzen zituzten, eta bakoitzaren maneian -agerian, beltzez jantzirik- hiru lagunek hartzen zuten parte: nagusiak burua eta soina gobernatzen zizkion; bertze batek, eskuineko eskua; eta hirugarrenak, azkenik, ezkerrekoa eta soinekoaren azpildurak.

Autoreak idatzitakoari jarraiki, talde txipi batek zeraman testuaren ardura. Aitzinean kantadera, partaide bakoitzak pertsonaia bati ematen zion hitza. Errezitaldi korala zen eta, zenbait soka-tresnari ateratako musika lagun, enperadore, sorgin, printzesa eta samuraien paperak interpretatzen zituzten nork bere erregistroaren arabera.

Lauzpabortz lagunek eusten zioten txotxon-gilo bakoitzari, eta ahalegin horiek guziek bat egiten zuten neurrian bihurtzen zen bizidun. Ikusleak, azken batean, panpinaren zerbitzuan egindako lana baizik ez zuen jasotzen ahal, zeren...

Emanaldia akitu bezain laster gakoan zintzilik ez zen trapu zahar bat baizik izanen, apalean atzendutako edozein liburu bezala, eta hutsik zegoen, gainera, barnean; baina, Maria Josefaren ustez, huts horretan zegoen, hain zuzen, Japoniako teatroaren muina, Txinako aktoreak erabiltzen zuen teknikaren sekretua eta Bertolt Brech-tek Mendebaldeko teatroari egin zion ekarpenaren mamia.

Ekialdeko zigilu zaharrek ere hutsik utzitako tarteei esker ematen zuten aditzera bere mezua zurian, eza nabarmenduz, eta ondorioz erakusten zuten marraskia.

- Una auténtica revolución anti-aristotélica.

Azken platera erretiratu ahala eskatu zituzten kafeak. Tarte luze samarrak ematen zituen zerbitzariak agertu gabe. Ez zeukaten inorako presarik, eta aski zuten gauaren bero gozoa egonean egoteko. Aldameneko mahaian gizon bat ikusi zuen Migelek mahuka hutsik, eta bizar gorriko filibusteroa ageri ez zenez, jaka erantzi eta aulkiaren bizkarrean egokitu zuen berea. Berehala damutu zen, zeren...

Aitona beltz bat paratu zen pianoaren aitzinean, eta aspaldiko habanera bati ekin zion alez ale. Etenik egin gabe, bertze erritmo batzuk ere jo zituen eta, jakina, Kuban ez dago dantzan ez dakienik.

- A propósito del *distansiamiento*, sería inexcusable dehar pasar este mambo. ¿No te parece?

Irri-emangarri gelditu behar zuela bazekien Migelek, baina ez zion eskaria ukatzen ahal, eta

dantzarako zutitu ziren. Ilearen ukituarekin bakarrik zirrara egiten zitzaion, eta batzuetan bere bizar moztu gabeak bat egiten zuen Maria Josefaren masail leunarekin ezinbertzean. Aldian behin atxiki egiten zion gerria besoarekin eta, haren bularren pilpira nabaritzen zuelarik, suila putzuan bezala entzuten zuen berea.

Ainhoa bururatzen zitzaion baimenik eskatu gabe.

Pianoa isildu, elkarrengandik askatu eta jesarri egin ziren. Atzerritar guziak baldarrak izan ohi direla kontuan izanik, uste baino hobekiago moldatzen zela dantzan erran zion Maria Josefak. Migelek bazuen bere mugen berri, eta konfiantzarik gabeko behako zimurra eskaini zion. Ikastarolari buruzko solasean hartu nahi zuen lur irakasleak eta, Japoniara itzuli zelarik, teatroaren muina konprenitzeko ariketa *paradigmatikoa* proposatu zion, Zeami, XV. mendeko antzerkigile jakintsuaren irakaspenak probestuz.

- Olvídate del esenario... -erran zion lehenik.

- ...

- Verás a los actores -eta gero-: Olvídate de los actores...

- ...

- Verás a los personajes -eta jakina-: Olvídate de los personajes...

- ...

- Verás la obra -eta jarraitu zuen-: Olvídate de la obra...

- ...

- Verás el teatro, porque el reflejo, Miguel, da notisia del espeho -erran zuen amaitzeko, ikaslearen ustez amaitzeko.

Baina bazegoen gehiago, zeren...

- Olvídate del teatro.

Axolarik gabeko solasean ari zirela uste zuen Migelek ordura arte, baina Enbaxadaren adar psikologikoaren zerbitzari baten aitzinean zegoela iruditu zitzaion istantean, eta era honetan mintzatu zitzaion bere haserrea ezkutatu ezinik:

- ¿Y el teatro oriental y su influencia en Occidente?

Arazoa sasia bezala ari omen zen egun bate-tik bertzera korapilatzen, eta arraina harraskan harrapatzea baino errazagoa ematen zuena, itsasoa iraultzea bezain zaila bihurtzeko zorian zegoen. Espero baino franko jende gehiagok

eman zuen izena eta, gainera, azterketaren gaia ere ez zegoen erabat garbi.

Bazetorrela Kubatik lekutzeko tenorea ulertu behar izan zuen Migelek, eta Espainiako Kanpo Harremanetarako Ministerioaren itzala eta Alberto Joseren esku luzea madarikatu zituen.

Aldamenean zebilen zerbitzaria, eta deitu egin zion afariaren zorra kitatzeko. Etorri berri-tan bezala, eskuko eskailera baten eran makur-tu zen kilimusi egiteko bukaneroa. Joan baino lehen, Maria Josefari muxu merke bat eman gabe sikiera, goraintziak eman zizkion termino-logoarendako. Ez zekien zenbat denbora eman beharko ote zuen hoteleraino, baina oinez abia-tu zen zerura begira. Izarrak barreiu zeuden, xake-taula baten gaineko piezak irudi.

Itsas-lapurren pattarra bertzerik saltzen ez zuten zoko ilun baten berri eman zioten, eta bertara jo zuen bazterrak endredatzeko asmotan. Apalez apal ibili zen jeneroa aztertzen, eta *Caney*, *Paticruzau*, *Bucanero* eta antzeko izenak topatu zituen aspaldi garbitu gabeko botiletan itsatsirik. Ez zeukan zaharraren gustuen berri, baina zortzi urteko *Matusalén* bat topatu zuen bertze guzien artean galdurik, eta zer zor zuen galdetu zion dendariari. Estraperloko jeneroa baltz bezala, egunkari zahar batean bildurik eman zion gizonak botila.

Oparia besapean, Obispo karrikara heldu zen eta, txirrina jo bezain fite, pospolo-kaxa bota zion Arseniok oinetara. Atea ireki eta eskailerak igan zituelarik, azken solairuan zain zegoen aspaldiko lagun zaharra. Afaria prestatzen ari zen, eta gibeletik joan zitzaion zertan laguntzen ahal zion galdetzera. Eltzekote bat zeukan sutan, eta ordu erdia eskatu zion sukalde-lanak akitzeko.

Migel terrazara abiatu zen barrideen bizimoduari buruzko zerbait ikasteko, baina iragan bisitan ikusi gabeko liburutegi koxkorra atzeman zuen, eta Iruñeko liburu-dendarekin oroitu zen. Abenturazko nobelak ziren gehienak. Ernesto Che Guevarari buruzko liburu bat ere paratu zitzaion bidean, eta hartu egin zuen. Argazkiekin konformatu behar izan zuen, azpiko testua soberra letra txiapiarekin idatzirik baitzeterren eta lenteak, bereak izanagatik, ez zitzaizkion behar adina egoki. Aitzakia polita izaten ahal zen konpondu behar zizkionak aipatzeko eta, afaria prest zegoela erratera etorri zitzaiolarik, papera ia ukitu arte jaitsi zituen begiak. Debaldetan egin zituen ordea plantak, bere miopiari baino arreta handiagoa eskaini zion Arseniok erretratuari eta, jakina, ez zuen komandantearen gaineko bertze pasadizo bat kontatu gabe utzi nahi izan, zeren...

Boliviako mendi malkorretan hartu zuten preso. Etsaiaren lakioan jausi orduko ba omen zekien hilko zutela. Helikoptero bat heldu zen hiriburutik berehala. Oinutsik, lokatzetan, arropak zarpail, leher eginik, bere azken hatsa ospatzera propio etorritako jeneral zitalaren iraina entzun

behar izan zuen; baina, zutik, harro, duintasunik galdu gabe, belarrondoko bat eman zion merezi bezala.

Arriskuak saihetsi eta egun bizi izan balitz, aitona kaskailua izanen zen, ziur aski, erregimen zaharra kasatu zuten borrokalaria gehienen antzera, eta ongi egindakoarekin batera oker bar-kaezinak ere metatuko zitzaizkion bidean. Ez zioten, ordea, denborarik eman, gazterik egin zuen alde, eta hil ondoren atera zioten erretratuari begiratzen zion Arseniok arretaz, zeren...

- Es una verdadera lástima que la revolución sea patrimonio de la juventud principalmente.

Migelek ez zuen konprenitzen arrazoia.

- Los jóvenes quieren ver el resultado de sus esfuerzos de inmediato, pero hasen falta muchos pequeños cambios para sostener uno grande.

Oinetakorik gabe, soina biluzik, harriaren gainean zegoen etzanik. Ileak eta bizarra harro, begiak osoro bildu gabe, Palestinako maisua irudi zuen gurutzetik jaitsi berritan eta, horra!, ez zerraman deusik buruan; beraz, aldi onari atzaparka lotu behar gatzaizkiola oroituz, eskaria bota

zion hitzetik hortzera lagunari: Guevararen txapela.

Ezetzaren beldurrez zegoen, baina Arseniok ez zion inolako eragozpenik sortu. Eta, gainera, bandera eta burdina puska eramateko ere ba omen zeukan baimena nahi izanez gero.

Eskerrak eman zizkion mila bider.

Kezkaturik gelditu zen bere gain hartzen zuen erantzukizunarekin, eta ez zion txapela bertzerik onetsi, Kubako banderak munduko edozein bazterretan eskuratzen ahal ziren eta pistolarekin, berriz, arazo larriak izaten ahal zituen muga zeharkatzeko.

- Acá debe de estar también -erran zion liburuari so- la fotografía que figura en el pasaporte que falsificó para poder infiltrarse en el país andino. Al parecer, fue la única que se hizo con espehuelos. Que por sierto... -Migelen lenteekin oroitu zen- ...pero mejor primero senamos, ¿no le parese?

Arseniok sukaldera eta bere mahaikideak terrazara jo zuten. Ontzi pare bat eta Txekoslova-kiako ardo zuri freskoa ekarri zituen lehenik, eta baxoerdia ekarri zion Migeli janariari ekin bitar-

tean probatzeko. Isiltasunaren altzoan edan zuen trago bat goiti begira. Zilarrezko zulo txipiz beterik zegoen gauaren guardasola. Otarrain eder bat ekarri zuen bigarren bueltan eta, buruz buru, lagun zaharrak balira bezala egin zuten topa.

Kraskailua eskuan, batera egin zioten eraso munstro fantastikoari, gupidarik gabe. Adar-be-soak hustu, erdiko haragi trinkoa zatitu eta bu-ruaren tarte goxoena zurrupatu arte ez zuten amore eman. Azkenean, itsaspeko kanposantua irudi zuen portzelanazko azpilak eta, botilako hondarra banaturik, fikziozko zientzia aipatu ordez, abenturazko nobelak atera zituen Arse-niok solasera.

Aspaldiko *ingenio* hartan lanean zebilelarik ere, nobelaren bat edo bertze eskuratzen omen zuen noizean behin, zeren...

Bertzenaz, dagoeneko ez zen irakurtzeko gauza izanen, baina bi hatzak galdu ondoren Ha-banara aldatu behar izan zuelarik, borzpasei or-duko saioak egiten zituen liburu baten gainean, eta bertan zaletu zen literaturarekin.

Istripuari esker eman zioten lana zigarro pu-ruak produzitzen zituen enpresan. Eskola handi bat irudi zuen lantegiak, eta langileek -gehienak emakumezkoak - tabakoaren hosto idorra bihurritzen ematen zuten eguna mahai luzeetan. Aizto zorrotz batekin moztu, trinko-trinko bildu eta, behar bezalako tankera emanik, *Montecristo* irakurtzen zen paperezko eraztuna paratzen zioten ale bakoitzari muturrean. Arseniok, esku-ko aberia medio, ez zuen era horretako lanik egi-ten, eta bertze erantzukizun bat eman zioten.

- Maestro lector de novelas.

Irakasle baten moduan, bere baitan murgil- dutako lankideen mututasunaren pareko, elebe- rriak irakurtzen zituen mahai gaineko mikrofono- aren aitzinean. Ordu erdiko saioak izaten ziren, gelaz gela, oholtza baten gainetik beheiti begira, eta lau edo bortz aldiz ekin behar izaten zion ka- pitulu berari egunero.

Oraino oroitzen zen lehen liburuaren izenaz eta, kanabera-zati txipiz egindako gortina iraga- nez *El siglo de las luces*, Alejo Carpentierrena, ai- patu zuen. Gero, sukaldean, Graham Greeneren *Nuestro hombre en La Habana*, Gabriel Garcia

Marquezen *Cien años de soledad*, Illinoiseko bizar zuriaren *Las nieves del Kilimanjaro*. Eta terrazara itzuli eta postrea mahaiaren gainean utzi zuelarik, *Gabriela, clavo y canela* Jorge Amadorena.

Irakurritako nobela bakoitza, izarrak ikusteko teleskopioari eransten zaizkion lenteak bezala, begietan itsatsirik geratzen omen zitzaion. Izar-tegian paratu zituen Migelek ere begiak eta, espazio sideralean zilipurdika zebilela, eraberrituko lenteak eman zizkion Arseniok eskura.

- ¡Puro Carey!

Ispilua behar zuen eta, edandakoa desedateko aitzakiarekin, komunera jo zuen. Yves Saint Laurent jostunaren karantza eman zion bere buruari, edo Henry Kissinger Estatu Batuetako idazkari ohiarena bertzenaz. Denbora behar izaten omen da itxura berriarekin laketu arte; beraz, bueltakoan, prezioaren galdea egin zion mila bider eskertu eta sekula jantzitako egokienak zirela erranez.

- Un buen libro -izaten ahal zen ordaina-. Un libro de Baroja, por ehemplo.

Opari jasotako *Matusalén* botilaren bila joan zen zaharra, eta zorioneko Guevararen txapela ere ekarri zuen bueltan.

Azpikoz goiti utzi zuen mahaiaren gainean, zeren...

Xüberüa irakurri ezinik, *¿Qué cosa significa eso?* galdetu zion Migeli.

Euskal Herriak zazpi probintzia zituela azaldu zion, eta hortik goiti aitzakia pare bat, hala nola ez zuela hainbateko ohorea merezi, eta neurritz kanpoko erantzukizuna zela berarendako. Azken batean, atzerritar ezezagun hutsa bertzerik ez zen haren aitzinean, eta ez zuen konprenitzen nola paratzen ahal zuen horrelako konfiantza berarengan.

- En cuanto lo vi algo me diho que era usted una persona sensata. Sentido común. ¿Sabe usted, Migel, qué es eso?

Edozein artaburuk jakiten ahal zuen gauza iruditu zitzaion, baina belarrietatik atxikitako le-gatza bezain isilik gelditu zen argibidea entzun arte.

- La capacidad de distribuir la importansia entre las cosas -azaldu zion hitz bakar batean

huts egin gabe-, porque no olvide, compañero, que existe mucha gente intelihente, incluso briyante, que muestra tremenda dificultad para gobernar, como es presiso, un asunto tan sensiyo y sin embargo tan trasendental como el sentido común.

Arrautza frijituaren formula kimikoa azaldu nahi ziola zirudien, eta adarra jotzen ari ote zitzaiion susmatu zuen Migelek. Ez zegoen horrelakorik; serio, benetan ari zen. Arsenioren ustez, bere herrian ez ezik gainerako guzietan ere arriskuan zegoen jendearen sen ona, zeren...

- Adaptación injustificada -erran zion hasteko-, adulasión gratuita -gero, eta amaitzeko-: entusiasmo desmedido.

- ¿Entusiasmo desmedido? -oroitarazi zion hirugarren sintoma, adibide baten esperantzan.

- El sacrificio por aquello que no se comprende es caldo de cultivo para el fanatismo, compañero; en cualquier frente.

Irri-emangarri ari zen gelditzen, beharbada, Arsenioren aitzinean. Urtemugaren aitzakia zeukan, egia, baina, asmoa zuzena izanagatik, bidearen makurra ez zitzaiion barkagarria irudi-

tzen. Azalkeriaren eta irudikeriaren erresuman zegoen, eta Ainhoak eta konpainiak salatu nahi zuten zulo hartan berean ari zen jausten. Neurritz kanpoko gutziaren mende, koipe merkearen putzuan zebilen belaunetaraino sarturik eta, nahiz damurik gabe, zaharraren bedeinkapena behar zuen bere burua engainatzeko.

- Al fin y al cabo -erran zion Arseniok- usted es vasco, como la gorra, y además, no está del todo claro que fuera del comandante.

Ez zuen espanturik egin, baina korapiloa egin zitzaion zilkoan. Etsipena disimulatzen saiatu zen Migel. Kaskezurra ireki eta elur hotza bota izan baliote bezala zegoen. Eztarria idor, patta-rra behar zuen.

Arseniok aspaldiko Matusalen zaharraren urteak aipatu zituen topa egitean, baina nahigabeari buelta eman ezinik zebilen Migel, eta hurrengo egunean goiz jaiki beharra zeukala erran zion mahaikideari. Alde egin baino lehen, bere lenteekin hartutako lana estimatu zion zinez, eta Arseniok paperezko zorro bat ekarri zion zorioneko txapela eraman zezan. Edozein egunetan etorri nahi izanez gero, telefonoz deitu bertzerik ez

zeukan, eta Habanara berriz itzuliko balitz, Don Pioren enkarguarekin oroitzeko erregutu zion.

- No lo olvidaré.

Eskaileretan beheiti, kopetilun, bere buruarekin haserre zegoela konturatu zen. Azkenean berea egin zuen, aldean zeraman txapela, baina auskalo Cherena edo norena ote zen eta, makurrena, berea izanik ere sekula ez zuela ziur jakinen. Zer erran behar zion Ainhoari? Zer egiten ahal zuen? Egia aitortu, afarian entzundakoa ahantzi edo itsas bazterrera hurbildu eta Maleconaren gainetik hegan bota?

- ¿Un poco más de postre?

- He comido dos platos -egin zuen Migelek gibelera, eta mespretxurik suma ez zezan galde-tu zion errezetaren berri.

Anana erdi bat eta koko biren zuringoa arrailatu, txorrotada bat Marie Brizard bota eta dena batera nahasi. Ondoren *Dulce de leche* pixko bat paratu gainean. Hozkailuan denbora tarte bat eduki eta gero, mahaira ateratzeko prest zegoen.

Alberto Jose haserretu zitzaionetik sosegu hartzen uzten ez zion korapiloa sortu zitzaion sabelean. Erizainak ez zion aspaldi deitu eta, arrats apal, Trocadero karrikara joan zen, betilun, azalpenen baten bila. Oraino ez ziren bi aste Aleida ezagutu zuela, baina terminologoarekin izandako solasa medio, maiterrearen oliotan ari zen kiskaltzen, eta ez zion inori kontatzen ahal bere katramilaren berri.

Eskailerak igan eta, zinger frijitu, zitu pasatu eta ezagutzen ez zituen espezieen usainetan, atearen aitzinean eman zuen denbora pixko bat zer erraten ahal zion hausnartzen. Irrati urrun baten marranta entzun zuen, eta inguruan barri-derik ez zebilela ziurtatu ondoren, bisitan nor datorren kontrolatzeko sare-zulo txipian barna begiratu zuen mugimendurik atzematen ote zuen.

Ilunpetan zegoen etxea. Ez zen inor ageri.

Aldaba jo aitzin, aldameneko leiho batera hurbildu eta, ardura gabe, behako bat bota zuen patiora. Elastiko, maindire, kulero eta soinekoen

artean galdurik agertu zitzaion Aleida, baina hark ez zuen bisitaria ikusi. Arropa biltzen ari zen, eta Migelek keinu irri-emangarria egin zion bertan zegoela jakin zezan. Baina bere lanean murgildurik zebilen, albornoz morea soinean, eta gomazko bigudisez, plastikozko erruloz, koloretako gantxoaz josirik ilea.

Oihu bat entzun zuen Migelek gero, eta goiko etxeakoandrearen behakoarekin egin zuen Aleidak topo. Istant batez kasu emateko adierazi zion, eta handik laster soka baten muturrari loturik zegoen otarra ikusi zuen goititik jaisten. Otarrainak harrapatzeko egokia izaten ahal zen, baina ez zekarren deus ere barnean. Esku artean zerabiltena amaitu arte zain egotea deliberatu zuen barrandariak.

Besoetan kartonezko kaxatzar bat zekarrela agertu zen Aleida. Migelek *Pioneer* irakurri zuen harriduraz. Erizainak auzoko emakida-lanak zeramatzan, hortaz, grabagailu kontuetan, orain berari eta orain arte bera bezalako hainbat arrotz inozori esker, edo horrela iruditu zitzaion bedere. Azpilanetan zebilen; ez zegoen dudarik;

baina zer erraten ahal zion Migelek, Aleidak bereak zituen dolarrez erosi bazuen grabagailua?

Nolanahi ere, erabilia sentitu zen, eta zimur itsusia egin zitzaion kopetan. Alberto Josek aipatu zion aferaz jakin ez balu irri eginen zuen akaso, baina euria euriaren gainean ari zuen, eta alde egiteko zorian egon zen.

Inguruari erreparatu zion erizainak, eta patio-ko gortinen gibelean begiluzerik ez zegoela ziurtatu zuelarik, grabadora otarrean sartu eta kasu egin zion goikoari sokatik tira zezan. Barrideak arrantza egin arte iraun zuen Aleidak goiti begira eta, begiak jaitsi zituelarik, parez pare ikusi zuen Migel. Saguak katuari bezala behatu zion eta, leihoa hertsiki gabe, ziztu bizian egin zuen alde.

Ez zuen aldaba jo beharrik izan eta, atea ireki orduko, Aleidak lepotik heldu zion bi besoekin, zeren...

- No es lo que parese -erran zion belarrira losintxari.

Irri makurra sortu zitzaion gizajoari, baina ez zuen azpijokoarena aipatu. Erantzun zehatz baten bila zetorren, bertze zerbaiti buruzkoa. Al-

berto Joserren izena buru barnean mailuka ari zitzaien arren, une egokiagoaren zain eutsi zion mingainari. Iragan egunetan ikasi zuen bideari jarraiki, ia lurrik ukitu gabe, zurrumbilo batean heldu ziren ohantzera.

- Un milagro, Miguel. Parese que fueras otra persona con esos espehuelos.

Aleidak ere bertze norbait ematen zuen buruan landaturik zeraman baratze artifizialarekin, baina ireki gabeko botila baino isilago gelditu zen Migel badaezpada. Erizainak igarri egin bide zion behakoan, zeren...

Komunera joan eta ezpainak maxukrearen kolorez pintaturik eta ilea mototsean bildurik agertu zitzaion.

Ustekabean harrapatu zuen bisitaria eta, astirik eman gabe, muxu baten seinalea utzi zion lepoan.

Migelek albait arinen argitu nahi zituen gauzak:

- Ya sé que es una tontería, pero eso del *sándalo selest* me está martirizando.

Ez zuen horrelakorik espero. Grabagailuaren kontua aterako ziola esperoko zuen segurik, eta

errukiz begiratu zion. Elkarrekin emanak zituzten etzanaldi beroen oroimina nabaritzen ziztaion Migeli begietan, eta erizainak, sarean zeukala probestuz, jolasari jarraitu zion txeratsu.

- ¿Y si no te lo digo?

Armairuan gorderik zegoen pamelaren barnean, mahai Erdiko portzelanaren azpian, ama birjinaren gibelean, apalaren gaineko liburuaren orri artean, grabagailuan paraturik zeukan zintaren barnean edo, deusik erdietsi ezean, bere lagun berriaren soinekoaren azpiko arropen artean endredatzeko ere deliberaturik ikusten zenez Migel, amore eman zuen Aleidak azkenean:

- Es una especie de insienso... que antaño se usaba en santería.

- ¿Eso es todo?

Arretaz behatu zion Aleidak, baina ez zuen konprenitzen zer zerabilen Migelek buruan. Horrela, bada, jolasa urrunago eraman gabe, gibelerara egin zuen; jaiki egin zen eta, apal gainean miatu ondoren, liburu bat ekarri zuen eskuetan. Orriak begizatzen ibili zen pixko batean eta, bila ari zena agertu zitzaiolarik, pasarte bat irakurtzeko agindu zion.

iSándalo, sándalo selestee...!

- Lo leí una sola vez, pero se me quedó para siempre.

Atseden poxi bat eman nahi zion beharbada, baina susmoak areagotu egin zitzaizkion, eta ez zen bertze modu batean izaten ahal. Alberto Jose, bera bezala, Aleidaren intimitatearen jakinaren gainean zegoen, eta orduan konprenitu zuen *sándalo selestee* temati hura aipatu ziolarik zergatik paratu zitzaion terminologoa sutan.

-¿Tú conoces a alguien que se llame Alberto José?

- Es un nombre reño -ihardetsi zion-, pero ya no se oye mucho.

Elkar ezagutu zuten eguna oroitarazi zion, eta ba omen zegoen behar bezala konprenitzen ez zuen zerbait. Espaloian jesarririk zegoen eta balkonetik, telefonoa eskuan, berarendako zela adierazi zion. Okerren bat behar zuen izan, baina ez zuen lardaskatu nahi izan etxeko jabearengana hurbiltzeko aukera. Ez zuen espanturik egin, baina binaka igan zituen eskailerak. Alberto Jose zen. Nola jakiten ahal zuen Aleidaren zenbakia?

- Es fásil... -erran zion, azaldu beharra gustatuko ez balitzaio bezala, zeren...

- Mi teléfono está en la guía.

Egun hartako hitzordua Seviyita jatetxearen aitzinean zeukaten; beraz, Trocadero karrika bilatuz gero, zailtasunik gabe topatzen ahal zuen edozeinek pareko portalaren zenbakia, berdin zion Alberto edo Rigoberto Jose deitu. Etxeak ez zeukan hainbertze solairu, eta karrikan zain dagoen norbaiti dei egiteko, gainera, lehenengoa izaten ahal zen egokiena. Ezker-eskuinak deliberatzerakoan zalantza eginen zitzaion beharbada, baina zer dira bi dei? Ez zuen erotu beharrik izan, zeren...

Ostatuko atarira so egin eta bertan omen zegoen Migel.

- ilnequívoco!

Egiaren tankera zeukan. Eta egia zen, era berean, Alberto Josek ez ziola Aleidaren izenik aipatu. Baina agerian zegoena baino zerbait gehiago ere bazebilen, bere ustez, eta ez zuen susmo errebes hura burutik kentzen ahal, zeren...

Oraino ohantzean etzanik, Migelek esku artean zeukan liburua. Bizkarrari erreparatu zion:

El ciruelo y otros cuentos, Ozaki Naru. Ez izenburuak ez idazlearen izenak ez zioten deus erraten, baina Ekialdeko saildu buruhandi bat zegoen azalean apaingarri, eta terminologia hegazkinean irakurtzen ari zen liburua zela ohartu zen.

Dena bat zetorren.

Askaturik zegoen korapiloa eta esku artean zeukan froga.

Alde batetik, detektibearen poza sentitu zuen; bertze aldetik, atsekabe handia egin zitzaion. Bazterrak endredatzen hasi ez balitz, zalantza bere alde izanen zuen akaso, baina, jakinaren gainean, nola ematen ahal zitzaion galterdiari buelta?

Eguraldi txarraren aitzinean aurpegi alaia paratzen duenaren plantak egiten saiatu arren, kasketa harrapatu duen mutikoa nabarmendu zitzaion. Aleida, nola ez, berehala konturatu zen, zeren...

- ¿Qué tú te piensas, mi amor -erran zion gogor samar-, que eres el rey del mambo?

Arrazoia zeukan, eta ez zion aitzakiarik atera, zeren...

Pendeho, comemierda eta, gainera, baldar hutsa zen.

Ordura arte uste zuen sudur-zulo berdinetik hartzen zutela arnasa, baina inoiz ohandze be-rean etzanagatik ez zuten amets bera zertan egin.

Nahigabea egin zitzaion Migeli.

Azalpenen bat zor zion, baina ez zekien non-dik hasi, eta *Partagas* bat piztu zuen agurra nola egin pentsatzeko. Asmo guziak ongi bideraturik zeuzkalako ustean egona zen, baina huskeriaren eragina aski izan zen harreman guziak hankaz goiti paratzeko. Alberto Joserekin muturturik zegoen, eta Maria Josefaren kontuak ere edozein momentutan eginen zuen eztanda. Obispo karri-kako zaharrari zegokionez, berriz, ez zuen behar bezain garbi jokatu; beraz, ilobarekin, bedere, ongi amaitu nahi zuen.

Zigarro-muturra hautsontzian itzali ondoren, besarkada eman zion Aleidari.

Arrunt baldarra sortu zitzaion, eta damutu egin zitzaion ahalegina egin izana. Erizainak, no-lako aurpegia erakutsi ez zekiela, ez zuen deus erraten asmatu eta, bere lekutik mugitu gabe,

joaten utzi zion gauzak gehiago nahasi baino lehen. Arratsalde hartan gertatutako guzia atzendurik berehala, gauzak bertze modu batean egiteko gogoia sortu zitzaion Migeli, baina berant zebilen harrezkero. Alferretan ari zen bere zilkoari hozka, eta goiari eutsi beharra zegoela deliberatu zuen Aleidaren etxeko atea zeharkatuz.

Eskailerak jaitsi eta karrikara heldu zelarik, goiti begiratu zuen eta, lehen egunean bezala, erizainaren behakoarekin egin zuen topo. Aspal-diko telefono beltza belarrian, kalostraren gainean zeuzkan besoak, eta solasean ari zen. Ez zuen pentsatu nahi izan norekin, eta handik harat ez zituen begiak espaloitik goratu.

Incapturable bat hartu eta ostatu batean sartu zen ron luze baten eske.

Edariak, ordea, aldartea areagotu bertzerik ez omen du egiten. Malenkoniak jota amaitu zuen, begiak lauso eta belarriak gorri-gorri. Berant handian abiatu zen hotelera, oinez. Zuhaitzen bat bidera azaltzen zitzaion bakoitzean bi besoekin besarkatu eta musu ematen zion tristoraz beterik. Azkenean, ziraldoka, irrist egin eta

zerraldo jausi zen lurrera. Sekulako aitzurra zerraman gainean, eta oinen bila ibili behar izan zuen luzaro.

Astebete zeraman zain, baina telefonoak ez zuen jo nahi. Ainhoak ez zion egun jakinik paratu, baina ez zuen konprenitzen nola ematen ahal zuen hainbertze denbora deitu gabe. Nahiz Migelek enkargu gehienak oraino airean eduki, albiste onik ere bazegoen, eta ahaleginen berri eman nahi zion lehen baino lehen.

Gosaldu bezain fite, gelara igan eta bertan egoten zen eguerdia arte. Ordutegien arteko aldea kalkulaturik baitzeukan, goizetan hotelean geratzea deliberatu zuen; hagitzez merkeago ateratzen ziren konferentziak gauean eginez gero, eta Ainhoari ez zitzaion dirua xahutzea baxterez gustatzen.

Migelek inoiz ez zuen etxetik kanpo hainbertze denbora eman eta horregatik, beharbada, bere lagunarekin solasteko gogoia piztu zitzaion aspaldiko partez. Azken aldiko giro hotza desegiten hasteko tenorea bazuela uste zuen, eta ez zitzaion musika baino aitzakia egokiagorik bururatu bere gogoaren berri Ainhoari aditzera emate-

ko. Ohantzearen ondoko mahai txipiaren gainean zeukan grabagailua; bezperan eskuratutako zinta egokitu, aitzin-gibelera bueltaka bila ibili eta, eskaini nahi zion pieza atzeman zuelarik, prest utzi zuen ordua heldutakoan erabiltzeko.

Asmo zehatzik gabe irten zen bezpera goizean, eta Habana Zaharretik hurbil Areitio izeneko musika-denda batekin egin zuen topo. Ainhoarekin mintzatu zen azken egun hartan entzundako *Ave Maria* guarani hura etorri zitzaion gogora eta, hurrena deitzen ziolarik, berak paratuko zuela deliberatu zuen. Apaletan endredatzen ibili zen denbora puska batean eta dendariari ere egin zion galdea, baina ez zeukaten. Atzendu egin behar izan zuen asmoa; ez luzaro haatik, zeren...

Newtonekin hitz egin zuen eguerdian telefonoz, eta esperantza ez galtzeko erran zion.

Aldameneko bizilaguna musikazale porrokatua omen zuen eta, filmetako musika barne, denetarik bazeukan etxean. Egun hartan berean elkartu ziren arrats apal eta, agindu bezala, kopia bat eraman zion.

Ohi ez bezalako esturak sentitzen zituen Mi-gelek, uzkur, barnetik noiz sortuko, zeren...

Espazioan aske dabilen haitz loka izaten ahal zen iragan bezperan, baina azken aldian Ainhoaren orbitan biraka ote zebilen egin zitzaion, eta beldur zen ez ote zuen grabitatearen indarrez harenganatuko. Iruñean, elkarrengandik gertu, enbarazu egiten zion haren hurbiltasunak; eta orain, aldiz, Habanan hilabete bertzerik ez zera-mala, Ainhoaren deiaren zain zegoen goizero. Aldamenean baleuka, gerritik atxiki, lepoan muxu eman eta lurraren gainean eginen zuten jolas aspertu arte. Eutsi egin behar izan zion irudimena-ri, instant hartan, doi, telefonoak jo baitzuen.

- Operadora... -erran zuen emakumezko batek-, aguarde un momento.

Oinetakoak erantzi, balkonera jalgi, eta ohan-tzean jesarri zen ahalik erosoan. Urduri samar zegoen eta, garagardo bat irekitzeko gogoan egin bazitzaion ere, ez zuen deia erantzulerik gabe utzi nahi; zigarroa piztu zuen garagardo bila joan ordez. Telefonoak seinale galdu batzuk ematen zizkion aldian behin, baina ez zitzaion inor sar-

tzen eta, atzendu baino lehen, botonari sakatu zion Ennio Morriconeren musika abiarazteko.

- Soy Aleida -erran zion erizainak hariaren bertze aldetik-. Quiero que sepas que te echo mucho de menos.

Ez zuen haren deirik inondik inora espero, eta langosta egosia baino isilago geratu zen denak entzun arte, zeren...

- No puedo más vivir sin ti -aitortu zitzaion, eta *Miguelsito mío* deitu zion lehenik, eta *Mata-pasiones* gero.

Elkarrendako propio eginik zeuden, eta lastima iruditzen zitzaion horrelako huskeria bategatik haserretzea; horrela, bada, behar ez bezalako zerbait aipatu bazion, barkatzea nahi zuen; baina errua ez omen zen berea bakarrik, zeren...

Migelek ez zuen bere lekuan egoten jakin, eta solas egin beharra zuten berant baino lehen. Ez zuen etsi nahi, eta beregana bueltatuko zela hitz emateko erregutu zion.

Ez zion deus agindu.

Bazekien okerra berea zela, eta erremediorik gabeko kaikuaren moduan jokatu zuela aitortu

behar izan zion. Okerrak oker, moztu beharra zeukan, zeren...

Ainhoaren deia galduko balu deskuiduz, ez lioke bere buruari sekula barkatuko.

Etixerako bidaia antolatzen ari zela eman behar izan zion jakitera noizbait, eta agur egiteko hitzordua paratzeko denborarik eman gabe, telefonoa pittin bat urrundu, eta ...*Alo, alo...*, *¿Aleida?*, ...*Operadora...* eta antzeko plantak egin zituen, etenaren erantzukizuna Kubako telekomunikabideen gain uzteko.

Aleidarengana berriro hurbiltzeko aukera erabat baztertzen ez zuen arren, atsedean hartu zuen bere bakardadera itzuli zelarik. Isiltasunak sosegatzen lagundu zion, baina zerbait faltetsi zuen giroan eta, ahalegin txipi baten ondoren, Morriconeren zintarekin oroitu zen; ez zuen entzuten eta harritzekoa iruditzen zitzaion, zeren...

Ziur zegoen botonari sakatu ziola.

Tira, akaso ez zion behar bertzeko bolumena eman; beraz, gibelera bildu eta entzuteko moduan paratu zuen. Ainhoari eskaini nahi zion piezaren bila zebilela, ordea, telefonoak jo zuen berriez, eta zintzilik geratu zen airean.

Aleida izaten ahal zen deia berreskuratzeko asmotan, eta aparatuari begiratu zion arduraz beterik, zeren...

Txutxu-mutxutan segitzeko batere gogorik ez zeukan, baina Ainhoa ere egoten ahal zen bertze aldean zain.

Buru eman behar izan zion arriskuari, entzunik zeuzkan dagoeneko hiruzpalau seinale eta, bizkor ibili ezean, ez zuen bere kezka gainetik kentzerik izanen.

- Operadora... -aditu zuen-, konferentzia internazional.

Ainhoa zen.

- ¿Cómo le fue? -erran zion sarrera gisa.

Egunak ziztu bizian zihoazen, eta bere bizi-moduari buruz galdetu ondoren, elkarrekin adostutako afaria oroitarazi zion, baina sekulako dirutza ordaindu behar izan omen zuen iragan eguneko konferentziarengatik eta, ezer baino lehen, urtemugari buruzko betebeharrak lotu nahi zituen.

- Izan haiz Virgiliorekin? Ba al zagok inor Iruñerako prest?

Ez zegoen laburbiltzen samurra. Makalaren tantoarekin edo Munduko Txapelketarekin has-tea zuen akaso egokiena, baina korapilo erraze-netik hasi behar izaten omen da nahaspila erre-besenak askatzen, eta, berri itsusiak atzendurik, albiste onak kontatu zizkion lehenik.

- Che Guevararen errelojua zaukanat igortze-ko prest; eta pipa eta bloka -eta Casa de las Américas erakundean eskuratutako materialaz ere aritu zitzaion.

Irrikan zegoen txapelarena kontatzeko, baina berarendako gorde zuen, gorde beharreko zer-bait iruditzen baitzitzaion eta, Maria Josefak erran ohi zuen bezala, edozein eltzek bazituen bi belarri.

Urtemugaren helburuak oroitarazi nahi ziz-kion Ainhoak, zeren...

Gero eta jende gazte gehiagok Cheren elasti-koa omen zeraman soinean, eta nor izan zen ja-kiteko eskubide osoa zeukaten, haren argi-itza-lak barne. Itxurarik gabeko kontsumoaren erpee-tan jausi baino lehen, agerian behar zuen me-zuak eta, asmoaren adibide gisa, pasarte bat ira-

kurri nahi zion jardunaldiak iragartzeko inprimatu zuten liburuxkatik.

Agintearen eta protokoloaren aurka deliberaturik, elkartasun internazionalistaren alde noranahi joateko prest, duintasuna erakutsi zuen noranahi eta predikatzen zuena betetzen saiatu zen.

Ainhoak ez zion tarterik uzten deus errateko, eta solaskideak ez zizkion oraino erdiak bertzerik jakitera eman.

- Azken aldian Ernesto Che Guevararen irudia erabiltzen ari dituk, ausarki, publizitatea egiteko. Italiako ordulari baten esferan, Erresuma Batuan saltzen dituzten kirol-oinetako garesti batzuetan... Alemaniako garagardo bati ere bere izena eman ziotek!

Aireztailuari begira zegoen Migel eta, beharrik, prest utzitako zinta etorri zitzaion burura. Ustekabeko deia medio, ez zuen *Ave Maria* bere lekuan paratzeko denborarik izan; beraz, pixko batean bueltaka utzi eta telefonoa belarritik kendu gabe, *play* zanpatu eta bolumena igo zuen poliki-poliki. Ez zitzaion nahi zuen pieza atera, baina sobera falta ez zuenez, bere hartan utzi zuen.

- Ikurraren esanahia bera ere ulertu ezinean zabilek gazte jendea -eta, noski, liburuko bertze pasarte bat irakurri zion Ainhoak-: *Elastiko batean margoturik edo paretan itsatsitako karteletan zain, mamirik gabeko ikurra bihurtzeko zorian ematen du, Coca-Cola edo antzeko logotiporen bat balitz bezala.*

Albiste pertsonalagoak jakin nahi zituen Migelek, baina Ainhoak itzuri egin zion berehala, eta bere etxebizitzaren berri ekarri zuen solase-ra.

- Ez daukak larritu beharrik; Sanferminetako akuraren diruak jaso berriak ditiat, eta datorren hilabeterako beste eskari bat egin zidatek.

Asteburuan berean nazioarteko biltzar bat eginen omen zuten hirian, goi-mailakoa zeharo eta, bidaiarena kitatzeko ez ezik, sos hondarra bilduko zuen Antilletan denbora puska bat luzatzeko.

- Esker mila, baina...

- Ongi antolatua diagu dena. Ekitaldia zabalatzeko, eskuinean makila eta ezkerra gerrian, martxan sartuko dituk partaide guziak jende artera Xüberüako Pastoralaren konpasean. Erdi al-

dera, argi guziak itzali eta komandantearen hitzaldi batetik bereizitako atala emango diagu bozgorailuetatik. Azkenik, agur gisa, *Aprendimos a quererte* joko ditek dultzainek, dozena pare batek bai behintzat, Nafarroa osoan entzuteko moduan.

Gaupasen galdea egin zion Migelek pasadizoan bezala, baina batere graziarik egin ez zion distantzia susmagarriaren gibelean ezkutatu zitzaion Ainhoa, zeren...

- Nekatuta nagok -bertzerik ez zion erran-, baina tira... amaitu dituk jaiak behingoz.

Itxurak alde batera utzi eta *Faltetsi haunat* errateko zorian zegoelarik, luzaroan mutu egondako grabagailua, Migelek espero zuen musika eman ordez, solasean hasi zen halako batean, eta itsasoaren alderik alde hedatu zituen Aleidaren ausarkeria arriskugarriak:

- No puedo más vivir sin ti, Miguelsito mío.

Ahalik lasterren bolumena jaitsi beharrean, ozenago paratu zuen nahi gabe, eta behar ez zituen gauzak entzuteko aukera eman zion Ainhoari.

- Ume moko heldugabe hutsa! -deitu zion -, nahiago nitek itzuliko ez bahintz. Eulia sekula akabatu ez duenaren plantak egiten dituk, baina ez nauk hain erraz engainatuko. Erru osoa nirea duk, mukizu batekin horrelako konfiantza izateagatik.

Ez zion Guevararen txapelarena aipatzeko astirik eman.

Egoera samurtzeko balio izaten ahal zuen, baina hots eten batzuk bertzerik ez zitzaizkion heldu telefonoaren harian barna. Istant bat galdu gabe bueltan deitzea otu zitzaion Migeli, baina Ainhoak aitzakia gisa hartuko zuen ziurrenik; beraz, amore eman, eta denbora joaten uztea izanen zen egokiena.

Adi ibili izan banintz -pentsatu zuen atseka-bez Migelek- gauzak oro bere lekuan paratu eta harmonia nagusituko zen bazter guzietan, elkarren arteko loturak eutsi eginen zion bizitzaren egitura osoari, eta izaki guziek bedeinkatuko zituzten horrelako harreman zoragarriak.

Arras bakan gertatu ohi zen, tamalez, hainbateko txiripa kosmikorik lurraren gainean, zeren...

Guziz desorekaturik zegoen unibertsoa, mundua bera bezala, eta Ainhoa eta bere artekoa izaten ahal zen argibide erabakigarriena. Ezinago zen trakets, bazekien, baina halabeharrek ere bazuen erru miko bat.

Etsirik, mila aldiz madarikatu zuen bere burua, eta ahuleziaren ardoarekin mozkortzen hasia ote zen egin zitzaion.

Ilunabarrean heldu behar zuen aireportura, baina zer gerta ere pronto zegoen bazkalondotan. Aireztailuari so pipatu zuen azken zigarroa, eta trasteak aldean harturik jaitsi zen hoteleko harrera-lekura. Atzendutako gastu txipi batzuk zeuzkan oraino zor: hozkailutik hartuak zituen zenbait edari, telefono deiak, *Partagas* paketearen bat edo bertze. Giltzak mostradorearen gainean paratu ondoren, zerrenda luze bat atera zioten, eta ordaindu zuelarik, sos eskas batzuk bertzerik ez zitzaizkion sakelan gelditu.

Espaloiairen ondoan, besoa leihatilaren ertz gainean, Newton zegoen zain, Chevroletaren barruan erdi lo. Automobilak zurrunga egin zuen lehenik, baina bigarren ahaleginean pizturik, harritzatutako karriketan barna abiatu zen jauzika. Mangoz, guaiabaz eta kokoz jasotako mukuak ikusi zituen bazterretan. Gidariak hiruzpalau bider jo behar izan zuen bozina, jendea paretik lekutzeko. Errelojuari begiratzen zion Migelek urduri, baina bere laguna, edozein aitzakia probes-

tuz, lasai ederrean solastatzen zen aldamenean paratzen zitzaion aurreneko ezezagunarekin. Ordu erdi eman zuten, aise, labirintoan barna. Pixkanaka Habanatik urruntzen joan ziren, eta pitzatutako zutarrien gainean utzi zituzten etxe zahar dotoreak gibelean.

Urrundu ahala, gero eta indar handiagoa hartu zuen landaretzak. Errepidean, ardoaren koloreko Plymouth bat, Ekialdeko Alemanian egindako moto beltz sidekarduna, muturrean hegazkin supersonikoa zeraman Buick turkesa eta bertze hainbat ustekabe sinetsezin zebiltzan joan-etorrian. Guanoz estalitako txabolaren bat agertzen zitzaien noizean behin, eta bidearenertzeko hormetan erreboluzioaren aldeko irudiak ikusten ziren tarteka. Ernesto Che Guevarari eskainitako kartel bati erreparatu zion Migelek.

La verdad es siempre revolucionaria.

Habanarren artean egun ederrak pasatu zituen baina etsipena zeraman bueltan, zeren...

Hiru hilabeterako asmotan etorri zen eta ezin izan zuen bakarra bete, zeren...

Merezi ez zuen konfiantza eman zion Alberto Joseri. Baina damuak ez zuen balio orain, zeren...

Hasmentan denak irudi zuen posible, eskatu gabe ere bazegoen zer hartu, baina aise nahaspilatzen ziren gauzak Habanan eta, belarriak herrestan, hanka egin bertze erremediorik ez zuen.

Ahal izanez gero, egutegia hilabete luzarazirik, bertze era batera eginen zituen gauzak. Hala ere, tira, oroipenez beterik zeraman sabaia.

- Están escuchando Radio Reloj -erran zuen irratiak-, son las siete y catorse minutos.

Errelojuari erreparatu zion Migelek. Bat zetorren entzun berri zuen oharrarekin. Adiskideari trukean eman zion *watch* urdinarekin oroitu zen, eta une egokia iruditu zitzaion gauzak bere lekuan uzteko. Ez zuen, jakina, inolaz faltesten eta, gainera, Migelek Newtonen obserbatorio digitala zeraman berekin oroigarri, baina harra geratu zitzaion nolana ere, zeren...

Iruñean bazuen bertze bat, eta gidaria deusgabe zebilen oraino.

Horrela, bada, askatu eta eman egin zion damutu baino lehen.

Lagunari irri maltzurra sortu zitzaion begietan, zeren...

Isil-isilik, eskua bolantetik kendu gabe, esku-muturrean lotu zuen eta ez zion eskerrik eman, baina galtzetako sakelan miatu ondoren Migelen erreloju urdina atera eta itzuli egin zion.

Ustekabean harrapatu zuen bezeroa.

Madarikazio bat bota zuen lehenik, baina al-gara bera egin zuten gero biek.

Bazebilen, eta orduan zegoen gainera, zeren...

- Un trabaho fásil para un esperto en ondas expansivas.

Ez zion deus sinetsi, baina berdin zitzaion.

Errepideetan zebiltzan automobil traste haiek ere gordetzen ahal zuten tranpi koxkorren bat; gezurra baino gehiago, metafora adierazgarria iruditzen zitzaizkion. Antzekoa izaten ahal zen Kuba bera ere, eta ez zuen aurkitzen bere izaera azaltzeko irudi egokiagorik; gogoz kontra-ko kutsu dekadente xarmant hura ederra ere izaten ahal zen. Azken batean, amore eman nahi ez duenaren harrotasunak eta ezinbertzeko baliabi-deekin moldatu behar duenaren borondateak bihurtzen zuten duin eta zilegi.

Auzo yankiaren apaindura harroa erakusten zuten automobil batzuek oraino, beharbada Lada edo Moscovitx baten motorra zeramaten bertze batzuek barnean transplantaturik, baina, ordezeko piezak eskuratu ezinik, mekanikari trebe aunitz zebiltzan Habanako karrika zaharretan etorkizunari desafio egiteko pronto. Osaba Samen karrozeria zaharkiturik eta aspaldi urrun hartako errai gorriak franko higaturik izan arren, gidariak Newton zuen izena eta, zaintzeaz gain, berak konpontzen zuen Chevroleta bazterren batean gelditzen zitzaion bakoitzean. Erregaiak, auskalo zenbat jatorriren arteko nahasturaren ondorio, kalitate eskasa izaten ahal zuen, baina motorra bazebilen oraino.

Aitzineko kristalean itsatsirik, harmonia ederrean zihoazen aberriaren salbatzaile berriak eta santeriaren kutun zaharrak eta, aldi berean, giroaren osagarri, aspaldiko bolero bat ari ziren ematen irratan. Alboetara begira joan ziren hitzik atera gabe, aireportura ailegatzeko gogorik ez balute bezala. Baina txoferrak gibeledu ispi-luan so eginik, bi motor beltz handi ikusi zituen gero eta hurbilago. Insignia hegalduna papa-

rrean, buruan bisera, *Policía* irakurri zuen Migelek eskutokiaren gaineko kristalean idatzirik eta, halako batean, automobilaren aitzinean paratu zitzaizkien. Eskuineko bazterrean gelditzeko agindua eman zien bietako batek eskuarekin. Gidariak, beldurrak airean, Ogun, Chango eta Lemanjaren eskuetan utzi zuen bere arima erruki-garria.

Aldian behin baino ez omen dira gertatzen mirariak, baina premiak, beharrik, irudimena zirikatzeko omen du, eta Migelek kartonezko karpeta urdin bat atera zuen bere pusken artetik. Ahalik sosegu handienarekin zabaldu eta paper bat bereizi zuen denen artean, zeren...

Instituto Cubano para la Amistad con los Pueblos irakurtzen ahal zen goiburuan, eta pare bat sinadura eta zigilu dotorea zeramatzan orrialdearen oinetan.

Zain zegoen poliziarri eman zion agiria Europa zaharreko ordezkariak. Arretaz irakurri eta gero, bere bibiroarengana hurbildu zen; ez zuen, antza denez, arazo diplomatikorik sortu nahi eta, elkarren arteko solas labur baten ondoren, telefonoa erabili behar izan zuen. Auskalo nora deituko ote

zuen poliziak, edo bertze aldean inor ba ote zegoen, baina zirtoak eragin nabarmena izan zuen, zeren...

Hurrengo batean behar bezalako *salvoconducto* bat eskatu beharra zegoela erranik egin zuten alde.

- ¡Vaya escapada! -atera zitzaion Migeli hasperen batean.

- De la que te sumba el mango, hermano.

Eskerrak merezi zituen Ainhoak, urtemugarengatik izan ez balitz ez ziren hain aise libratuko. Agindutako enkarguaren zain egonen zen, ziur aski, orduko, baina, tamalez, ezin izan zion fundamentu handirik egin, eta oraino ez zekien zer aitzakia sortu. Errua ez zen berea izan. Sobera izanen zuen bertze astebete dena konpontzeko, baina *Cuba es así* edo *No es fácil, compañero*. Espainiako Enbaxadaren esku luzea aipatu beharko zion, zeren...

Alde batetik egia zen eta, bertzetik, susmagarritasun politikoa gaineratzen ahal zion arazolari.

Egia errateko, komeni zitzaion.

Alberto Joseren zikulusaltsak, aldiz, ez zizkion kontatuko; ez zituen behar bezala konprenituko, edo, are makurrago, gaizki ulertzen ahal zituen.

Arriskutik irtendakoan, terminologoa bueltatu zitzaion Migeli gogora, eta poliziaren pasadizoarekin lotu zuen. Susmoak, ordea, ez zuen inolako zentzurik, zeren...

Berari baizik ez zion zor itzuliko bidaia aitzineratu behar izana; ez zitzaion bertze erantzunik bururatzen.

Urrun igorri nahi zuen ahalik arinen, eta ez zitzaion hegazkina gal zezan komeni. Aurki, gainera, bertze biltzar batera irten beharra zeukan Alberto Josek; beraz, ez zuen Migelen antzeko endredamakilarik nahi izanen noski bere inguru hurbilean.

Urduri eta bere onera etorri ezinik zegoen Newton, eta ez zuen fitsik erran denbora tarte batean. Migelek irratia ren bolumena igo eta, Lecuonaren pianoa lagun, errepidearen zoru gaineko lerro zuri etenari begiratzen zion, oinetakoen azpiko zulotik burua jaso gabe. Uste baino lehenago jalgi ziren kalapitatik, eta tenoreko zebil-tzan, bertzenaz -gidariaren kalterako akaso,

baina bere onerako beharbada- egonaldia luzatzeko aukera emanen zioten gauzak argitu arte. Ez zen horrelakorik gertatu. Urrunean, eguzkiaren galdak kiskalitako giroaren gibelean, aireko zirkulazioa kontrolatzeko dorrea ikusi zuten, eta handik puska batean, errepidearen norabide berrean, hegazkin handi bat paratu zitzaien gainean, gurpilak agerian eta lurretik hagitx hurbil.

- Un sueñesito, y a continuación -erran zion Newtonek- desayuno en Atenas.

Migeli bere jatorriaren berri emateko gogoan egin zitzaion arren, munduz kanpo zebilen azalpenak ematen hasteko. Indurainen pasadizoak aipatzen ahal zizkion, edo sanferminetako entzierroa, edo Hemingway bertzenaz. Baina handik goiti zer erran behar zion? Europa osoan ez dagoela bere mintzaira baino zaharragorik? Añamendiko bi aldeetan dantzan egiten duen herri batean sortua zela? Camilo Cienfuegosena ama euskalduna zela? Hurrengo bisitan, elkar ikusten bazuten, erranen zion zerbait.

- A ustedes -egin zion, hala ere, berriz eraso- no les gusta mucho que los yamen gayegos...

Erremediorik gabeko inozo irri-emangarri baten aurpegia gelditu zitzaion Migeli, eta *No especialmente* erran zion kareizko lente berrien gaintetik begiratzen ziola.

- ...y ¿encontraron ya ustedes lo que andaban buscando?

Ez zion ihardetsi behar izan, erakusten zuena baino gehiago baitzekien txoferrak, zeren...

Galderarekin ongi asmatzen duenak ba omen daki erantzunaren erdia bedere.

Adarra jotzen ari zitzaion, nabarmen, eta Migelek ez zekien desafioaren aitzinean zer erran. Isilik geratu eta galderaren oihartzuna entzun zuen behin eta berriz bere baitan, baina buruak ez zion taxuzko deusik eskaini nahi izan.

Aireportuaren aitzinean zeuden. Irratiak zortziak eta hogeitazirela eman zuen jakitera, eta hegaldiaren ordua bederatzietarako iragarririk zegoen. Ordubete lehenago hegazkinera sartu aitzineko gelan behar zuen egon; aski berant zebilen. Automobiletik jaitsi eta, trasteak bizkarrean, *José Martí* irakurri zuen ate nagusiaren gainean. Azken behakoa bota zuen kanpora, eta bi kolore-

ko Chevrolet zahar baten irudia gorde zuen begietan.

Ahalik lasterren saiatu zen txartelak zigilatu eta trasteak bideratzen. Oraino bazegoen purukaxak eta ron botilak poltsetan ezkutatu ezinik zebilen jendea.

Ozeanoa zeharkatu bezain pronto ahazten omen zituzten atzerritarrek Kubako lagunak. Eskua elkarri eman ziotelarik, berriro ikusteko esperantzarik ez zion atzeman Newtoni, eta tristura hondar bat sentitu zuen.

- El año próximo -erran zion gidariak adeitsu-en el mismo sitio; a la misma hora.

Pasaporte eskuan, mugazainarengana jo zuen gibelera begira. Emazteki galanta zen, brometan gor samarra ziurrenik, eta berant zebilela gaztigatu zion bekozko. Arriskuan ikusi zuen bidaia bigarrenetik, baina urrikaldu egin zitzaion azkenean, eta zigilua paratu zion dokumentuaren gainean. Eskua altxatu zuen Newtonek hesiaren bertze aldean, eta keinu berarekin iharde-tsi zion Migelek.

Eskua poltsikoan sartu eta sos bila ibili zen. Txanpon bakan batzuk bertzerik ez zituen aurki-

tu; beraz, oroigarriren bat erosteko azken auke-
ra bazterturik, kafetegira hurbildu zen. Zigarroa
erre bitartean aÑejo bat hartu zuen malenkonia-
ri gogor egiteko asmotan. Azken oharra eman
zuten bozgorailuetatik, eta lur hartzeko lautada-
ri erreparatu zion kristal zabalaz honat. Egonean
zeuden hegazkin gehienak, baina bazegoen bat
maniobra baldar batzuk egin ondoren pixkanaka
hurbiltzen ari zena. Arrats apal, barneko argiak
pizturik zeuzkan, eta bi langilek eskaileratzarra
paratu zioten saihetsean. Atea ireki zutelarik,
azafata bat agertu zen kanpora, eta autobus
gorri bat ere ikusi zuen beheko bazterrean bidaz-
tiak garraiatzeko prest.

Abiatzeko baimena entzunik, handik beheiti
jalgi ziren denak tropelean. Oporren akabaila eta
bidaiaren nekea nabaritzen zitzaion jendeari au-
tobusean. Ez zuen ia solasik entzun aireportua
zeharkatzean. Hegazkinera igotzeko eskailere-
tan goiti baranda kiskaltzen zegoen, eta ezin
izan zuen eskua gainean pausatu. Irria ezpaine-
tan, *aeromosa* batek eraman zuen bere lekura;
tamalez, ez zitzaion leihoaren ondoan egokitu.
Aldameneko hegalaren azpira begiratu zuen

urrundik, eta Habanan egindako izterbegi bakarra ikusi zuen, ilaran, barneratzeko zain.

Alberto Jose!, erran zuen bere artean; bertzerik ez genian behar!

Ez zuen inondik inora harekin topo egin nahi. Komunera jotzea ere pentsatu zuen, baina ez zeuzkaten irekigarri aireratu arte. Entzungailuak belarrietan paraturik, gortina baten antzeko musika gardena -Milt Jackson, beharbada- hautatu zuen aulkiaren besoan zeukan gailuaren bidez. Gerrikoa jantzi eta gero, lenteak erantzi, aitzineko jarlekuaren bizkarreko poltsatik egunkaria atera eta haren gibelean ezkutatu zen zer gerta ere. Begiak bildurik, bere baitan murgildu zen arriskua iragan arte.

Ohantzean agondurik zegoen Migel, liburu bat esku artean. Aldameneko lanparak Japoniako etxe baten maketa ematen zuen gauaren erdian pizturik. Iruñetik abiatu aitzin hasi zen liburu hura irakurtzen, baina, ia hilabete oporretan emanagatik, hondar bat geratzen zitzaion azke-nera heltzeko.

Ainhoarenean zegoen maizter. Astebete lehenago oreinaren adar-muturrean zuloa egitea baino zailagoa irudituko zitzaion, baina inoiz ez da jakiten noiz, eta are gutxiago emazteki batekin. Etxearen teilatupeko arras ongi antolatu baitean bizi zen Ainhoa. Ez zeukan ia altzaririk agerian. Ate koxkor bat ireki behar zen ezker-eskuin telebista ikusteko, eta koltxonak armairu barenan ematen zuen eguna lotarako ordua heldu arte gorderik. Antz handia zeukan Ekialdeko ganbera batekin, baina Nafarroan neguak latz izan ohi dira arrunt, eta han ez bezala, kristala zeukan leihoetan arrozarekin egindako papere-
ren orde. Armazoi-
en karratuetan hesiturik pa-

pera, zirrituan barna irekitzen ziren horma irris-
tagarriak paratu zizkion solairuari, eta lekuak,
horrela, ez zeukan pasillo beharrik. Erosi berritan
baino franko handiagoa irudi zuen eta, gainera,
tankera eta tamaina desberdinetan banatzen
ahal zuen nahi modura. Ez zen Migel zoko hartan
sartzen zen lehen aldia, baina orduan ikusi zuen
nabarmen Maria Josefak azaldu zion «tarte-
teko teoria» teatral hura begien bistan. Espa-
zioa, papera bezala, pleguz plegu moldatzen
ahal zen, eta Ainhoari azaldu behar ziola delibe-
ratu zuen.

Non sartu ote zen?

Ohantzetik jaiki eta bila hasi zen. Etxarteko
patoria ematen zuen terraza koxkorra zeukan pi-
suak eta, erosi orduko obrak egin baitzituen,
bertan zeukan komuna. Pizturik zegoen argia,
eta barandaren aitzinean geratu zen teilaz teila
eraikitako itsasora begira. Izartegia lepo zegoen,
keinuka zebiltzan bizpahiru hegazkin. Alberto Jo-
serekin oroitu zen bat-batean; itsasontziak ez
ezik hegazkinak ere paperezkoak izaten ahal zi-
rela erakutsia zion terminologoak ozeanoaren
gainean zihoazela; baina Migelek ez zion agurrik

egin nahi izan sartzan ari zela ikusi zuelarik. Eguzkitako lente beltzak zeramatzan, itsuaren plantak egiteko. Aldameneko leihoa libre zeukan arren, beharrik, gibelesko jesarlekuan egokitu zitzaion habanarra.

Entzungailuak paratu zituen belarrietan ahalik lasterren satorrak. Soinua jaitsi zuen hala ere, kanpoko giroari kasu egiteko. Alberto Josek ez zuen isilik luzaro iraun eta, ondoko bidaiaria irakurtzen ari zela probestuz, enbido txipi bat utzi zuen:

- De los libros -erran zion- lo que más reclama mi atención es el papel.

Ez zen ihardespenik sortu. Aireratu bitartean, hari musikalaren bolumena igo zuen Migelek abioaren furrunda bozatzeko. Ordu laurden inguru eman zuen bakarturik eta, kanpora menturatu zelarik, solasa entzun zuen berriz ere:

- ...Kraft, cuché, Manila, vehetal, prensado, esétera, sin contar sus derivados, como por ehemplo, cartones, cartulinas, cartonsiyos...

Bidaideak ez zion, agi denez, espero zuen arreta eskaintzen, eta Migel susmatzen hasia zegoena gertatu zen: afariaren usaina aditzen zen

giroan eta, tripulazioa bueltaka zebilela ikusirik, eskua altxatu zuen Alberto Josek.

- ¡Aeromosa! -deitu zion-, observo que acá adelante una ventana se encuentra disponible. Sería mucho pedir...

Eragozpenik ikusten ez zuenez, eskatu orduko eman zion baimena. Ezagutuko ez balu bezala jesarri zen adiskide ohiaren alboan, eta hodei gizenak aztertzen eman zuen denbora puska bat. Isiltasunaren ur azpitan igeri eman zituen bizpahiru minutu. Migelek ezagutzen zuen pittin bat, eta bazekien aurki irten beharko zuela azalpetik arnasa hartzera. Alberto Josek imintzio arraro batzuk egin zituen bere buruarekin solasean ari balitz bezala hasmentan, eta *¡Qué caraho!* erran zuen noizbait, *Una es poco; pero dos, hermano, demasiado.*

Istant bat lehenago, txit fermu, serio agertuko zitzaiola zeukan deliberaturik Migelek, baina ustekabean harrapatu zuen, eta ezin izan zion irriari eutsi.

- Amor y humor -ospatu zuen terminologoa bidaidearen poza-. ¡Una bomba!

Emazteki kontuak atzendu gabe, paperezko euskarriaren garrantzia, liburuak -ahaleginak egin behar izan zituen Buda potoloaren irri inozoa burutik kentzeko-, paper plegatuaren artea eta bertze aunitz abar entzun beharko zizkion? Ez, hurrengo goizean iratzarri zen arte ez zion lorik galarazi. Ordubeteko bidea falta zuten, eta biltzarraren berri eman zion, sobera xehetasun aipatu gabe. Eskertu egin zion laburrean azaldu izana. Handik pixko batera, tripulazioa bueltaka zebilela, azafataren aitzinean bere burua nabarmentzeko gogoia egin zitzaion Alberto Joseri berri ere:

- ¡Aeromosa! -egin zion dei-. ¿Conose usted por un casual el nombre del comandante de a bordo?

Ez zion deus erran; behatz bat paratu zion, ezpainenetan lehenik, isil zedin; belarrira eraman zuen gero, entzun zezan eskatzeko; eta, azkenik, aitzin aldean zegoen bozgorailua erakutsi zion. Ordura arte musikarekin ohartu gabea zegoen Migel, baina, hura bukatu, hegazkin guzietan disko bera erabiltzen ote zuten hasi zen susmoa hartzen. Eztul txipi batzuk egin zituen berriemai-

leak, eta mintzatzen hasi zelarik ezaguna egin zitzaion ahotsa:

- Atención, señores pasajeros: lo páharos nocturnos picotean las últimas estreyas que senteyean como mi alma cuando la amo. Soy el comandante Ulises Tamayo. Confiamos que el viahe haya sido de su agrado.

- ¡El vieho Ulises! -jauzi egin zuen Alberto Josek jesarleku gainean-, estaba seguro.

Aldian aldiko argi gorri txipi batzuei esker be-reizten ziren hegazkinak izarren artean eta, Tamayo kapitaina gogoan, terrazara jaitsi zituen Migelek begiak. Eguna argitu eta gero heldu ziren Madrilera, eta aireportuan egin zioten agur elkarri terminologoak eta biek.

la gosaltzeko denborarik eman gabe, Fokker zahar batek ekarri zuen Hondarribira. Ainhoa, tamalez, ez zegoen zain. Aireportutik Irunera, Iru-dik Mugairira eta Mugairitik Iruñera, autobusez autobus ibili zen, Estafetako bere txokora ailegatzeko irrikan.

Etxean sartu zelarik norbait sumatu zuen du-txan. Zilipurdi egin zion bihotzak. Ainhoa bera izaten ahal zen, baina traza handiagoa harrapa-

tu zion bere mendeku emozional makurren bate-na. Akura hitzarturik zeukala errana zion; beraz, maizter berria izaten ahal zen, eta mila bider madarikatu zuen bere burua telefonoz dei ez egi-teagatik. Inondik inora espero ez zuen bertze norbait zen hala ere, eta bigarren aldiz egin zion jauzi bihotzak. Alberto Jose agertu zitzaion toalla gerrian loturik.

Migelek gibelera egin zuen hark ikusi baino lehen. Ez zen bere gelan sartu, zeren...

Aleida edo Maria Josefa egoten ahal zen ohantzean.

Eskerrak eman zizkion zoriari etxeak terraza-rik ez zeukalako, zeren...

Bertzenaz, Arseniorekin ere egiten ahal zuen topo, eta automobilik izan balu, berriz, dagoene-ko hasia zitzaion Newton bozina joka.

Ainhoari telefonoz deitu behar ziola delibera-tu zuen erotuko ez bazen. Ainhoak ez zion hitzer-di bat errateko paradarik eman, eta giltzaurrez betetako gurdia bulkatu zion gainera:

- Hori al duk hire alde egin dugun ahalegina-gatik eskerrak emateko modua? Xenofobo alae-na! Mulata gaztea izan balitz zer?

Konfiantza osoko jendearen bidez jaso omen zuen eskaria, eta horregatik eman zion baiezkoa; are gehiago kubatarra zela jakinik, zeren...

Aholkulari lanak ere egiten ahal zituen jardunaldiei beha.

Arratsalde hartan berean elkartu ziren La Vienesan. Egunkarian murgildurik zegoen Migel iragan asteetako albisteak ahanzturatik ekartzeko ahaleginetan. Begiak goratu zituelarik, Ainhoa ikusi zuen kafetegiko atean sartzen. Errietan hasteko aitzakiaren bat aurkitzeko zorian zegoe-la iruditu zitzaion, baina uste ez bezala, muxu eman zion lepotik zintzilik.

- Nondik atera dituk betaurreko horiek?

Ustekabean harrapatu zuen; ez zeukan erantzunik prest.

- Habanako neskaren batek egindako oparia?

- Ez didan sinetsiko...

- Ez dira, bada, Cherenak izango?

- Eta balira?

Fitsik eduki gabe hordagoa jotzen duenari eskaintzen zaion sinesgarritasun-eza atzeman zitzaion Ainhoari begietan. Hitz bertze eginik, postetxetik zetorrela erran zion.

- Egurrezko kutxatar bat zaukatek biltegian nire izenean. Laguntza behar diat berehala.

Lehentxeago, lepotik zintzilik zeukala, haren bihotzaren jabe bihurtzen ari ote zen egin zitzaion Migeli. Bai zera!, muxuaren erdia baino gehiago Kubako Iraultzarendako izanen zela pentsatu zuen.

- Oraindik ez diagu leku egokirik aurkitu trasteak uzteko; beraz, bion artean eraman beharko diagu altxorra etxera.

Alberto Joserren berri eman zion bidean Migelek. Ez zizkion, noski, terminologoiari buruzko zikulusaltsa guziak kontatu, baina deabruari berrari negar eragiteko gauza zela erran zion. Sinetsezina iruditu zitzaion Ainhoari.

- Arazo guziak horrelakoak balira... Hire pisua libratu artean -proposatu zion- elkarrekin bizitzen ahal gaituk!

Irri gozoa sortu zitzaion Migeli.

Pisura iritsitakoan, iltzeak sartzeko eta askatzeko ere balio zuen bi belarriko mailu bat eman zion etxeko andreak. Errelojua eta bloka eta tabakoa erretzeko pipa atera zituen lehenik eta, gero, bideoak, posterrak eta dozena erdi liburu.

Ainhoak espero zuenaren erdia ere ez zegoen kaxa barnean, baina Virgilio, aitortu bertze erre-medorik ez zeukan, jator portatu zitzaion. Ametsaren antzeko traza eman zion Migelek ozeanoaren bertze aldetik heldutako opariari, zeren...

Ez zen samurra Habanan antolatutako zer-bait Nafarroan berean, bere aitzinean, gauza-tzen ahal zenik sinestea eta, paradari muzin egin gabe, Iruñeko jardunaldiak zertan ziren galdetu zion.

Zenbait erakunde politiko, ezkerrekoak izanagatik, ez omen zeuden ekimenarekin erabat ados. Haietarik bat, bere kontrolpetik kanpo geratzen zelako ziur aski; eta bertzeren bat, bekaizkeria hutsarengatik.

- Ez ditek ulertzen, halako urtemuga lau ka-turen artean bakarrik antolatzea nola den posi-ble.

Gainerakoak erdibiturik zeuden: indarkeria-ren aldeko apologia iruditzen zitzaien batzuei, eta bertzeek, aldiz, hippy talde baten oroimina aipatzen zuten asmoari garrantzia kentzeko.

- Antzarak ferratzera bidali ditiagu disimulu-rik gabe.

Nahiz ezin egokiagoa iruditu zitzaion izartegiaren azpiko gau epel hura txapelaren zaramatikak azaltzeko, deus ez erratea deliberatu zuen, ez baitzekien egindakoarekin harro sentitu behar ote zuen edo damutu. Mingainari eutsizion badaezpada, txoko ezkutu bat zeukan kasakoan eta, aldian behin, erabili egiten zuen.

Ez zekien Zuberoako txapelaren mirariaren berri nola eman eta, gauzak arinegi egin gabe, hurrengo eguna arte gibeleratu zuen asmoa. Isil-isilik zegoen gaua, Migelen sekretua gordetzeko prest balego bezala. Halako batean izar iheskor batek zeharkatu zuen zerua, eta zalantza egin zuen bere buruan ere antzeko izarren bat lokatu ote zitzaion.

Ainhoa bazetorren dutxatik bueltan, eta mundu honetara jaitsi zituen begiak. Ordu erdi emana zuen bainu-gelan giltzaturik; beraz, nahi bezainbat denbora izan zuen prestatzeko.

Baina Ainhoa biluzik azaldu zen.

- Arropa janzteahantzi zain?

- Oheratu ere egin beharko diagu noizbait...

elkarrekin.

Umorearen laguntza eta maitasunaren beroa izan zuten ohantzean. Elkarren artean esekitako zabuetan ibili ziren zilipurdika. Ikara egin zuen azpiak eta izarrak nahasi egin ziren. Eta noizbait bakoitzak bere baitan hartu zuen lur. Loak menderatu zuen Ainhoa. Akiturik zegoen Migel ere, baina ezin begirik bildu, zeren...

Alberto Joseri itzuliko bidean entzundako hitzak zebilzkion bueltaka:

- ¿Usted se imahina, Miguel, que tira de la cadena, comienza a plegarse la casa y se queda atrapado para siempre, como dentro de un libro?

Ohantzean agondurik, azkenera heltzeko hondar bat geratzen zitzaion liburua eskuratu zuen. Ozeaniako mapa baino aspergarriagoa egin zitzaion. Argia itzaltzeko irrikan zegoela, gogora etorri zitzaizkion paperezko paretak, zirrituan herrestan zebiltzan ateak, bionbo tolesgarriak eta pleguz plegu biltzen ahal ziren Japoniako etxeak. Iragan ametsen batean atzendutako zerbait berreskuratzekeo esperantzan hartzen omen du jendeak lo, baina gau hartan, badaezpada, pizturik utzi zuen Migelek aldameneko lanpara.